


Antonio Zavala

Auspoaren auspoa I

(Itzaldiak / conferencias)



Auspoaren auspoa

I

(Itzaldiak / Conferencias)

Auspoa Liburutegia

238

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. (943) 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax (943) 49 35 48

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Antonio Zavala

Auspoaren auspoa

I

(Itzaldiak / Conferencias)

Auspoa Liburutegia

(1996)

© SENDOA ARGITALDARIA

ISBN: 84-89080-40-2 Obra completa

ISBN: 84-89080-38-0 Tomo I

Legezko Gordailu: Na.: 992-1996

Inprimaketa: Gráficas Lizarra, Lizarra

Ataria

Itzaldiak ez dira bein ere nere gogoko lana izan. Batetik, izlari egoki eta trebea ez naizelako; bestetik, aurreragoko zeregiñak banituala pentsatzen nualako. Ala, langintza ortatik igeska ibili izan naiz beti.

Baiña uka eziñezko konpromisoak beti sortzen diranez, gogoz kontra bada ere, nere gelaren bakar-dade gozoa utzi eta bein baiño geiagotan jende aurrera azaldu eta mintzatu bear izan det.

Orain, berriz, orrelako saioak, an eta emen urteen buruan emandako itzaldiak alegia, bildu eta argitaratu egin bear zirala esan didate nere lagun batzuek.

Nere paper zaarretan azterka asi naiz, beraz. Atzo goizean jaioa ez naizela ere or ikusi det. Nere leenengo itzaldia 1956-ko iraillean eman bainuan. Aurki berrogei urte, beraz.

Baiña, naiz eta gogotik saiatu, ez ditut guziak arkitu. Gorde ere ez nituan bearbada egingo, edo ez dakit zer izango dan. Galdutako oiek beude, beraz, beste argitalpen baterako, denborarekin azaltzen badira eta gaurkoekin jendea gogait arazten ez badet.

Baiña oiek gabe ere, agertu diranak bi liburu, bi tomo, oso lodiak gaiñera, osatu dituzte. Emanaldi baterako naikoa, beraz.

Itzaldiak dirala esatearekin, liburu auen batasuna ere alamoduzkoa dala esanda dago. Ez dira aurretik patxaraz eta arretaz pentsatutako liburuak, asieratik bukaera arte asmo batekin moldatuak alegia, aitzakiren batez alde batera utzi ezin izan ditudan enkarguak baizik.

Zerbaitekin konparatu bearrez, errosario baten antza artuko nioke nik nere itzaldi sorta oni. Ari luze bat, alegia, eta zenbait ale artan itsatsita edo lotuta.

Ale oien ordena, berriz, egokiena bera dalakoan, itzaldi bakoitzaren eguna eta urteari begiraturik eratu degu, zaarrenetik asita.

Baiña emengo lan guziak erri literaturari buruz egiñak diranez, badute bi liburu auek nola-alako beste batasun bat ere. Gai ori ez da, ordea, bere osotasunean artzen eta erabiltzen. Orrialde auetan ikuitzen ez diran alderdiak ere baditu.

Zenbait aldiz gauzak errepikatu egiten dirala ikusiko du irakurleak. Onek ere sustrai berdiña du: al-dian aldiko enkarguarekin kunplitu bearrez eging-dako lanak dirala.

Beste bitxikeri bat ere badute liburu auek: bi izkuntza ageri dirala. Erderazko itzaldiak ere badituztela alegia, egokierak ala eskatu zualako gazteleraz prestatuak eta emanak izanik.

Urteen buruan nork bere idazlanak irakurtzea oso sentimentu berezia sortzen du. Beste batenak balira bezela artzen eta juzkatzen dira. Orduan esandakoak, batzuk atsegin zaizkizu; beste batzuk ez, ordea. Edo, bestela, esan bearrak obeto adierazi zitezkeala garbi ikusten dezu.

Orixe da, ain zuzen, gure bizitza guziarekin ere gertatzen dana. Urteetan aurrera joandakoan, be-

giak atzera jiratu eta danetik ikusten da. Baiña oroi-
pen oiek, onak eta txarrak, bizkarrean artu eta segi-
gure bidean aurrera, gelditzen zaizkigun urteetan
ere aal deguna aal degun modurik onenean egiñez.

A. Z.



Antonio Zavala

Hitzaurrea

Batzuetan ustekabeen lotzen dira gertaerak eta beste batzuetan ezinbestez; baina beti halabe-harrez. Biak esan baititzakegu *halabe-harrez* esanda: ustekabeen eta ezinbestez. Bai. Halabe-harrez lotu ziren egun hartako gertaerak ere. Baina ez naiz ausartzen gehiago zehaztera. Dena dela, apustu egin beharko banu, errazago joko nuke ezinbestearen aldera, ustekabearen aldera baino.

Izan ere, egun hartan, buru-belarri aritu nintzen lantzen Maruyamaren artikulu bat. Epistemologia eta estatubatuarra da Magoroh Maruyama, eta Tokioko Unibertsitateko irakasle. Artikuluak, berriz, *Logika, kulturak eta gizabanakoa* du izenburu, eta UNESCOren Albistariaren 101. alekoa da (31-35. or.).

Maruyamak, funtsean, lau logika-mota bereizten ditu, eta logika-mota bakoitza letra batez izendatzen: H, I, S eta G. Lehenengo logika-motak, besteak beste, *homogenist*, "homogeneozale", izateko joera omen du bereizgarri. Hitz horren hasierako letra aukeratu du Maruyamak pentsabide hori izendatzeko. Eta berdin jokatu du beste hirurak bataiatzeko ere, bakoitzaren ezaugarri esanguratsu bat begiz joz: *isolationist*, "bakartzaile"; *stabilizing*, "orekagile"; eta

change-generating, “aldaketa-sortzaile”. Ondoren, logika-mota bakoitza nagusi duen gizakia nolakoa den azaltzen digu Tokioko irakasleak.

Labur esanda, dena sailkatzeko eta mailakatzeko joera dute H motakoek, den-dena arau bakarrena ekartzeko joera. Egia bakarrean sinesten dute, eta printzipio absolututan. Eta horixe da horientzat jator jokatzea: printzipio horiei leial eustea, nonahi eta beti. Harremanak lehia dira horrelakoentzat: batak irabaztekotan, besteak galdu egin behar.

Hori irakurri orduko, alemanen irudia etorri zitzaidan gogora. Eta hori ere argitu zidan Maruyamak. Izan ere, kultura bakoitzean, logika jakin bat izaten omen da nagusi, eta beste logika-motak aldatzera edo zapaltzera jotzen omen du nagusi horrek. Esate baterako, H motako ezaugarriak omen dituzte, batik bat, korearrek eta suediarrek ere. Eta ikuspegi hori omen dute kontulari askok eta askok ere; ogibidez diru-kontuak egiten dituztenek, alegia.

Ez nuen ezer benar izan, ez, hitz horien harian Euskal Herrira begira egoteko. Baina bigarren pentsabide-mota ere zain neukan Maruyamaren artikuluan.

Oso bestelakoak omen dira I motako pentsabidea dutenak. H motakoek homogeneousotasuna bezala, I motakoek heterogeneousotasuna maite dute eta hura gorroto. Askatasuna, autosufizientzia eta subjektibotasuna dira hauen kutunak, eta beren printzipioak dituzte gidari. Hauentzat, zenbat eta lan-taldea handiago, hainbat eta lan eskasagoa egingo da. Ingurugiroaren kutsadura, adibidez, jende asko elkarrekin bizitzearen ondorio omen da. Eta nork bere baratzea landuko balu, primeran ibiliko omen lirake gaizak. Maruyamak dioenez, Estatu Batuetan H eta I logika-motak omen dira nagusi.

“Eta gurean?”, galdetu nion neure bburuari.

change-generating, “aldaketa-sortzaile”. Ondoren, logika-mota bakoitza nagusi duen gizakia nolakoa den azaltzen digu Tokioko irakasleak.

Labur esanda, dena sailkatzeko eta mailakatzeko joera dute H motakoek, den-dena arau bakarrera ekartzeko joera. Egia bakarrean sinesten dute, eta printzipio absolututan. Eta horixe da horientzat jator jokatzea: printzipio horiei leial eustea, nonahi eta beti. Harremanak lehia dira horrelakoentzat: batak irabaztekotan, besteak galdu egin behar.

Hori irakurri orduko, alemanen irudia etorri zitzaidan gogora. Eta hori ere argitu zidan Maruyamak. Izan ere, kultura bakoitzean, logika jakin bat izaten omen da nagusi, eta beste logika-motak aldatzera edo zapaltzera jotzen omen du nagusi horrek. Esate baterako, H motako ezaugarriak omen dituzte, batik bat, korearrek eta suediarrek ere. Eta ikuspegi hori omen dute kontulari askok eta askok ere; ogibidez diru-kontuak egiten dituztenek, alegia.

Ez nuen ezer behar izan, ez, hitz horien harian Euskal Herrira begira egoteko. Baina bigarren pentsabide-mota ere zain neukan Maruyamaren artikuluan.

Oso bestelakoak omen dira I motako pentsabidea dutenak. H motakoek homogeneousotasuna bezala, I motakoek heterogeneousotasuna maite dute eta hura gorroto. Askatasuna, autosufizientzia eta subjektibotasuna dira hauen kutunak, eta beren printzipioak dituzte gidari. Hauentzat, zenbat eta lan-taldea handiago, hainbat eta lan eskasagoa egingo da. Ingurugiroaren kutsadura, adibidez, jende asko elkarrekin bizitzearen ondorio omen da. Eta nork bere baratzea landuko balu, primeran ibiliko omen lirateke gauzak. Maruyamak dioenez, Estatu Batuetan H eta I logika-motak omen dira nagusi.

“Eta gurean?”, galdetu nion neure buruari.

Eta, ikerlari honen laneko puntu honetara iritsita, artista batzuetatik besteetara egin zidan jauzi pentsamenduak, halabeharrez edo: pintoretatik bertsolarietara. Izan ere, Antonio Zavalak Oiartzunen, 1994ko abenduaren 30ean, egindako hitzaldi garrantzizkoa etorri zitzaidan gogora: *Pensamiento intuitivo y discursivo en la literatura popular vasca*. Hitzaldi hartan, herri-literatura izan zuen Antoniok mintzagai. Edo, zehatzago esanda, herri-literaturaren ezaugarri nagusi bat. Izenburuak berak zirriborratzen digu nondik-norakoa: pentsabide intuitiboan dagoela oinarrituta herri-literatura, pentsabide diskurtsiboan baino areago.

Horrela, on Manuel Lekuonak baino urrats bat gehiago eman du tolosarrak. Joxe Ramon Zubimendik idatzi duen bezala, "euskal estiloa ulertu ahal izateko giltza nagusietako bat aurkitu du" (*Jokaera-liburua*, 174. or.). Oiartzuarrarentzat, adimenak ez baina irudimenak agintzen du herri-poesian, poesia landuan ez bezala. Zavalarentzat, ez da hori bakarrik; pentsabide-kontua ere bada. Poesia landuan, pentsabide diskurtsiboa da nagusi; herri-poesian, berriz, pentsabide intuitiboa. Baina ezaugarri hori ez da bakarrik herri-literaturarena: ahozko euskal kultura osoarena ere bada. Hala, pentsabide intuitibokoak ditugu geure kontalariak ere; kontakizunak edo gertakariak kontatzen dituztenak, alegia. Batetik kontulariak eta bestetik kontalariak. Bai kontraste polita! Diru-kontalariak eta kontu-kontalariak.

Lekutara eraman ninduen Magorohk Maruyamaren *Logika, kulturak eta gizabanakoak* artikulua! Baina amaitu gabe neukan artean. Eta ni, urrutirago joateko prest. Hiru oinarritzko lan nituen abiapuntu, hirurak norabide berekoak: on Manuel Lekuonaren *La poesia popular vasca* eta *Literatura oral vasca*, eta Antonio Zavalaren *Pensamiento intuitivo*

tivo y discursivo en la literatura popular vasca. Eta estatubatuarrarena akuilu.

Berehala sortu zitzaizkidan bi galdera, bata bestearen atzetik. Ez ote zaie Lekuonari eta Zavalari gauza bera gertatu: alegia, ez ote zaie motz geratu H pentsabidea (dena arau bakarrera ekarri beharrekoa), ahozko euskal kultura biltzen eta erakusten ari direla? Ez ote da motz geratze hori, besteak beste, ahozko euskal kulturaren nagusi dugun pentsabidea ez delako H motakoa? Ez ziren zalantzazko bi galdera soil, susmo bakarraren bi alderdi baizik.

Susmo hori areagotu egin zidaten Maruyamaren ondorengo hitz hauek:

“Jakitekoak dira Japonian egindako arkeologi ikerketen irakaspenak. Orain hamaika mila urte sorturiko Jōmon kulturaren, G motako logikaren ezaugarri ugari dago. Eta orain 2.300 urte azaldutako Yayoi kulturak S mota izan zuen nagusi. Yamato kultura orain 1.500 urte iritsi zen Japoniara Koreatik; eta H mota zuen nagusi. Mota hau izan zen, eta da, Japoniako agintarien artean zabalduena. Hala ere, S motako logika erabiltzen dute oraindik nekazariak; eta G mota, berriz, XVII. mendean gizarte-klase gisa finkatutako merkatari-jendeak.”

Bai. Jakitekoak dira irakaspen horiek; jakitekoak direnez. Jakitekoak eta argigarriak. Eta gugandik gertuago ere beste horrenbeste gertatu omen da.

“Afrikan, koloniak eratu baino lehenago, G mota zen zabalduena. Ahozko tradizioak argi eta garbi erakusten du orduko logika: heterogeneotasunak elkarlana errazten du eta homogeneotasunak galarazi.”

Ez ote da gurean ere beste horrenbeste gertatu? Ez ote ditugu euskaldunok kolonizazio asko eta era askotakoak jasan? Ez ote gara gaur ere ahozko eus-

kal kultura kolonizatzen ari? Ez ote dira Lekuona eta Zavala kolonizazio horien salatzaile? Ez ote dugu geurean ere H pentsabidea erasoan, dena bereganatu eta uniformatu nahian?

“Zenbait gizartetan, H mota nagusi izateak kulturaren ikuspegi heterogeneoa galarazten du. Hortik hainbat ondorio ateratzen dira”, irakurri nuen gero Maruyamaren artikuluan. Hark sei ondorio aipatzen ditu. Hauek dira hiru lehenengoak:

- “Normalizazio-politika askoren oinarrian, honako uste hau dago: uniformetasunak bakea dakar eta desberdintasunak gatazka. Alderantziz jokatu beharko litzateke, ordea: heterogeneotasuna sustatuz eta gizabanakoen arteko elkarrekintza erraztuz.
- Nagusi ez diren logikak baztertzegatik alferrik galtzen dira giza baliabide asko.
- Gaurko hezkuntz sistema eta lanbide-prestakuntza batzuek H motako logika dute oinarri. Horietan, zapalduta edo baztertuta gelditzen dira bestelako logika duten ikasleak”.

Bere laburrean, zirrara betea egin zidan Maruyamaren lanak. Zerbait idazten hasteko premia ere sumatu nuen. Merezi zuen berehala hastea. Eta hasi ere egingo nintzen, telefonoak jo izan ez balu. Nor izango eta Joakin Berasategi, halabeharrez nonbait. “Hi, Pello! Antonio Zavalaren hitzaldiak ateratzera goazak, eta heuk egin behar duk hitzaurrea”, esan zidan SENDOAKo nagusiak. Pozik jaso nuen agindua, eta pozik agindu hitzaurrea. Hartara, Antonio Zavalaren hainbat lan batera irakurtzeko eta gozatzeko aukera paregabea izango nuen. Ikuspegi berriaz, gainera, Maruyamaren lanari esker. “Oraintxe bidaliko dizkiat originalak”, amaitu zuen Joakinek. Erdi-idatzia nuen hitzaurrea buruan. Halabeharri esker.

Gozatu ederra hartu dut Antonio Zavalaren hitzaldiak irakurriz. Herri-kulturarekiko maitasuna dario hitz bakoitzean. Izan ere, maitasun horrek gidatu du Antonioren lan izugarria. Maitasun horrek eragin dio bide zaharrak ezagutu eta ibiltzera, eta berriak aztertu eta urratzera. Maitasun horrek darama gizaki soila maitatzera, kultur xehea estimatzera eta bere balio handiak aintzat hartzera. Maitagarri zaizkio herri-kulturadunak eta herri-kultura maite dutenak; kezkabide, ordea, herri-kultura gaiztosten eta zapuzten dutenak; kezkabide eta haserre bide ere bai, aldian behinka. Ikuspegi honetatik ulertzen da Zavalaren jokaera eta lan erraldoia.

Goiztiarra da, aldi berean, Zavalaren maitasun hori; goiztiarra, zabala eta eskuzabala. Lehenengo hitzalditik bertatik ikusten da Antonioren nondik-norakoa. Lehenengo hitzaldietan dago gero etorriko denaren hazia eta hasikina. Zavalaren bidea ez da itsuarena. Ez dabil zalantzan; are gutxiago noraezean. Bakar samar, agian bai. Baina hori bide-urratzaile guztien patua da.

Gainera, gure bide-urratzailea ez da gai bakararrekin itsutzen den horietakoa. Bertsolaria, bertsoa eta bertsolaritza ditu gai, baina zabal hartuta. Ez da bertso-mundura mugatu. Landarearen sustraiak, ingurunea eta ingurugiroa ere jaso ditu: herri-kultura, ahozko euskara, ahoskotasuna... Horrexegatik, askotan zail egiten zaigu Antonioren lana sailkatzea. Literatura da, herri-literatura; baina baita antropologia, etnografia, etnolinguistika... ere. Bizia non, han ibiliko da lanean. Eta, euskal kulturaren mugak zabalduz, inguruko baratzeak ere jorratzen hasi zaigu, azken urte hauetan. Ez da harritzekoa. Hain da eskuzabala! Eta hain txikiaren zale eta bitxiaren defendatzaile. Hain hizkuntz eta kultur ekologista!

Pasarte bat baino gehiago aukera dezaket hori

guztia ilustratzeko. Baina nahikoa omen da adibide bakarra. *Bosquejo historia del bersolarismo* izeneko ataletik hartu dut eta dagoen-dagoenean ekarri hona:

“A Txirrita, como a otros muchos bersolaris, se le moteja de arlote. Es que son hombres diferentes, a los que necesitamos ponerles un epíteto peyorativo o ridículo para no quedar nosotros mal. Con lo que se repite el pleito de la vieja fábula de las hormigas y la cigarra, escrita –esto no puede ponerse en duda– por las hormigas con un mezquino y desagradecido espíritu de envidia y venganza hacia aquella cuyos cantos –también esto es innegable– se habían parado a escuchar más de una vez como el mejor solaz en su vida de esclavas.”

Esanahi beretsukoak omen dira gaztelaniazko *cigarra* eta euskarazko *txirrita*. Ez dakit horretaz konturatu zen Antonio, goiko pasarte hori idatzi zue-nean. Dena den, bai egoki daudela elkarren ondoan! Ondo dagoen bezala gaztelaniazko *hormiga* homogeneozale hori hasierako *hatxe* horrekin. Halabeharrez, noski.

Baina gatozen geurera, H pentsabidekoak utzita. Eta gurea hauxe da: eskuetan ditugun bi ale mardul hauek. Eta hauen atzean dagoen guztia: bildutako bertso-paperak eta grabatutako bertsoak eta hizketak; argitaratutako ia hirurehun liburu, handi eta txiki; ezkututik ateratako bertsolariak; plazaratutako idazleak... Hitz bitan esanda: *Auspoaren auspoa*.

Agian, laster hasiko da norbait, Magoroh Maruyamaren eskutik edo, euskal kulturen zein pentsabide den nagusi era zientifikoan ikertzen. Besteak beste, ezinbestekoak izango ditu gure aurreko gizon handien lanak: Azkue, Manuel Lekuona, Joxe Migel Barandiaran eta abarrenak. Eta ezinbes-

tekoa izango zaio Antonio Zavalaren lan bikaina eta eskergaitza ere aztertzea. Geuri ezinbestekoa zaigun bezala. Eta gure ondorengoei ezinbestekoa izango zaien bezalaxe. Ezinbestean eta halabeharrez, jakina.

Pello Esnal



**En busca de poesía popular
a través del País Vasco**

(Bertso berri billa Euskalerrian zear)

(Aránzazu, 15 de setiembre de 1956.)

Bertso berri billa

Euskalerrian zear

**(En busca de poesía popular
a través del País Vasco)**

***E**tzidaten neri aldez aurretik esan euskeraz ala erderaz nere itzaldi au paratu bear nuan.*

Astirik ez galdutzearren asi nintzan emen esan bearrekoak moldatzen, euskeraz egin bear izatekotan euskeratuko nitualakoan.

Bañan euskeraz bear zuala abisua etorri zitzaidanean, astirik gabe arkitu nintzan, ta nik paperean jarritako makiña bat arrazoi euskeraz adierazteko biurri xamarrak zirala; nik beintzat argi ta garbi euskeraz adierazi ezin nezazkenak..

Orrela, erderaz izango da nere mintzaldia. Ez gero uste egindako okerra damutzen etzaidanik. Zuek biotzberak zeraten ezkeru, barkatuko didazute noski. Ala ta guztiz ere, etzait barrenetik joango sentitzen dedan lotsa: oraindañoko iztunen artean ni belarri-motz bakarra azaltzea.

Pentsakera batek kontsolatzen nau, ordea: beti

izaten da euskera erderaren mende; nere gaurko ontan, berriz, erdera izango dala euskeraren morroi ta serbitzari.

* * *

Es nuestra intención que la magna edición de *bertso berriyas* que pretendemos vaya precedida de un estudio. El encargo inesperado de preparar esta charla adelantará en agraz ideas y conceptos que sólo entonces lograrán la madurez y desarrollo que en nosotros puedan alcanzar. Quiera Dios que la precipitación con que ha sido aparejada no le prive de la única virtud que para ella deseamos: la de bosquejar una idea del estado actual de nuestra recopilación y de las conclusiones a las que podemos ya llegar.

Para todos guarda sorpresas el mundo de los *bertso berriyas*; sorpresas que no se hacen esperar. También a mí me las proporcionó, a pesar de las ilusiones y ambiciosas esperanzas del primer momento.

Siendo preciso un orden en la recopilación, recurrimos al tan socorrido de materias y autores. Cuando un autor o un conjunto de temas similares adquiriría suficiencia, se procedía a darles una carpeta en una coyuntura no del todo desemejante al rito solemne del espaldarazo. Los nombres de los autores han sido siempre más conocidos. Por eso, y para mayor variedad y eficiencia, prefiero hacer enumeración de los principales géneros. Ello nos dará razón de la copiosidad de material y de la multiplicidad de temas, las cuales constituyen la primera sorpresa.

En primer lugar los religiosos, como cabía esperar de la profundidad de la fe de nuestro pueblo.

Los hay de verdades eternas: infierno, muerte, salvación del alma, juicio, purgatorio... O catequísticos: mandamientos, pecados capitales, confesión, sacramentos en general... Hay devotos comentarios de las oraciones: padre nuestro, avemaría, salve, rosario, vía crucis... Varias veces, y con extenso desarrollo, se repite el tema de la Pasión... Los versos marianos o cantan las excelencias de María o se relacionan con alguna de sus múltiples advocaciones vascas: Aránzazu, Arrate, Izaskun, Iciar, Begoña... La postulación de Navidad pone ante nuestras *jaiotzas* la blanca adoración de los villancicos. Las otras postulaciones, sobre todo la de Santa Agueda, nos trae desde siglos lejanos el arcano de nuestras coplas más viejas, junto con varias vidas de la santa. Y la colección de vidas de santos, con su suma de más de setenta y su constante tendencia a aumentar, adquiere pretensiones de Año Cristiano. Y en los *bertsos* de Misiones populares se percibe aún palpitante la conmoción religiosa del pueblo.

También está cantada toda la gama de nuestros deportes: palankaris, aizkolaris, segalaris, arri-jasotzalles, korrikalaris... Se comentan las competiciones o se lanzan *erronkas* y desafíos.

Dada su abundancia, no caben en un mismo cesto las regatas. Pocos son los años del presente siglo de los que no poseamos alguna hoja. Y no es raro que vencedores y vencidos las editen en rencorosas diatribas.

Inagotables son los de *neska-mutillen kontuak*. Roto el noviazgo, ataca el novio a la novia o la novia al novio. A veces hay contestación. Se pagaba para ello a un bersolari. Tal es su profusión que dudo puedan ser incluidos en un volumen.

Junto a éstos hay que poner los de marido y mujer (*senar-emazteenak*) y los de *neskazarras* y *mutilzarras*.

Muy importantes son los de las guerras: guerra de la Independencia, guerra de Napoleón III, guerra de Africa y, sobre todo, los de las guerras carlistas, que constituyen un bloque de documentos históricos de primer orden.

Y en tiempo de paz muchos *bertso-papelas* se quejan con amarga ironía de la suerte del recluta.

No podían quedar relegados los problemas sociales. Comienzan en nuestros caseríos entre amos y criados (*morroi-nagusienak*), y siguen con los más graves de patronos y obreros, reclamaciones de los *baserritarras*, quejas de los ganaderos y hasta de los vendedores de leche.

Y también los animales. Existen *bertsos* de las vacas sueltas de Aralar, del cerdo del frente de Madrid, del de Ozenziyo, del de Vizcaya, del toro de Pasajes y del de Orio, de las sardinas y extraño pez de Ondárroa, de la ballena de Orio y de la de Zarauz-Guetaria, del buey de Dima, del asno de Goldáraz, del jabalí de Ulzama y hasta del perro de Azcoitia a quien su amo quitaba pacientemente los piojos.

Cuentan sus desgracias los ciegos, vendedores ambulantes de *bertso-papelas*, con un método de ganarse la vida semejante, aunque individualista, al de nuestra lotería de ciegos.

Otro tema es el de los emigrantes a América, y nada se diga de nuestra afición al buen comer y buen beber.

Como se ve, el más completo muestrario de los aspectos de la vida de nuestro pueblo.

Hay en el bersolarismo dos modalidades: el de plaza y sidrería y el de los *bertso berriyas*.

La primera requiere menos explicación. Desde el balcón del ayuntamiento o desde el fondo oscuro de una taberna o sidrería, el bersolari sostiene, prendida en su cantinela, la atención del racimo com-

pacto de sus oyentes. Aquí se incluyen los alardes de habilidad, rima forzada y ejercicio de versos alternados, principalmente. En ese derroche de ingenio nada importa al bersolari que sus estrofas no alcancen más vida que la de los breves momentos que llenan los compases de su melodía. Nos importa a nosotros, y hemos de acudir, lápiz en mano, a la privilegiada memoria del pueblo, para salvar los más felices.

La otra modalidad es la del *bertso berriya*, a la cual hemos aludido casi exclusivamente en nuestra enunciación de géneros.

Aquí se trata de un asunto que interesa al autor difundir. Para esto no se contaba antiguamente más que con el recurso oral, la peregrinación de boca a boca y de memoria a memoria.

Pero en la primera mitad del siglo pasado comienza el bersolari a llevar su hoja manuscrita a las imprentas. Sospecho que entonces, al facilitarse la divulgación, se incrementan las producciones y se abre una floración nueva, que comienza con las ásperas hojas ortografiadas con uves y ces y declina en nuestros días, tras la irradiación multicolor de los *bertso-papelas* de ferias y mercados, encabezados casi ritualmente con el título de *Bertso Berriyak*. Es el campo de donde se nutre preferentemente nuestra recopilación. Porque, en último término, no pretendemos sino abrir una tercera etapa en la historia de los *bertso berriyas*: la de su elevación amplia y decidida a la categoría de libro.

Según propendan a una u otra de estas dos modalidades, los bersolaris quedan divididos en dos grupos. Cierto que nunca se dan tipos puros, pero los Pello Errota, Gaztelu, Joxe Bernardo, Txirrita ¹,

¹ Y menos aún se puede hablar de tipos puros, después de la publicación de las estrofas de éstos y otros bersolaris, entre las que abundan las de composiciones escritas o *bertso-papelas*.

quedarán siempre incluidos en el primero, en el de los bersolaris de plaza y sidrería. Los bertsos que de ellos se puedan recoger serán siempre una ínfima parte de los que cantaron con una profusión que, por su tanto de despreocupación, podría llamarse despilfarro.

El otro grupo es el de los hombres que, o por su escasa voz (*eztarri bajua*) o porque les faltaba gusto o aptitud para la agilidad del diálogo bersolarístico, se redujeron al *bertso berriya*.

Quiero decir alguna cosa de dos de ellos, como muestra de una sorpresa que en este grupo puede presentárenos: la de autores casi del todo desconocidos y que sin embargo dejaron una producción nutridísima.

Se llamaba el primero Franciso Iturzaeta. Tuvo dos sobrenombres: *Elizalde*, por el caserío en que nació, cercano a la ermita de la Virgen de Olaz, en Azpeitia, y *Kostita*, por el solitario caserío donde vivió desde los cinco años. Las hojas, densas todas en contenido, que de él hemos recogido hasta el presente, tratan de una vaca de pasto de Azpeitia (*larre beian gañian jarriak*), sobre la Misión en 1915 en Azpeitia, sobre unas solemnidades en Loyola en 1916, sobre la inauguración de un catecismo, también en Loyola. En 1922 publicó un folleto con más de setenta estrofas sobre las quejas de los labradores (*nekazariyen komeriyen gañian jarriak*). El Gobierno mandó recoger la edición, pero afortunadamente un ejemplar ha llegado hasta nuestras manos. En 1917 editaba una vida de San Ignacio en cincuenta y siete estrofas que merecieron de un bersolari actual este juicio: *Kristauak asma litzazken bertsorik ederrenak*. Me decía su hijo que en el campo, con los bueyes, no permitía que nadie se le acercara. En aquellas labores o rezaba o improvisaba bertsos. Hace una docena de años enfermó. No

le daba pena morir. Sólo quería morir en su caserío. Y, ya en estado de extrema gravedad, una hija suya –dudo de que él supiera escribir– se sentó a su cabecera y fue escribiendo al dictado las cuarenta estrofas del comentario a la Misa que había compuesto su padre. A los pocos días moría allí, en su caserío. Dejaba una producción de varios cientos de estrofas.

El otro bersolari es Manuel Antonio Imaz. Se le conocía por *Altzoko Imaz*. Su producción es más extensa. Se cuenta de él que marchaba al campo con papel y lápiz en el bolsillo. Cuando le llegaba la inspiración, detenía los bueyes y escribía. Sería demasiado largo enumerar sus *bertso-papelas*. Sólo diré que éstos se reducen a dos grupos: los religiosos –sobresaliendo entre ellos un folleto sobre la Pasión y otro sobre el Juicio Final– y los políticos. Éstos no podremos nunca adjudicárselos. Acendrado carlista, atacaba con ellos a los liberales (*beltzak*), pero prudentemente los publicaba anónimos. Acudí a su caserío y me encontré con un tesoro. La *etxekoandre* joven me sacó de una *kutxa zarra* varios papeles manuscritos de su bisabuelo. Había allí *bertsos* sobre el avemaría, contra el juramento, sobre el triste viaje de un indiano, sobre los achaques de la vejez, contra la desidia de los *morrois*, sobre los pecados capitales, sobre la muerte, sobre la vida de San Martín de Loinaz... En prosa había, además, una hoja con la historia de la batalla de Beotibar, y otra con la explicación del rosario. Es de interés sumo lo que al final de ésta se añadía: “*Manuel Imacetneco / emen puntuac chit asco / verso berriaquin pozac / gure Ama honratceco*”. Alguien había que le proporcionaba materia de versificación. Tengo la intención de ir algún día a comprobar si es letra de D. Patricio de Orcaiztegui, párroco de Tolosa, con quien me consta estaba en comunicación y de quien recibió el

consejo de no publicar *bertsos* de noviazgos (*neska-mutillenak*). Y había también una carta en la que se consignaba una auténtica compra de un original, descubriéndonos que también el mundillo de autores y editores se movía en torno a los *bertso berriyas*.

Formulé mi petición en un caserío de la comarca de Tolosa. Advertí que rehuían la contestación. Adelanté que devolvería cuanto me prestaran, y sí que la obtuve entonces. El *etxejojauna*, después de trabajar toda la semana detrás de los bueyes, se sentaba los domingos después de misa a copiar *bertsos*, con preferencia los que sabía su padre, un anciano que en su niñez había visto varias veces furtivamente hospedado en su casa al cura Santa Cruz. Así había llegado a llenar dos voluminosos cuadernos.

En Africa, hace unos diez años, cumplía el servicio un recluta vasco. Le dieron ocupación en la oficina. Al ver a su disposición una máquina de escribir, se entregó a la labor de copiar cuantos *bertsos* sabía; y luego cuantos sabían sus compañeros vascos. Y cuando alguno de ellos volvía con permiso, traía la consigna de aprender y reunir *bertsos* para ampliar la colección. Así endulzaban sus nostalgias aquellos *mutiles*.

Podría aún señalar la adquisición de varios manuscritos en Vizcaya, Guipúzcoa y Navarra; pero prefiero referirme a algo que resulta más curioso: a los robos a que ha inducido esa afición.

En el caserío de Manuel Antonio Imaz me dijeron que habían oído contar que en tiempo de su bisabuelo guardaban en casa una verdadera pila de *bertso-paperas*. Pero que un día el *morroi* del caserío los robó todos y huyó. Acudí al caserío del *morroi*, entre Irura y Tolosa, pero ni sabían ni tenían nada.

Otra vez, mientras en un caserío se sucedían los

grupos de vecinos para rezar el rosario ante el cadáver del dueño de la casa, hubo quien aprovechó aquellas horas doblemente oscuras para robar el tomo de *bertsos* de Pedro María Otaño. “¡Que lo hicieran precisamente aquella noche!” me decía su viuda. Aquella familia se hacía pariente de los Otaño.

Podríamos ofrecer otros ejemplos; pero más cuenta trae revisar nuestra actitud, la de los estudiosos, para con el bersolarismo.

No siempre se les ha tenido un aprecio unánime a los *bertso-papelas*.

Unos, como Echegaray, los menospreciaron por su “carácter irremediablemente prosaico” y porque con la recopilación de las hojas volantes “se formaría una colección enorme de simplezas y groserías, dichas de una manera eminentemente prosaica”. Los califica, además, de ofender alguna vez al sentido moral.

No deja de ser cierto, en más de una ocasión, lo de la moralidad. Los de esta índole quedarán sin salir de nuestras carpetas y no debemos cuidarnos más de ellos.²

A pesar de que aparenta conocimiento de la materia, no me acabo de disuadir de que la de Echegaray no es sino una impresión primeriza. Porque

² Tal era mi criterio entonces, fruto de un ambiente más puritano que el de ahora, en que las cosas han cambiado, no sé si para mejor o para peor, de modo que lo que entonces hacía que nos tapáramos los oídos, hoy no pasa de producirnos una sonrisa. De hecho, no ha sido obstáculo en mis publicaciones la tal inmoralidad, tan lamentada por Echegaray. Únicamente he dejado de sacar a la luz pública las estrofas que atentaban contra la honra de personas concretas, fácilmente señalables con el dedo a pesar de callar sus nombres, unas de ellas aún vivas y otras con hijos o familiares próximos.

como más tarde expondremos machaconamente, el bersolarismo es para todos nosotros un mundo nuevo en el que no valen los criterios preconcebidos y viejos. Y un talento como el de Echegaray hubiera podido deshacerse de éstos en contactos sucesivos a lo largo de una atención continuada. Porque ni el pueblo –aunque a veces lo logre accidentalmente– trató nunca de hacer poesía, y es una injusticia juzgarle por lo que no fue su intención, ni sus temas –recordemos los géneros enunciados– son esencialmente veneros de poesía, y es esto consecuencia de la razón anterior.

Y si no busca poesía, llegamos a una conclusión de sorpresa a pesar de la claridad de sus premisas. Y es que, en el bersolarismo, verso no tiene por qué ser equivalente a poesía. Así debe ser fuera de su coto. Y sea éste el primer criterio intruso del que conviene nos desprendamos. Pero, a decir verdad, no deja de ser excéntrica nuestra posición de impugnar por carente de poesía a quien nunca la pretendió.³

Otra segunda impugnación va siendo corregida totalmente. Todos conocemos el fervor purista que nos invadió durante el primer tercio de este siglo. Hoy lo vamos reconociendo como exagerado. Pero en aquel entonces era una inculpación al *bertso berriya*

³ Al terminar de pronunciar esta conferencia, se me acercó don Manuel Lecuona y, con la suavidad en él característica, me dijo: "*Poesi-kontu ortan urrutiegi joan zera, poesi-mota asko daudeta*". (En eso de la poesía, has ido demasiado lejos, porque hay muchos géneros de poesía.) Creo que le asistía toda la razón. Pero si en mis palabras hubo acaloramiento, se debía al acaloramiento con que Echegaray arremetió contra los *bertso-paperas*, y yo no quise sino defenderlos. Quede como justo medio el que al bersolarismo no hay que juzgarlo con criterios extraños, sino por lo que los bersolaris, y el pueblo en general, han buscado y pretendido por medio de él.

su impureza de léxico. Ya la apuntó el mismo Echegaray; pero con más recalco aún Domingo Aguirre en *Garoa*, al final de la apuesta de hachas.

Como si el bersolari tuviese tiempo y criterio para discernir y seleccionar sus palabras por razón de su procedencia. Además, por la misma tilde podría de-secharse todo el euskera hablado.

Mas a los que no acaban de salir de nuestra eterna postura de zahorís de erderismos de palabra, podría dárseles cumplida contrarréplica.

El bersolari deja salir su chorro desde la honda entraña de su alma enteramente vasca. Imposible que no broten juntamente valías que con muchas creces reparen lo que por ese otro lado adolece su lenguaje, si por adolecer se ha de entender lo que no es en realidad sino resultado lógico de la convivencia de idiomas en su matiz menos grave.

En primer lugar, los giros y modismos, increíblemente abundantes. Giro y modismo no es sino la expresión de una idea, la manifestación al exterior de esa mirada del alma, que es distinta de una lengua a otra.

Nosotros pensamos en castellano y hacemos, inconscientes, un calco de los giros castellanos; los bersolaris conservan la integridad de su pensar vasco y expresan sus ideas con modulaciones genuinas. Algo así como si nosotros cerráramos la puerta a los erderismos de palabra y se nos colaran por la ventana los erderismos de idea; y ellos, al revés. Y erderismo por erderismo, herida por herida, más peligro trae el erderismo de idea que el de palabra, porque éste hiere al cuerpo, pero aquél al alma.

Esta discrepancia no es sino manifestación al exterior de otra más sombría y recóndita, que ya hemos comenzado a apuntar: la del pensamiento, la del espíritu.

Nosotros, los estudiosos, para eso, para hacernos estudiosos, sorbimos en otras fuentes durante años enteros. Es una de las más fatales quiebras del vascuence, que toda cultura que se ingiera ha de ser forzosamente extraña y desviadora. Y, sin advertirlo, acabamos con otro contenido que no el puramente vasco en nuestra alma. Es entonces cuando iniciamos un período de reincorporación, a costa de una lucha y vencimiento casi ascéticos.

Todo bersolari, por el contrario, es un triunfo de su alma vasca sobre la maraña de instigaciones adversas, e incluso un predilecto del euskera aun entre el pueblo humilde de donde emergió. Quizás fuimos compañeros de juegos en la infancia, pero llegó una hora en que nos separaron caminos que a nosotros nos vaciaron el alma y a ellos se la colmaron.

No quisiera ofender a nadie con asertos que a mí, el primero, me contristan. Hace ya dos años que no hago sino leer y copiar *bertso berriyas*. Cuando hojeo ahora algunos de nuestros libros euskéricos, siento a veces la frialdad y languidez más delatoras de la falta de vida.

No dudo de que aquí radica mucho de la repulsa del pueblo a nuestros libros y gran parte de su devoción a los *bertsos*. Encuentran ellos en este euskera palpitación, calor, nervio; en una palabra, todo ese substrato espiritual que es el alma y la vida de un idioma.

Yo no sé si todos aceptarán mis puntos de vista. Tampoco trato de imponérselos. Sólo les agradecería que evitáramos discusiones. Yo las aplazo para el día en que, Dios mediante, surja la edición que preparamos. Que cuando ésta llegue lean y releen, y formen su opinión definitiva. Pero por mi parte estoy convencido de que entonces muchos más que ahora convendrán conmigo en que numerosas son las lec-

ciones que debemos aprender de los *bertso berriyas* y en que éstos componen el más espléndido conjunto de euskera integral.

Otra sorpresa puede ser la de que no estamos preparados para enjuiciar el bersolarismo.

Los más antiguos *bertso berriyas* recogidos son del siglo XVIII, data recientísima aun en las literaturas más modernas. Sin embargo, constituyen algo tan singular, que nadie puede menos de juzgarlos como una reminiscencia antiquísima y retrasar la data de su existencia hasta el medioevo cuando menos. Se diría que el mundo de los trovadores hubiera encontrado en nuestras montañas la flor de la eterna juventud.

No nos puede extrañar este hecho. El mismo euskera no es sino una supervivencia de edades remotísimas que no podía menos de haber acarreado consigo hasta nosotros otras supervivencias que asimiló en su larga peregrinación.

Y, en singular paralelo, lo que es nuestro idioma para con los otros idiomas, eso mismo es el bersolarismo en relación con las otras literaturas. Es el euskera una lengua milenaria entre las lenguas más jóvenes del mundo, y el bersolarismo una literatura de cuño antiquísimo entre las literaturas más avanzadas del mundo moderno. Y ambos, euskera y bersolarismo, con el más curioso fenómeno de amnesia. Peregrinaron infantilmente despreocupados a lo largo de los siglos y hoy nada recuerdan de su camino hasta nosotros, algo así como el sonámbulo que despertara en lugar desconocido y sin recordar dónde se echó a dormir.

De aquí se deriva que no estemos preparados para la apreciación estética. Está preparado el pueblo, que nunca salió ni se asomó a otros mundos. Saben ellos medir sin titubeos la calidad de los *ber-*

tsos, y tengo comprobado que casi siempre se hallan extrañamente acordes en sus juicios. Es que, repito, nunca salieron de aquel ámbito cuasi medieval.

Lo abandonamos nosotros y pertenecemos ya al mundo moderno. Precisa una reintegración que, por desgracia, ya no es posible en su plenitud sino a espíritus amplios y especialmente dotados.

Con nuestros ingenuos y románticos estudios de hace un siglo sobre el vascuence llegamos a ser la irrisión de los filólogos. Aprendimos cautela y ya nuestras modernas investigaciones lingüísticas se cimentan en la crítica más exigente.

Lo mismo reclamaría yo para el bersolarismo. Cierto que no haremos el ridículo, porque no atraerá a tantos estudiosos, a pesar de ser un fenómeno no menos interesante. Pero su apreciación estética requiere una prudencia y preparación previas muy semejantes a las del medievalista, por ejemplo. Sencillamente, hemos de despojarnos de las normas y criterios del mundo moderno y de las literaturas extrañas.

Sólo así, con mentes nuevas, tras esa dolorosa operación de arranque, podremos hacer justicia a los *bertso berriyas*. De lo contrario obtendremos una percepción deformada de los hechos de la realidad. El bersolarismo es un mundo viejo que precisa criterios nuevos.

Pero la falta de uno interno la podemos suplir con otro criterio externo e infalible: el mismo pueblo vasco.

Según nuestros cánones no habrá quizás calidad literaria. Pero si a nuestro pueblo lo vemos permanecer a la escucha hechizado, y reír feliz con un goce infantil y profundo, o llorar no sólo en la paz invernal de su caserío sino también colectivamente en el vagón de un tren, o llevar a hombros al bersolari

de calle en calle, como en un pueblecito de Vizcaya, entonces tendremos que pensar que, sea con lo que fuere, obtiene el bersolarismo una influencia que para sí la quisieran los mejores literatos; que allí regirán otros cánones estéticos, pero que se consigue lo que nosotros quisiéramos con los nuestros. Antes estas versiones a la realidad del mito de Orfeo, mil y una vez repetidas, nadie puede en justicia retener su juicio peyorativo.

Personalmente estoy persuadido de su excelencia literaria. Creo, por ejemplo, que algunas de nuestras vidas de santos no desmerecen de las de Berceo. Incluso encuentro entre ambas profundas semejanzas de fondo y técnica que serían demasiado largas de explicar. Pero repito que no es en la apreciación que nosotros podamos darles donde debemos apoyarnos, sino en el efecto logrado en el público a quien se dirigen.

Y para conceder ya con toda hondura y amplitud el título de literatura al bersolarismo, no nos resta sino exponer que goza para ello de copia suficiente de producciones.

Nunca me he detenido a enumerarlas, pero calculo que los materiales recogidos sumarán unas cincuenta mil estrofas; es decir, varios centenares de miles de versos. Y debemos pensar que lo archivado es una porción reducida de lo actualmente existente —espero próximamente importantes adquisiciones—; que casi la totalidad de los *bertsos* de plaza y sidrería no son sino flor de un instante, y que, al contrario de otras literaturas, no se guardan aquí existencias anteriores al siglo pasado sino por rara excepción.

Mas si atendemos a la fuente de donde mana todo este reguero, encontramos que el creador de toda esta auténtica literatura es el estrato social que comúnmente no pasa hoy de creador de folklore; y,

en consecuencia, y en contra del veredicto de tantos prohombres, que el nuestro es uno de los pueblos más literatos de Europa y aun del mundo.⁴

Otras lenguas no hacen literatas sino a las clases cultas; nuestro viejo euskera convierte en literatos a los hombres sin cultura. Nunca tendremos capacidad de valorar el tesoro de humanidad y espíritu que entraña un idioma que hace de los analfabetos creadores de literatura.⁵

Y así, aunque se trate de una lengua sin depósito de conocimientos, se hace de justicia otorgarle el título de lengua culta, por esa cultura superior y anímica que no es un don de las escuelas, sino del cielo.

Aunque sólo este mundo de los *bertsos* peligrara en el País Vasco, salvarlo valdría el precio de todos nuestros afanes. Es demasiado bello y, sobre todo, supramaterial, para dejarlo perder con nuestro desamparo.

⁴ Esta última aseveración la pronuncié así en la conferencia, corrigiendo sobre la marcha, por parecerme exagerado el, texto anteriormente escrito, que decía: "el nuestro es quizá el pueblo más literato de Europa y aun del mundo". Pero luego entregué mis cuartillas sin corregirlas, y se publicaron según estaban redactadas. Una exageración de tomo y lomo, desde luego; pero motivada por el disgusto que en mí provocaba el oír y leer a tantos prohombres tachar a nuestro pueblo de incapaz para la literatura, al mismo tiempo que recogía a manos llenas materiales literarios de los que era autor ese mismo denostado pueblo.

⁵ Esta afirmación era verdadera en aquellos años, teniendo en cuenta a los bersolaris analfabetos, como Txirrita por ejemplo, que nos han legado una gran producción en verso. Pero su verdad ha ganado últimamente en extensión, si atendemos a tantos hombres del pueblo, no precisamente analfabetos, pero sí alejados de la cultura y formación que comúnmente se creen necesarias para hacer literatura, que han escrito y siguen escribiendo libros en una prosa viva, rica, castiza y en muchos aspectos modélica.

Mas euskera y bersolarismo corren ya el mismo trance mortal. Se ha expresado repetidas veces que no hay supervivencia de un idioma sin literatura. Es lo que señala el grado de vitalidad de las lenguas. Y nosotros debemos confesar que siempre nos ha superado el pueblo en brío de idioma y literatura.

Yo diría que la vida del euskera ha venido siendo la historia de la deserción de los cultos y la adhesión filial de las clases iletradas. Evitemos que su muerte vaya a ser la deserción de las masas iletradas y de la adhesión, tardía ya, de los cultos.

Y, para esto, imposible prescindir del bersolarismo en sus dos aspectos. Hoy por hoy constituyen la única actividad literaria en euskera capaz de interesar poderosamente a todos los vascos sin excepción; y, asimismo, la única actividad literaria en euskera capaz de interesar a los vascos que no hacen profesión de vascófilos; es decir, a su inmensa mayoría.

Por nuestra parte, seguiremos entregando a la empresa todo nuestro entusiasmo y esfuerzo. Mas sería una injusticia arrogarnos mayores méritos de los que nos corresponden. El éxito de la recopilación se debe a la colaboración entusiasta y desinteresada de todo el pueblo vasco, desde sus más altas personalidades hasta el baserritarra más anónimo. Unos rebuscan *kanta-papelas*, otros transcriben los *bertsos* que ellos mismos o algunos amigos saben de memoria; otros aportan verdaderas colecciones, otros un par de manoseadas hojas, pero todos ponen en su contribución, grande o pequeña, su mejor voluntad. Creo que esa solidaridad viene a ser una prueba de que el bersolarismo es algo que llevamos todos en la sangre.

Aprovecho esta ocasión pública para expresarles mi agradecimiento, más que en el mío, en nombre


del euskera. Porque, en último término, tampoco hago yo más que rendirle un acto de servicio.

De algunas obras euskéricas se ha dicho, como elogio máximo, que son un perfecto retrato de nuestro pueblo. Aquí, en los *bertsos*, no se trata ya de percepciones mediatas.⁶

Nos toca a nosotros, más que conjeturar, trabajar por salvar el euskera. Pero si muriese, y con él nuestro pueblo vasco, quedará en esta recopilación, milagrosamente conservado, el depósito de sus deseos, penas, odios, alegrías, tristezas, defectos, virtudes, amores y rezos; y, juntamente con ellos, pueblo e idioma habrán conseguido su más exacta y tenaz perduración.

(Javier, 12-IX-1956)

⁶ Quizás no esté suficientemente clara esta frase. Quería expresarse que, así como en otros casos es un testigo de la vida de nuestro pueblo quien describe a ésta, en los *bertso berriyas* es el mismo pueblo quien nos habla y, pudiera decirse, se confiesa.



**Gure erriaren fedea
bertsoetan ageri danez**

(Relijio-bertsoak)

(Donostian, 1957-ko abendua.)

Gure erriaren fedea bertsoetan ageri danez

(Religio-bertsoak)

Ez dezute gaur gauza sakonik izango. Argitasunik ta astirik falta dan tokian, erruz izango da ariñik.

Orixe gertatu zait neri. Ta, egia esan, itzaldi kaskarra ta lotsa aundia ekarri ditut.

Adierazi nai nizueke gaur emen fedea ta bertsoak bata besteakin duten artu-eman.

Alaxe izango da, bañan ez uste izan euskal fedea maiz aitaturko dedanik; religio-bertsoak jarriko ditut zuen begien bistan, ta gero nork bere gogoarekin burutazioa egitea dauka: nolakoa ote gure erriaren fedea, baldin ain oparoa bada religio-bertsoen baratza.

Religio-bertsoak

Bearbada, askok ez dute gustokoa izango religio itz ori nik gaur maiz erabili izana. Badakit itz berri

bat iztegietan dagoana. Bañan oraindik ez du erriak artu. Ta erriaren literaturaz itz egin bear badet, ez da pekatu izango erriak bere betiko izkeran ta literaturan darabilen itza guk erabiltzea.

Orra, adibidez, nola aitatzen duan Pello Errotak bere bertso batean. Ta, kontu kontari jardungo banaiz gaurko ontan, izan bedi au nere lenengo kontua.

Danok aditzera izango dezute, noski, Pello Errota ta Udarregik alkarrekin izan zuten *sesiyo* gordiña *Azpeitiko premiya*kin.

Udarregi azkenetan zegoala, ots egin zioten Pellori; bañan eldu zanerako illa zan Udarregi. Sartu zan gorputza zegoan tokira, erantzi zuan txapela ta bertso au kantatu omen zuan:

Ojala ikusi banu
onen eriyua,
alkarri eskatzeko
barkaziyua,
animak irabazi
dezan premiyua,
eindako gaitz guztien
erremedyua;
utzi jenyua
ta inkurriyua,
gure salbaziyua
da oraziyua,
erreza dezaiogun
errosayua,
au da katolikuen
relijiyua.

Itzaldi ontan, iru bertsolari aitatu nai nituzke lendabizi, gero religio-bertsoetaz mintzatu gaitean.

Juan Bautista Gesalaga "Zaldubi" (1884-1957)

Bertso biltzeari ekin nion orduko asi zitzaizkidan etortzen religio-bertsoak; bañan banaka. Orregatik, auen lenengo mordoa eskuetan jaso nuanean, ez nintzan begira ta begira aspertzen. Danak ziran bertsolari bakar batenak: Juan Bautista Gesalaga'renak. Ta ematerakoan estrañakoa izan baitzan, izan dedilla gaur emen estraña aitatutakoa ere.

Berak jarritako bertso-paper geien-geienak guztiz dotore zeuzkan bi kartolinen erdian josita.

Religio-bertsoak auek ziran: santuen bizitzetan, San Juan Bautistarena -bere izenarena-, San Pelaiorena -erriko patroiarena-, San Rokerena, San Pedrorena ta baita ere Sansonena. Gero, Zarautz'ko lau misio zeuden: 1908, 1925, 1935, 1940. Bazeuden ere Arantzazuko Ama Birjiñarenak. Bañan xamurrenak ta geroztik iñoiz arkitu ez ditugun bezelakoak bere alabai jarritakoak. Bi alaba dauzka Zarautz'ko Santa Klarako konbentu itxian, ta "bi aizpa Gesalagatarren abitu artutzian" jarriak edo "akordatu ziralako aitaren jaio egunaz kontestazioa konbentura".

Auetaz gañera, bazeuden beste paper batzuk. Aietako bati zeritzaion "Bertso berriak sentimentugarriak", bere ordurañoko bizimoduari jarriak. Andik adierazi genezazke bere bizitzaren zenbait berri.

"Zarautz'en jaio baserri batean ta ekarri omen zuan nekazaritzan afiziyua"; bañan ezkondu ta bigarren urterako bere lenengo emaztea galdu zuanean, pentsatu zuan lengoa utzi ta "bizimodu berriya aurrera astia".

"Amabi umen aita izan, bañan oietatikan iru il ziraden laister". "Egin zuten pozaz zillarrezko boda bederatzi aurrekin"; bañan "ondorenian laister iruk

utzi zuten biziya". Orduan, "pentsaturik mundu au txit laburra dala", "bi alaba zarrenak konbentu itxi bateko eduki ametsa".

Irurogei ta amabi urteko gizona ezagutu det nik bera. Gorputza umiltzen asitakoa, bañan argia oraindik ere burua. Argatik, bisitaz joan izan natzaionean, kontu kontari ta bertso kantari jardun izan gera, guztizko atsegiñean, bere mastiaren itzal beltzaren azpian.

Berari, adibidez, entzun nizkion lenengo aldiz Amadeo de Saboya etorri zaneko bertsoak. Orra oietako bat:

Priñek nai izatia
ez degu guk basta
errege nonbratzeko
Duke de Aosta,
zergatik españolen
gustokua ezta,
danak artuko degu
eskuan arbasta,
emendik bialtzeko
italiano kasta.

Gero eskuratu degu bertso-papera bera; ta, noski, Frantzian inprentatua.

Orra zer kontatu zidan Izuela'ko artzaiaz. Aia'ko Altzola'koa zan. Negu batean ardi guztiak galdu omen zitzaizkion. Asi zan erriz erri bertso kantari, ta osatu omen zuan atzera ere bere artaldea. Bein batean, beste batekin jardun omen zan, zeñek sariren bat altxa. Berrogei ta amarna bertso kantatu omen zituzten; bañan ala ere ez jakin epailleak zeñi saria eman. Orduan zera galdetu omen zieten: ea bietatik iñor bazan bestearen bertsoak kantatuko zituanik. Besteak ezetz ta Izuelak baietz. Ta, esan da egin,

bienak, bestearrenak ta berarenak, kantatu omen zitu-
tuan.

Ikusten dezutenez, Gesalaga onek dakizkian ga-
rai zarretako zenbait berri, alper-alperrik aleginduko
nintzake beste iñorengandik ikasten. Orregatik, naiz
ta bere etxera bi bider joana izan, irugarrenean ere
joango natzaio.¹

Juan Maria Zubizarreta (1855-1905)

Beste mesede aundi bat zor diot Juan Bautista
Gesalaga oni. Beragandik artu nuan beste religio-
-bertsolari baten lenengo berria. Onela esaten zidan
eskutitz batean:

¹ Alaxe nuan asmoa, itzaldi au paratu nuanean,
Urrillan. Bañan azaroaren atzeneko egunetan ara zer zi-
daten Getari'tik jasotako eskutitz batean: "Badakigu aur-
tengo udaran ere Juan Bautistarekin egona dana. Berri
triste bat emango diot. Ez du mundu ontan geiago iku-
siko. Orain illebeta bat Jaunak eraman zuan beste mun-
dura". Izan degu, beraz, emen aitatzeko arrazoi berria,
naiko negargarria bera. Itz oiek irakurri nituanean, tristu-
rak artu ninduan, ez ildakoarengatik –egin baizuan arek
bere zintzotasunez emendik zerurañoko bide eroso-, bai-
zik-eta guregatik. Auxe da beintzat nere iritzia: zar auen
aotik badegu zer ikasia, ta aien aldean guztiz gera gu eus-
kaldun motxak. Txirritak Udarregiren eriotzakoan esan
zuana:

Gu ez gerade ezer,
ura zan gizona.

Juan Bautista Gesalaga onen bizitza eta bertsoak,
Auspoa liburutegiaren 62 zenbakian argitaratu ziran,
Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria izeneko liburuan, 1967 ur-
tean.

“...orain bialtzen dizkiot bi edo iru paper... eta San Inazioren kantak eskribituta. Onezkero irurogei urte badira ikasi nituela”.

Ara nola zion bertso oietako batek:

San Frantzisko Jabier
ori zan naparra,
Inaziok izan zuan
txit lagun azkarra;
munduan bazeguan
jaun oien biarra,
infernuko etsaiari
egiteko gerra,
oiek bentzutu zuten
Luteron okerra.

Azkenean onela esaten zidan:

“Geio're badira, bañan ez naiz akordatzen. Ogei ta iru bertso ziran guztira, ta egillea zan Juan Maria Zubizarreta”.

Bereala asi zitzaizkigun ugaltzen Zubizarreta onen bertsoak. Orra emen esan orain artean eskuratu ditugunak: San Antoniorenak, San Martin de Loinaz'enak, Santa Jenobebarenak, San Antonioren beste sail bat, San Pablorenak, Erromatarrak Jerusalem artu ta kiskaldu zutenekoak, “Zar da gazi-tien eskandaloak”, Munduaren asierakoak, Jesusen Biotzarenak ta –azken jasotakoak– San Pedorenak.

Igazko udaran, berriz, bertso-paper bat topatu genduan, Zubizarreta'k bere buruari jarria. Artan adierazten dituan berriakin, tankera eman genezaioke bere bizitzari.

An agertzen du nola “anaia zarragua etxian zan jarri” ta bera “baserritik kalera zala etorri”. “Ogei ta lau urtetan zala ezkondua”, ta “familia azten gero egondua”. Gañera, “zortzi ume ditula, familia fiña”.

“Aberatsak jateko kapoien iztarrak” omen dituzte, bañan berak “ezpañak urratzen ditu sardin zarren ezurak txupatzen”.

Jantzian, berriz, “arropa berririk ez dute soñetan”, ta “aiziak korritzen du zarpa zuloetan”. “Ogei urte egiñak traje bi berriak, ta orain estu ez dira orduko neurriak”.

“Bere ofiziyua alpargata josten”, bañan “alpargata jositzen ez beti lanikan”; ta argatik “bertsuak saldutzera joan etxetikan”.

Autobiografia au jaso nuan ezkeroztik, irrikitzen nengoan, noski, bertsolari au zein, nungoa ta nolakoan zan jakiteko. Zera pentsatu nuan: alpargatagillea izatekoz, azkoitiarra izango zala seguru asko, ta ara joan giñan.

Asi giñan kale nagusian azaltzen zan guziari *alto* egiten. Bañan iñortxok etzekian ezer ere. Kanean barrera egokitu zan, ordea, bizkarra kakotzen asitako agure zar bat, ta arek atera zuan aztarrena: *Etxeberritxo* izengoitikoak zirala aren ondorengoak, bizi zuala oraindik ere semea, ta ain zuzen ere fabrikari erretiroa artu berria zala. Ta aienganako bidea erakutsi zigun.

Etxe baten atarian emakume batzuk “alpargata josten aulki eta ezten”. Aietako bat zan Zubizarreta'ren erraña. Etorri erazi zuan senarra, ta asi giñan bertatik galdezka.

Bere aita Etxeberritxo baserrian jaioa omen zan. Etxekian ez irakurtzen ta ez eskribitzen. *San Martin* izengoitiz esaten zioten linternero batek idazten omen zizkion bertsoak. Gero papera Don Migueli erakusten zion, Santa Klarako kapellauari, ta onek ontzat emandakoan inprentara eramaten zuan.

Imprimi potest onen aztarrena somatzen zaio, au jakin da gero noski, bere buruari jarritako bertso oietako batean. Ala dio:

...Gauza ona zabaldua
diruagatikan,
sekula ez det izango
orren damurikan;
ta eskandalorikan
iñun emanikan
ez det oraindikan
nere partetikan;
kontzientzia libre
daukat ortikan.

Semeak sarritan laguntzen omen zion bertso-pa-perak saltzen, aita il zan arteraño, berak amalau urte zitularik.

Zubizarreta au, gaztea zalarik, jardun omen zan bein batean bertsoan Udarregirekin. Onek zera esan omen zion: Goierrin etzuala kontrariorik, ta kosta aldera etortzeko, Gipuzkoako onena ere jarriko zala ta.

Bera omen da Muatz'ko eriotzaren bertsoen egi-ilea. Eriotz au sona aundikoa izan bazan probintzia guztian, bertso auek ere beraren diñakoak izan ziran. Beste zera batez bertsolari batek zion bezela, bertso auetaz ere esan genezake irakurri ez dituan euskaldunikan:

munduan izan diteke baña
ez det pentsatzen danikan.

Laugarren bertsoak ederki agertzen digu zer izan zan istillu dana:

Aitak eskatzen zidan
legez eta bidez,
egiten niona da
agindu ta eman ez;

buru bada betia
pentsamentu txarrez,
tirua eman nion
diruaren ordeztu.

Semea arrapatu ta urkatu egin zuten Azpeitiko Juzgaduaren aurre-aurrean. Probintzi guzian ez omen zan gelditu sasoiko kristaurik ikustera etorri gabe. Inguruko zelai ta soro guziak jendez bete-beterik omen zeuden.

Urrengo astearterako, edo andik bi asteartera -asteartero izaten baita Azpeitia'n azoka-, jarri omen zizkion Zubizarreta'k eriotz oni bertsoak, ta sei milla paper inprentatu. Au entzundakoan, segidan galdetu nien sei millako ori geroko geiegizko amazoren bat ez ote zan izango; bañan aiek ezetz, sei milla izan zirala ta gañera amar xentimotan zala papera. Egun artan bertan danak saldu omen zituan. Izango al da orain marka ori austeko gauza dan gizonik?

Bañan berari ere eldu zitzaion eriotzako ordua. Berrogei ta amar urte osatu gabe il omen zan, zartzaren berri eskax ikusita. Udarako arratsalde batean ibaiaren ondarrean jardun omen zan lanean, ta eguzkiak burua pasatu egin omen zion. Andrea Zarautz'en zan; ta, etorri zanean, oiean arkitu zuan senarra.

Esan omen zion:

- Ai, Etxeberri! Zapatu illuntzian oyian?

Urrengo asteazken goizean illa zan.²

² Juan Maria Zubizarreta onen bizitza eta bertsoak, *Auspoa* liburutegiaren 82 zenbakian argitaratu ziran, *Juan Maria Zubizarreta bertsolaria* izeneko liburuan, 1969 urtean.

Juan Migel Bera (1857-1917)

Ez bildur izan bertsolari onekin geiegi luzatuko naizenik. Ez baitakit batere aren berririk. Ain zuzen, argatik dizuet aren izena emen agertzen: iñork beraren berri jakin ta emango ote didan.³

Orain bi urte, Orio'n, bertso-paper bat eman zidaten, animaren salbazioaren gañean jarria. Ogei ta lau bertso ziran, ta Juan Migel Bera oien egillea. Paper gaixo orrek bakar-bakarrik bizi bear izan zuan urte t'erdian, karpeta batean preso sartuta ta atzenduta. Bañan orra nun azaldu zaizkion kolpean bost anai Azpeitia'n. Paper danetan letra mardulekin adierazten zan Juan Migel Bera onen izena.

Bata zera zan:

pekatariyak ote geraden
bide zuzenian sartzen.

Bestea:

Pekatuen gañian
asten naiz mintzatzen,
zerurako bidean
ote geran sartzen.

Irugarrena:

Zazpi sakramentuak
nua kantatzera,

³ Juan Migel Bera onen aztarrenak atera al izan genituan. Beraren bizitza eta bertsoak *Auspoa* liburutegiaren 97 zenbakian argitaratu ziran, *Bidasoa aldeko bost bertsolari* izeneko liburuan, 1970 urtean.

ez dakiyenik bada
betor aditzera.

Laugarrena:

Birjiña Ama, zure alabantzak
astera nua kantatzen.

Ta bostgarrena, republika garaian-edo jarria:

Esplikatzeko desioakin
jesuitaren kontuak.

Ta:

Jesuitaren defenditzeko
ez naiz joango igesi.

Ain gogotik gure alde bere burua jartzen zuanak, ondo merezi du, alajaña, gerok ere zerbait egitea berarengatik. Ta, len esan dedana, naiago nuke iñork emango balit aren berririk. Auxe besterik ezin nezake esan: deitura duan errikoa, Berakoa, edo inguruetako semea izan bear duala, izkerak aditzera ematen duanez.

Ta era berean aitatu genezazke beste bertsolari asko religio-bertsoetan poliki saiatuak diranak. Ala dira Xempelar -osaba ta illoba-, Udarregi, Lexoti zarra, Pello Errota, Txirrita. Zizurkil'ko Otañotarrak, Alkain, Errenteri'ko Zapirain anaiak ta Zabaleta anaiak, Azkoiti'ko Estrada, Juan Jose Sarasola Lexo, Erauskin Errotaria, Alzoko Imaz, Antzuolako Agustin de Arana, Landa, Iturzaeta, Domingo Goenaga ta abar.

Kristau fedearen bertsoak

Bañan garaia da ta asi gaitean religio-bertsoetan dauden motak aitatzen ta adierazten. Lenengo motari *Kristau fedearen bertsoak* emango diogu izenburu, ontan sarturik fedeari dagokion egi edo egitekoren bat adierazten duten bertso guztiak. Ortaz gañera, alako izenburu lasai batek zabala du atea, besteetan egoki sartzen ez diran bertsoak emen sartzeko.

Badaude “Zeruko gloriarenak” ta “Gure animen gañian jarriak”. Eriotzarenak: “Eriotzako lezio on bat orain asi naiz prestatzen”; ta beste paper batek: “eriyotzan gañian nai nuke itz egin”.

Amar aginduenak: “Ateratu nai neuke kantu bat berria”; ta beste batek: “Hona bertso berriak nik orain paratu, amar mandamentuak nola gobernatu...”.

Beste batek onela dio: “Munduaren asiera ta Aita Eternuaren ejenpluak”. Badaude dotriñaren etsaien kontra jarriak ere, edo “Munduaren asierari”, edo “Jesus dan sinismenari”...

Xelebrea da beste bertso auen asiera: “Bertsifikuak kantarietan, doktorien obserbantzia...”. Gizonaren azken errematearenak ere bai: “Zer gertatuko zaigun azkenian guri...”. Baita ere “Motriko’ko ogei urteko landare eder batek jarriak”.

Peregrinazioenak ere bai: Lezokoarenak, Orio’ko Kukuarriko gurutzearenak, Erniokoak –“Peregrinaziyo bat izan da Erniyoko gurutzian...”–, ta baita Erromakoak ere.

“Rosario santuari jarriak” ere bai: “Kanta dezagun esplikatuaz errosario santua...”.

Ona beste auen asierako adierazpena: “San Frantzisko seme leialak munduko alderdi guzietan egin oi dituzten lan eta konbertsiyoen gañian ipiñiak”.

Badira ere “Purgatorioko animen gañeko bertso berriak”: “Purgatoriotikan dira abisoak, artzaz oroitutzeko jartzeko bertsoak...”.

Eta abar eta abar.

1907-garren urtean, albiste txarrak etorri ziran Madritik Euskalerrira: Elizaren kontrako zenbait lege jarri nai zituzten. Orduan, Bilbon ta Donostian billera guztiz gogoangarriak egin ziran, Euskalerriko bazter guztietatik jendetza izugarriak bideak betean etorririk. Eta ezin utzi bertsorik jarri gabe. Ona nola zioten bizkaitarrak:

Jesusek emon eban
bizitza gugaiti,
Beran alde jarraitu
biar dogu beti,
Rosarioko Domekan
didar ein gogoti:
“Gora erlejiñua
beste danen goiti!”

Jesusen Pasioarenak

Bañan itz bi esan ditzagun Jesusen Pasioari jarritako bertsoetat. Oso ezagunak dira Aita Basterretxea'renak eta Xenpelarrenak. Altzoko Imaz'ek ere badu bere sailla. Erauskin Errotariarena ere poliki dago.

Getarian, berriz, gurutz-bide luze bat arkitu nuan: “Amorezko eta dolorezko Jesukristoren pausok”.

Azkoiti'ko Estradak ere badu berak jarritako saila. Beraren jaioterrian ez dit inork oraindano eman bertso oien arrastorik; ezta Estradaren semeak ere. Uste gabe etorri zitzaizkidan, gure iritzian bur-

nibidezaiak besterik ez dagoan erritik: Altsa-
su'tik. Ogei ta amabi bertso dira. Ona nola dion
ogeigarrenak:

Gurutze aundi bat eman zioten
gutziz ikaragarria,
bost kana luze ta iru zabal
artu zioten neurria;
onen azpian abiatu zan
zeru ta lurren Jabia,
gure anima zenbat kosta zan
pentsatu, pekataria.

Xenpelarrek “Bost llaga sagraduen adorazioa”
bertsotan jarri zuan. Argitaraldi ugariak izan dituzte
bertso auek. Bañan, Xenpelarren illobaren illobak
esan zidanez, paperetan ez omen daude jarri ziran
bezela, ta berak argitara-arazitako paper bat eman
zidan. Ontan bakarrik omen daude ondo.

Ama Birjiñarenak

Ama Birjiñari jarritako bertso batzuek otoitz
santu auen mamia adierazten digute: Agur Mariare-
na eta Salbearena.

Salbearenak dira Ondarrabian Guadalupeko
Amari kantatzen zaizkionak. Bañan ezagunak dira
beste errietan ere, batez ere Mutriku'n. Zortzi bertso
dira gutzira; bañan paper batean auei erantsita
beste sei arkitu nituan. Asieran oar gutziz gogoan-
garri bat: “Lendabiziko zortzi bertsoak Erroman
izandutako batek esplikatua, eta beste seirak kar-
tzelan amaika lagun geundela Juan Krutz Elizegik⁴
errematatuak”. Orra nola dion lenengoak:

⁴ Itzaldia eman da gero, Don Manuel Lekuona apaiz

Milla zortzireun larogei eta
amalaugarren urtian,
presidiyuan arkitzen gera
estadu pobre batian,
umildadetik sartu gintezke
zeruetako atian.

Pentsamentu auekin kartzelan bizi ziranak etzitezkean lapur gizatxarrak izan. Ez ote ziran itxituran egongo politika-istilluren batengatik?⁵

Badituzte bertsoak Guadalupeko Amak, Begoña-koak, Izaskungoak, Arratekoak, Urrategikoak, Lurdeskoak, “Kontzeziyo Garbiko Ama Korukoak”... Bañan danenak ezin ta Itziarko Amarenak aitatzearekin konformatu bearko gera.

Zubeltzu bertsolariak Itziarko Amaren agerpena bertsotan kontatzen du. Badira, baita ere, “Itziarko Ama Birjiñaren oroimenean bertso berriak”.

1884-garreneko urtian “Azkoitiarrak Itziarrera egindako erromeria” kantatu zuan bertsotan “Atano baserriko semiak”. Onek Jose Mari zuan izena, ta Atano pelotarien osaba zan, Atano anaien aita ta osaba bertsolariak baitziran.

Urte berean, bertsolari batek “Ama Birjiña Itziarkua, itxasoko izar ederra” agurtzen du, onen kondaira dana kontatuz. Ona nola dion ogeigarren bertsoan:

jaunak zera esan zidan: Juan Krutz Elizegi au Pello Errotaren anaia zala, ta errotari izan zala Oiartzunen.

⁵Galdera oni baietz erantzun bear. Politikagatik Irungo kartzelan sartu zituzten, 1894-ko abuztuan. Ikus: *Pello Errota* liburua, *Auspoaren Sail Nagusia* izeneko saillan, 307 orrialdetik aurrera.

Kautibo zeuan Itziarko bat
moro artian Afrikan,
lurreko kartzel mazmor batian
grilluz ondo loturikan,
Birjiña orri erregututa
lo batian jarririkan,
grillu ta guzi bere erriyan
esnatu zan lotatikan.

Bañan, Euskalerriko Andre Mari guztien artean, Arantzazukoa da bertsorik geiena artu duana. Ez ditut gaur ikutuko Arantzazuko antziñako kanta zarrak *-romances-*, oietaz ni baño ikasiagoak mintzatu baitira. Aita Mitxelenak bere poema ederrean ematen ditu Arantzazuko Ama agurtu duten bertsolari batzuen izenak. Oietaz gañera, beste zenbait izen ekarri genezazke. Bañan Arantzazuko Ama ta Euskalerria sekulatik etengabeko erromerian bizi baitira, naiago det erromeri oietako bat aitatu: Pello Errotarena.

“Astiasu ta Alkiza juntatu bi erri” ta “pelegrinaziyuan Arantzazura jun” ziran. Bideko nekeak arintzeko, Pello Errotak amabi bertso jarri zituan. Lenengoak onela dio:

Erregu egin zazu,
Ama, gugatikan,
irten geran medioz
bada zugatikan;
kuadrilla aundia gatoz
Asteasutikan,
Birjiña, zuri agur bat
egiteagatikan.

Joan-etorria egin ondoren ere jarri zituan bertsoak:

Pelegrinaziyuan
Arantzazura jun,

Aguztuak zituan
amazazpi egun;
alkargana bilduta
orrenbeste lagun,
ai zer gusto ederra
guk an eman degun!
Ama Birjiñak berak
lagun egin zigun.

Pello Errotaren alabak zera esan zidan: etxera-koan trena burnibidetik atera egin zitzaiela, bañan etzala okerrik gertatu. Ori zala-ta, gezurrezko zurrumurrua zabaldu omen zan. Ta onen kontra Pellok bertsoak atera zituan:

Geron belarriyakin
gaude adituak,
kuadrillan bagiñala
il da erituak;
ori esan azi du
ezin sufrituak,
danok gera orduan
sano geldituak.

Orain Ezkioko bertsoak aitatuko ditut, irripar eginda lasaitu gaitean.

Txirritak ontzat artu zituan Ezkioko gertaerak; bañan Usurbilko Urdanpilleta kontra jarri zan. Orra nola zion Txirritak:

Geok ere guk toki artara
buelta bat egin genduan,
ango jenderik geientxuena
zegon sinismen senduan;
toki ori da Ezkio mendin,
arbola biren onduan;

ainbeste jende izaten zanik
ez nuan uste munduan,

Beste paper bat ere izan bear du Txirritak gai on-
taz aterea. Ala derizkiogu Urdanpilletaren bertso au
irakurrita:

Txirrita, jartze'idazu
nei buru ariña,
obe zenduke orrela
ariko ez baziña;
zure aundi ori balitz
diamante fiña,
baliyua baleuka
Españiak aiña.

Santuen bizitzak

Eta orain santuen bizitzak. Ez dira gutxi. Aiekin
salto aundirik egin gabe korritu genezake egutegi
dana.

San Inazio da bertsorik geien duan santua.
Gañera, San Inazioaren bizitza bat izango da guk
oraindano jaso degun bertso sailik zarrena. Ona
nola egiña omen dan Loiolako etxearen ormak goitik
beraño duan pitzatuaren marka:

Etxe santu guzia
airean zebillen,
bidrierak ausitzen
mobitu ziraden,
suarekin garra
berekín zuala,
maiak erten zeban
leiotik kanpora.

Nere iritzian, berreun urte izango dituzte bertso auek, eta kontuan artzekoa da nolako puntu baldarrak dituzten.

Dударик gabe, urrena Urkiola izango da. Nunbait, Urkiola ta Loiolarako debozioa ondo sartua dago euskal biotzetan.

Aralar mendiko San Migelek ere baditu bertsoak, bertako kondaira kontatuz: bata, Errezil'ko etxeko-andre baten aotik jaso nuana; ta bestea, Leitza'ko aiton baten aotik erdizka jaso ta aurtengo udaran Imotzen papera eskuratu nuana. Ozkotz'ekoa omen zan bertsolaria. Etxaleku'ko agure batek, berriz, zera esan zidan; beti gauza arrigarritzat izan zuala santuaren bizitza bertsoan.

Aresoarrak ere paratu zizkioten San Migeli bertsoak, orain eun urteko "Areson pestiaren motiboz, San Migel Aingeruaren milagro".

San Migelek osasuna atzera ekarri omen zien errira ta:

Barbero medikuak
etzuten baliyo,
oraingoan graduetan
ez dirade iyo;
munduko gizonetan
ez naiz agitz fiyo,
San Migelek gaitz orri
atajatu diyo.

San Prudentzioren ta San Isidroren bizitzak ogei ta zazpi bertsoan daude biak. San Isidrorena sarritan argitaratua izan da.

San Martin Loinaz'ek iru bizitza ditu. Beasaindarrak, nunbait, jaiera geiago izan diote bergararrak baño.

Santa Agedak baditu iru edo lau bizitza, eta ortik aparte eskeko koplak.

Ta ez dira batere gabe gelditu San Jose, Santa Jenobeba, San Luis, San Joakin, San Fermin, Santa Barbara, San Pablo, San Pedro, San Juan, San Bizente, Santa Klara, Santa Teresa, San Roke, San Pelaio, Santa Luzia ta abar.

Misioetako bertsoak

Santuen bizitzekin egutegia bezela, misio-bertsoekin probintzia guzira korritu genezake: Igeldo, Errezil, Zarautz, Ereñozu, Tolosa, Errenteri, Andoain, Orio, Matxinbenta, Berastegi, Mutriku, Aginaga, Billafranka, Altzo, Azpeitia, Azkoitia, Urrestilla, Asteasu ta abar.

Auetan luzeenak bi auek izango dira: Pello Errotak ogei ta amasei bertsoetan jarri zuan saila (1879), eta bere semeak, Miel Antonek, berrogei bertsoetan jarri zuana (1918). Miel Anton zanaren patera, orain osterara argitaratu berria, bere etxean eman zidaten aurtengo udaran.

Merezi du ta kontatu bear degu gauza bat. Asteasura aste egun batean joan nintzan, ta bertako aguazillarekin gauzak konpondu nituan urrengo igandean bandoa jotzeko, iñork bertso-paperik bazuan faborez ekartzeko, norbait bazegoala aien premian da. Bañan oraindik ez dakit ezer atera danik.

Misioetako sermolariari iru era auetara esaten zaio bertsoetan: misiolari, misionero ta misionista. Ta aien izenak maiz ekartzen dituzte: Aita Baertel, Aita Azkue, Frai Luis ta Frai Daniel, Aita Don Blas Pradere, Aita Aizpurua, Aita Agirre, Aita Ladislao ta Aita Laureano, Aita Agirretxe, Garmendia ta Apraiz, Aita Don Migel ta Aita Basilio, Aita Jose Mari Laskibar, Aita Laspiur ta abar.

Ona emen eskutitz batean ederki asko ageri misio-bertso batzuen egillea nola alegintzen zan ber-

tso-saltzallea billatzen. Eskutitz onek ematen dio buruari zer pentsatua:

“Errenderi 1918’ko Epallan 25.

Lagun Jose Antonio: Lezon izan diran misiyuen bertsuak atera ditut ogei, bost puntu motxian Pastor Izuelaren doñuban, eta emen Lezon eta Oiartzunen zerbait egin litekela uste det, eta saldu nai badituzu erantzun beriala inprentatzeko, eta bai edo ez erantzun biyar arratserako, eta zenbat inprentatu biar diran, zergatik Lezon Pazkuetako nobenan ere salduko lirake; zure erantzunaren zai egongo naiz, bestela besomotz orri emango dizkat, zuk nai ezpadezu.

Lagun:

Lizaso’tar Gillermo”.

Lizaso’tar Gillermo au, uste dedanez, Errenteria’n txistulari izan da urte askotan, ta orain Tolosan bizi da.

Lagun Jose Antonio ori, berriz, *Oriyo’ko tenorra* esaten ziotena da, bertso-paper asko Euskalerrian saldu zuan gizona. Bere illoben etxean jaso nuan eskutitz au.

Ta besomotz ori, urteetan umeak ez diran beste danak ezagutuko zuten bertso-paperak saltzen. Or ibilli da Euskalerra guztian, bai alde ontan ta bai bestean ere, erriz erri sinismenari ta euskerari mesede ikaragarri aundia egiñez. Ta orain, kemenak urritu zaizkionean, ortxe ari da agure gizarajoa, bere larogei urterekin, loteria saltzen Bilboko kaleetan. Egia da bere bizimodua ateratzeagatik saiatu zala bertso-paperak saltzen, Jaungoikoak bakarrik daki zenbat milla paper saltzen. Bañan ez det uste arrazoi petrala danik, ta orrek ez dio meriturik kentzen egin zuan lanari. Danon artean zerbait laguntzea, orra berak ondo merezi duan gauza ta gerok berarekin daukagun zorra.

Gabon-kantak

Gabon-kantak azkeneko txandan. Gai ontaz ez gera luze mintzatuko, mintzatu baita guk baño geiago dakianik.

Bertsolari geienak, Gabon-kantak egiterakoan, zortziko txikia edo puntu motxekoa artu dute neurritzat. Alakoan moldatuak daude gabon-kantarik ezagunenak: *Abenduko illaren*, *Artzai buru txuri bi*, *Gabon*, *eskerrik asko*, *Gaur da nere kristauak*, *Jose*, *ekar zadazu*, *Aingeruak esan du*, *Ogei ta laugarrena* ta abar. Ortara beartzen zituan kantatzeko erabiltzen dan doñuak.

Gabon egunean etxez etxe kantatzeko premi aundia nola baitagon, askotan argitaratu izan dira Gabon-kanta-paperak. Argitaratu, ordea, komenentzia edo jakinduria zeuden bezela egiten ziran, ta ortik naspil aundia sortzen zaigu, kanta asko beren lagun edo senide ez diran kanteekin nastutzen baitira guk nai baño maizago.

Nik dakidanez, bertsolari sonatuenen artean, Udarregi, Iturzaeta ta Altzoko Imaz'ek gabon-kanta ederrak antolatu zituzten. Iturzaeta'renak ez ditugu oraindik jaso, jasoko ditugun ustean bagaude ere. Erauskin Errotariak ere baditu *Olentzaroz kantatzeko* bertsoak. Bañan gabon-kantarik geienak egillearen izenik ez dute.

Egun batean, Anai jesuita bat allegatu zitzaidan, urtez eta ajez aberats samarra: nere asmoen berri bazekiala esan zidan, ta berak ere bazuala neretzako zer-bait. Nik baietz, ekartzeko, ikustearekin beintzat etzala ezer galduko ta. Antziñako paper bat ekarri zidan, eskuz idatzita, gabon-kanta mordoska batekin. Esan zidanez, txikitan, meza laguntzen ibiltzen zalarik, aldare-liburu zar puskatu batean arkitu zuan; geroztik etzuala sekulan eskutik utzi, ta Eguberri guztietan kantatzen zituala berekiko. Ona nola zion laugarrenak:

Amazazpi etxetan
egin degu oles,
alojamenturikan
izango zan galdez;
ainbeste abitantetan
lekurik eman ez,
Josepe triste dago
penaz ta naigabez.

Paper artan zeuden bertsoak, danak edo geienak, moldezko bertso-paperetan arkitu ditugu gero; ta alde guztietatik ezagun dute zarrak dirala oso.

Azkena

Bañan bukatu bearko degu. Ikusi degu gure erriak nolako sinismen ederra daukan. Eutsi dezaiozun, ba, kristau fedeari; ez dezagun gure Euskalerra jentil-erri biurtu, ipui zarretako sasoiari zegoan antzera. Ez du berriro probatzerik merezi.

Bañan gogoan artu zazute nere berriketaldi au urrillean moldatu nuala, ez onera etortzeko bezperan. Au da, udaran bildutako bertsoei ezer gutxi begiratu gabe. Orregatik, emengo esanak ez dute agertzen nere orain-oraingo irizbidea, ordukoa baizik: urrillekoa.

Ta aurtengo udaran bildutakoak aitatu ditudan ezkeron, nolako arrantza izan ote da? Galanta. Bertso-paper mordo lodiak jaso ditut Azpeitia'n, Zarautz'en, Aizarna'n, Altza'n, Oiartzun'en, Donostia'n, Errenteria'n, Tolosa'n. Ta paper aleak, mordoak ez diranak alegia, auskalo zenbat tokitan.

Esku-idatzi mardulak ere arkitu ditut Azpeitia'n, Soraluze'n, Ondarroa'n, Errenteria'n, Donostia'n, Elosiaga'n... Amairu kuaderno arkitu nituan Urdazubin. Orain ogei ta bost urte errotan gabero zai gel-

ditzen zanak kopiatsuak dira. Auxe zan ordurarte nik arkitutako esku-idatzirik aundiena. Bañan aguro kendu zioten Urdazubiri txapela. Astebete gabe, Tolosan, lareuna orrialdeko bi album arkitu nituan. Auetan kanta batzuk erderaz daude; bañan geien-geienak euskeraz noski. Fakundo Adurriaga *Besamotza* zanak kopiatsu zituan. Oso gazterik eskubiko eskua galdu omen zuan, txapel-fabrikan lanean ari zala. Au ere marka da gero: eskuz idatzitako bertso-bildumarik aundiena esku bakar batek bere esku ona etzanarekin egiña izatea. Orain ogei ta amabost bat urte il zan.


Ikusten dezutenez, au dana nik ezin egin neza-kean lana da, laguntzalleak ez banitu. Emendik nere eskerrik onenak danoi.

Ta emen zaudetenoi, berriz, zorionezko Gabon ta Urte berri. Bañan berriketa luze ontan txandaka ibilli baigera bertsolariak ta biok, bertsolari bati utziko diot azken itza:

Orrela jaio zaigu
aur ori Belenen,
ori sinisten degu
ikusi baño len;
adoratu dezagun
biotzetik emen,
gero bizi gaitezen
alkarrekin, amen.

Besterik ez.

(1957-ko urrillaren 15'ean)



Bertsolariak eta Europako lenengo gerratea (1914-1918)

(Bilbo, 1958-ko abenduaren 14-an.)

Bertsolariak eta Europako lenengo gerratea (1914-1918)

(Gure erri-literaturaren erakusbide)

Europak amaika bider erakutsi du sutan azkar asten dan sasia dala. 1914-garrenean sutu zanean, bertsolariak etzuten gerrate ura bertsotarako gai txarra izan. Ez ditut jasoak izango, noski, orduko gai ontako bertso guztiak; bañan jasotakoak ere emango digute gaurko itzaldirako naiko izbide.

Etxea sutan duanaren biotzean badakigu zer izaten dan: naigabe garratza. Obeto erakusten du nork bere biotza auzoko etxea erretzen danean. Gañera, egia esan, iparraldeko bertsorik ez det orain artean nai añean bildu. Orregatik, ez det Bidasoaz aruntz aldeko bertsorik aitatuko. Alde ontako bertsoekin izango degu naiko gai.

Idazle ta olerkariak omen dira nork bere erriaren biotza ondoen azaltzen dutenak. Ori egia bada, are egiago izango da bertsolariak dirala gure erriaren biotzaren ispillu. Orregatik, ez det nere kolkotik itz askorik egingo. Zerok entzungo dezute bertsolariak diotena.

Txirrita ta J. R. T.

Beren burua Frantzia edo Alemaniaren alde jartzten duten bertsolariak gutxiago dira iñoren alde jartzen ez dutenak baño. Norbaiten aldekoak aita-tuko ditugu lendabizi. Ta danen aurrean Txirrita.

Getarian artu nuan lenengo aldiz Txirritak gerra oni ipiñitako bertsoen berri. Baserri bateko etxeko-andre batek bi bertso t'erdi kantatu zizkidan. Urrena, berriz, Igeldon, Don Fabian Loidi apaizak beste bi bertso. Orion gaztetan ikasiak omen zituan; bañan bi besterik ezin gogoratu. Igazko udaran Errenterian eskuratu nuan papera bera, bañan puska bat falta zuala. Bertso guztiak, Naparroako Urdazubiko esku-idazki batean arkitu nituan. Aurtengo udaran, berriz, Berriatuan bertso-papera ostera ere azaldu, ta au oso-osorik, Errenteriko papera Pasaian argitaratuta dago; Berriatukoa, berriz, Eibarren.

Berrogei urte igaro ta gero bertso oien aztarnak ainbeste tokitara zabalduak arkitzen baditugu, ortik pentsatu bearko degu nolako bolara izango zuten garai artan euskaldunen artean.

Bertsoak gerratea bukatzera zijoala jarrita daude. Guztiz Frantziaren aldekoa azaltzen zaigu Txirrita. Bera ere frantzes balitz bezela itz egiten digu. Eten gabe *gu* ta *gu* ari zaigu bertso guztietan.

Ona lenengo ta zortzigarreno bertsoak:

Zori gaiztoan fundatutako
Alemaniyako gerra,
aixa nai zuten eskuperatu
gure erreino ederra;
oraindik ere bada Frantziyan
dirua eta indarra,
len zan bezela ipiñitzeko
izango degu biarra.

Aleman batek neri esana,
biyok geudela kafian:
Kaiser agintzen ikusiko da
laister Parisko kortian;
zepelinakin aidetik eta
submarinuak urpian,
disgusto asko eman digute
jun daneko lau urtian.

Orren Frantzi-zale purrukatua Txirrita izatea nundik izan ditekean, ezin oraingoz beintzat antze-man. Badakigu Frantzian izana zala; ez, ordea, zenbat denboraz, eta nolako bizimodua egiñez. Gero, onuntzean, bota oriekin etorri omen zan "Rotxildarrekin esposatzeko markesa", berak bertso batean dion bezela. Dana dala, Txirritaren bertsoen liburua ateratzen degunerako, saiatuko gera zera ontan ere argi egiten.

Bañan Txirritaren kontra aleman-zale bat azaldu zan. Paperak onela dio: *Bertso Berriyak J. R. T.'ek jarriyak*. Ezin degu somatu egillea nor izan ditekean¹

Lendabiziko bertsoetik aditzera ematen du Txirritaren kontra datorrena:

Bertso berriyen errespuestak
bertatik nai ditut kanta,
jendia ondo entera dedin
egiyak garbi esanta...

Bata bestearen parean jarriko ditugu aien zenbait bertso, alkarren arteko eztabaida obeto ageri dedin:

¹ Jose Ramon Taberna, Errenteriarra. Aren argibideak eta bertsoak: *Errenteria'ko bertsolari zaarrak, Auspoa* 74-75. 1968.

Txirritaren bigarrena:

Beljikatikan galdetu zuten
lendabiziko pasua,
jakiñik nola zegon Parisa
andik bide erosua;
aitatik ere artuak dira
uste etzan erasua,
porrokatu ta puskatu zuten
naziyo txiki gaxua.

J. R. T.'ren bigarrena:

Diyozutenez Belgika ori
izanik orren txikiya,
aundiyaguari onez onian
zertan ez utzi tokiya?
Gañera berak tiroka ekin,
erantzuera propiia,
istoriyetan azalduko da
galtza oien aroakiya.

Txirritaren irugarrena:

Ogei ta amar milla milloiko
asi zitzaigun eskaka,
otso gaizto bat zirudiyela
artaldiari eskaka:
Jeneral Foch'ek bialdua da
Holanda aldera eskapa,
orain lau urte ainbat erronka
garai onetan ez dauka.

J. R. T.'ren irugarrena:

Ogei ta amar milla milloiko
omen zituzten eskatu,

frantzesak esan omen ziyoten
etzutela nai prestatu;
Jeneral Foch'ek ezpatarekin
Kaiser omen du sustatu,
jartzen dituzten gezurrarekin
batek biar du nazkatu.

Txirritaren bostgarrena:

Beren joera Paris aldera
egin ziguten aurrena,
ango etsiyak artu zituzten,
Berdun'a berriz urrena:
sei illabeten sutan pasa ta
etziran sartu barrena,
ez da andikan gustora juana
Kaiser'en seme zarrena.

J. R. T.'ren bederatzigarrena:

Frantzes oriek pentsatu zuten
Berlin'eraño joatia,
Alemaniko fronteran laster
jarri ziyoten topia;
neri gizon batek esan didanez
larri ibilliyak tia,
Burdeos'era Paris'tik azkar
eraman zuten kortia.

Jeneral Foch da Txirritak geiena goratzen duan
gizona. Ona bere laugarren bertsoa:

Amorratuak ziruditela
etorri ziran Frantzia,
orain esaten errezago da
orduko gure trantzia:
Jeneral Foch'ek eman diyote
uste etzuten partxia,

mereziko du diamantezko
estatua bat jartzia.

Txirritak esaten dituanen aurka bi arrazoibide sumatzen ditu J. R. T.'ek. Bata, ez dutela Alemania galdu etsaien armak, barrengo naspillak baizik. Bestela, frantsesak eta bere lagun guztiak pikutara bialduak izango zirela, Amerikatik laguntza etorri ezean; eta, orregatik, ez dutela zergatik burua arrotu.

Rompecabezas jarko dizutet
nai dezutenak pentsatu:
zeñek soñua jo duen eta
zein nola diran dantzatu;
prusianuan ejerzitua
ez dute arman bentzutu,
Alemaniko sozialistak
diruz dituzte gaintzutu.

Balientien itxura egiten
orain zertako dabilta?
Ez al dakite noiz artu zuten
lendabiziko paliza?
Ruso, belga ta franko inglesak
baizik izan ez balitza,
oiengatikan bi urte ontan
sartuak ziran Parisa.

Txirritak amerikanoak ere goratzen ditu. Orra nola dion bederatzigarren bertsoan:

Zepelin zarrak bonbaz betiak
goiko oroian tartian,
millaka minak itxasoan da
submarinoak urpian;
oiek sumatzen ibilli dira
berrogei ta lau urtian,

Kaiser Paris'en ez da sartuko
Wilson bizi dan artian.

J. R. T., berriz, ez da amerikanoekin geiegi fia-
tzen. Orra nola dion amargarrenean:

Inposible da, frantzesak ez da
burutik oso sanua,
yankia bere alde artua
etorko zaio damua;
legorrian da itxasuetan
botia dauka amua,
Burdeos'tikan Hendaia'ra arte
laister amerikana.

Jose Garmendia²

Jose Garmendiak jarritako bertsoak Altzan ar-
kitu nituan. Paperak egillearen izenik ez dakar; ba-
ñan Txirritaren illobarenean eman zidaten argibide
orj: Jose Garmendia, Alzako Arrues baserrian jaioa.

Gerrazale guztien kontra dira bere lendabiziko
bertsoak. Gero ere aitaturko ditugu bertso auek, ta
obeko degu orain gañontzeko bertsoetaz mintzatzea.

Zazpigarrenetik amabigarreneraño Beljikaz itz
egiten du. Ez du ontzat artzen Alemaniak Beljika-
rekin egindako lana. Orra amargarrenak nola dion:

Lieja ta Amberes,
Brabante ta Namur,
oiek jo zuten lur,

² Jose Garmendia bertsolariaren bizitza eta bertsoak:
Alza'ko bertsolari zaarrak, Auspoa 76. 1968.

lengo oñian jartzen
ez da oso samur;
emen egiten zaio
gaiztuari agur,
ona kastigatzeko
iñor ez da beldur,
askoren Jaungoikoa
alemana da gaur.

Urrengo bertsoetan Frantzia ta Alemaniaren arteko burrukak aitatzen ditu. Emen ere ez Alemaniaren alde. Ona amabostgarrena:

Adelantu oiekin
orrenbeste lagun,
esaten zan ordun
ura detenitzeko
korajia nork dun?
Jendia berriketan
etzan gutxi jardun:
“Martxuaren seirako
kendu baietz Berdun!”
Oraindik ez da sartu,
ez dakigu zer dun.

Urrena, berriz, Inglaterraren txanda. Gogor samar erasotzen die inglesengatik gaizki esaka ari ziranen. Ona emeretzigarrena:

Neronek aditu det
gizon askokgandik:
“Ingelesak lan dik;
mokadurik onena
alemanak jan dik”.
Milla metro batzuek
gora juan andik,
Londres'en bota arren
bonba zepelindik,

ez dute irabazi
gerr'ori oraindik.

Urrengo bertsoetan –ogei ta bi dira guztira– naspil artan sartu ziran gañontzeko nazioak aitatzen ditu; ta azkenengoetan ainbeste gizon iltzeaz artzen duan miña azaltzen du.

Bertso auek jarri zituanean, Jose Garmendia onek etzuan asko pentsatuko bera ere soldado gizarajo aien gisa il bear zuanik. Donostira, Egiako taberna batera jai-arratsaldea pasatzera etorria zala, berarekin asarre zan langille batek labana sabeletik sartu zion. Artatik il zan.

Enbeita

Enbeitak ere badu bertso-sail bat Beljikaren alde. Or nunbait aldizkariren batean argitaratuta egongo da. Soraluzeko esku-idatzi batean arkitu nuan modura ezagutzen det nik. Ontan bertso guztiak ote dauden ala ez, ta itz-aldaketarik izan duten, orra nik ez dakidan gauza. Alare, ez det utziko bertsoeren bat aitatu gabe. Ona bigarrena:

Ai ene, ai, Beljika, Beljika,
otsuak dautzu aginka;
zeure-zeuria zan artaldeko
ardi ederrak aneika
ondata dautzuz, txabola aurreko
esi guziyak autsita.

Odol ixurtzeaz naigabea

Ontaz aurrera aitatuko ditugun bertsolariak ez dute beren burua iñoren alde azaltzen, len esan de-

gun bezela. Auzi ortan nastu gabe ere, gerra onek eman zien naiko izbidea.

Gizonak pillaka iltzeaz artzen duten naigabea da geien agertzen dutena. Esate baterako, sentimentu ori zugaitzaren enborra da, ta gañerako danak adar ontatik erne diran adar ta ostoak.

Bertsolari danak banaka aitatuko ditut, naigabe ori nola agertzen duten aditzera eman ez. Gañontzeko arrazoiei ondoren elduko zaie txanda.

Juan Jose Sarasola "Lexo" ³

Bera da gerra oni bertsorik geien atera zion bertsolaria. Bi alditan atera ere. Bata, naspilla asi ta denbora asko gabe: bestearen urtea berak esaten digu lenengo bertsoan:

Iya emeretzireun
da amasei urte
ez dira aparte...

Juan Jose Sarasola au Donostiako Antiguako kale-garbitzallea izan zan. Ez-izenez *Lexo* esaten zioten, Lezoko baserri batean jaioa zalako.

Lendabizi atera zuan paperak ogei ta bi bertso ditu. Oietan lenengoa oso ederra da. Ona nola dion:

Emeretzireun urte pasa ta
gañera amalaubian,
turmoi nastuba formatu da ta
izarrak triste gaubian;

³ Bertsolari onen bizitza eta bertsoak: *Lexo bertsolaria*, *Auspoa* 79-80-81, 1968.

egunez goibel kolore txarra
eguzkiyaren parian,
malkua eta odol putzua
nork daki zenbat bidian,
kanpuan dagon naigabe ori
kutsatuko da gurian.

Bertso ontan ere garbi azaltzen du “odol putzu”
orreatatik sentitzen duan samina. Bañan ikusi de-
zagun samintasun ori bere gañerako bertsoetan.
Ona bigarrenetan zer dion:

Orain ainbeste odol ixurtzen
bada denbora luzian,
anima salbo jarriko gera
pizti gaixtuen klasian.

Bostgarrenetan:

Baporiakin urperatua
zenbat ingeles ta aleman,
difuntu oien garbitasuna
guk ez dakigu nola eman.

Amaikagarrena:

Batallarako balientiak
nai lituzteke aukeran,
eritzen diran gizarajuak
urrikaltzeko tankeran;
trena betia daramazkite
bakoitza beren pronteran,
Jainkuak daki bidian illa
zenbat izango ote dan,
zeñek berenaz pentsa dezagun
mesede edo kalte dan.

Ederra da azken bertsoa. Lenengo bertsoaren antzera egiña dago.

Turmoi nastuko denboralia,
jarririk ipar goxua,
izar ederrak tris-tris egiñez
egon liteke jasua;
bati berenik bear diyogu
satisfaziyo osua,
pake santuan jarri gaitzazu,
Aita amoriyosua,
legor gañian ez genduke nai
odolezko itxasua.

Nere iritzian, munduko edozein antolojian agertzeko modukoa da bertso onen bukaera:

Legor gañian ez genduke nai
odolezko itxasua.

Ondoren jarri zituan bertsoetan ere ildako gizonengatik samintasun pranko agertzen du. Ona seigarren eta amargarrenaren bukaerak:

Kulpa gabe askori
kentzeko biziya,
enredatu dalako
Europa guziya.

Errespeto obero
nai genduke iza,
matantzan ari gabe
salbajien gisa.

Amazazpigarrena nere iritzian onena:

Aurrak ogi eskian
amaika zokotan

negarrezko kantan,
bere aitonaren da
amonaren kontran;
ama semerik gabe
orrelako plantan,
emazte triste asko
senarraren faltan,
enbaliyua franko
bizi diranetan.

Len esan deguna: Juan Jose Sarasola au izango da gerra oni bertsorik geien atera ziona. Bañan ez det uste bestela ere izango danik, Lexo onek ainbat bertso jarri duan bertsolaririk⁴. Naiko lan beintzat. Gero ta lodiago biurtzen ari zaigu beraren bertso-paper pilla. Oraindaño bildutako aren bertsoak ez dute millakoa osatzeko asko falta.

Ez da urte asko il zala. Beraren alabak esan zidanez, etzeukan idazteko batere erreztasunik, ta bere bi alabaz baliatzen zan lan orretarako. Ta orduan era ortan idatzi ta moldiztegira eraman gabeko orri batzuk eskuetan jarri zizkidan. Ortaz gañera, bere aitaren bizitzaren berri asko eman ere bai. Lexo onen liburua prestatzen degunerako utzi bearko ditugu.

Bañan bere euskeraren aldeko lanarekin ikasbide ona eman zigun kale-garbitzalle onek. Aren bertso-liburua ateratzean, bera izango da, nik dakidanez beintzat, edonungo kale-garbitzalleetan liburu egille bakarra.

⁴ Itzaldi au eman zanean, 1959 urtean, orrela izango zan. Ondoren, ordea, egunkari eta aldizkariak bertsoak argitaratzeko erreztasun aundiak eman dituzte, baita bertsolari batzuk egokiera ortaz ederki baliatu ere, eta Lexoren marka autsita egongo da bearbada.

A. jarriyak

Bertso berriak A. Jarriyak dio igazko udaran Errenterian arkitu nuan bertso-paper batek. Ez dakigu egillearen beste berririk. Paper onek ere Europako gerra du gaia, eta ixuritako odolak ematen dion miña du sentimenturik ageriena.

Ona nola dion bostgarrenean:

Gizon illak daudela
bidiak betian,
gure anaiak dira,
erruki gaitian.

Beste batean:

Mediko batengandik
ala det aditu:
odolezko errekak
dutela korritu.

Seigarrena osorik eskeiñiko degu:

Zenbait amaren semek
utzi du biziya,
famili askorentzat
au da desgraziya;
erregutu dezagun
al degun guziya,
Jaunak aplaka beza
bere justiziya.

Zazpigarrenak Ama Birjiñarentzako erregu batekin bukatzen du:

Aurtxu inozentiak
gurasorik gabe,

miseri askorekin
gelditu dirade;
biyotza partitzen da
oroitzian ere,
Birjiña Lurdeskua,
egin zaitez jabe.

Oso pentsakizun ederra du zortzigarrenak:

Gure Jesukristoren
odolak kostiak
nola aleman eta
orobat bestiak;
pena ematen digu
orla ikustiak,
gauza onik ez dakar
munduko nastiak.

Amaikagarren bertsoan Guadalupeko Amari erre-
gutzen dio, ta Jaizkibelpeko erriren batekoa izango
da, dudarik gabe, egillea.

Pedro Tolosa

Aurtengo udaran, Aita Riezuk Aita Donosti zanak
bildutako bertso-paper sorta bat utzi zidan. Aletako
paper baten gaia gerrate au da, ta beraren egillea or-
durarte ez-ezaguna zitzaidan bat: Pedro Tolosa.

Bertsolari onek sentimentu bakarra adierazten
du: ildako gizonengatik artzen duan naigabea.

Ona lenengoaren ta bigarrenengoaren bukaerak:

Beste bi urtez segitzen badu
gerra txar onek aurrera,
arren balentzat ainbeste gizon
mundu onetan ote da?

Berak ez dute bentaja aundirik,
auzokoarentzat kalte,
gelditu asmorik apenas dute
azken gizona il arte.

Laugarrena:

Martirioa guretzat dator
egunetik egunera,
allegatutzen utzi nai ezik
Jesukristoren legera;
gizonak sano etxetik artu,
balakin il da lurpera,
asko kosteak baginān ere
franko merkatzen ai gera.

Nik beintzat ez dakit inork adierazi izan duan gerraren mamia bertso onek baño itz gutxiagotan eta zorrotzagotan:

Gizonak sano etxetik artu,
balakin il da lurpera.

Seigarrenean diona:

Mundu onetan egin azi du
gizon bakantza ederra,
zenbait famili ondatu duen
au zori gaiztoko gerra!

Garratza zazpigarrenaren bukaera:

Modu onetan biziya uztekoz
jaio ez baginān obe.

Bederatzigarrena osorik emango degu:

Orra lau urte gerran irago
eta bosgarrena aurki,

bitarte ontan zeinbait diraden
illak Jaungoikuak daki;
projimoaren odolik oiek
apenas dute erruki,
jendia asko bazegon ere
bakandu dute ederki.

Amabigarrenaren bukaerak antz pixka bat badu
Jesukristok fede gabekoengatik esan zuanarekin:

Ardi bakarrai nola otsua
gallendua da etsaia,
artalde dana ondatu gabe
zuzen gaitzazu, Artzaia.

Juan eta Pello Zabaleta

Errenteriko bi anai ziran auek. Bizi da oraindik
Pello. Bein baño geiagotan jardun izan naiz berri-
tan berarekin, eta ez nere kalterako. Oraindik ez dio
bertsotarako griñari utzi. Joan dan illean ere bertso-
sail bat bialdu zidan, berak atera berria. Izenburu
au du: *Bizi modu garratza*; ta gaurko munduagatik
egi eder pranko esaten du, entzun nai duanik baldin
bada.

Beste anaia, Juan, orain urte batzuk il zan. Ona
zer esaten zidan bere alargunak, itz egitera joan eta
nere asmoa adierazi nionean:

– Jesus! Amaika aldiz esaten zuan gure gizonak:
“Ez diezute orain bertsoai kaso aundirik egiten, ba-
ñan egunen batean ibilliko zerate bertsoen atzetik!”
Ez gaitu orain ikusten!

Bi anai auen bertsoekin liburu bat osatuko degu-
lakoan nago.⁵

⁵ Bertsolari auen bizita eta bertsoak: *Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak, Auspoa*, 63-64, 1967.

Ikus dezagun orain gerrako odol ixurtzearen samina nola adierazten duten. Ona irugarren bertsoan:

Etsai gaiztuak parte artuta
dabilzalako mediyo,
Europa triste ontan ixurtzen
da zenbat odol irriyo.

Zortzigarrena:

Mundu guziya arriturikan
dago berari jarriya,
ikusirikan odol ixurtze
aundi ta negargarriya;
zenbat guraso triste ta semek
utzi du bere biziya,
pozgarriya etzan izango aien
azken orduko antsiya,
gerrak gauz onik ez dakarrela
artu dezagun etsiya.

Bederatzigarrena:

Iru urte ta lau illabete
pasiak gerr'ori asirik,
makinatxo bat il da gaur egon
biar zutenak bizirik;
santa sekulan ez da izandu
onlako odol ixurtzerik,
penaren penan indarrarekin
biyotza erdibiturik,
pakian billa guazen guztiyak
gerra alde bat utzirik.

Azken bertsoa ere ezin aitatu gabe utzi:

Egunen batez Josafat'eko
zelaian Juez justuak

onak beretzat artuko ditu,
Luziferrentzat gaiztuak;
erruki zaizkit gerra ortan kulpa
gabe iltzen diran gaxuak,
ortaz erregu arren Jesusi
zabaldurikan besuak,
oroipengarri para dituzte
Juan eta Pellok bertsuak.

Fermin Imaz

Fermin Imaz lagun aundia izan zan Txirritarekin bolara batean. Alkarrekin paratu zuten *Kantabriako itxas gizonai oroipen bat* deritzaion bertso-papera, 1912-garren urtean itxasoan gertatu zan naigabe negargarriari jarria. Errenterian, beintzat, biak jardun omen ziran bertso oiek kantatzen ta saltzen. Bañan beren adiskidetasuna etzan betikoa izan. Asarretu egin ziran, ta bertso gogor zital pranko jarri zioten alkarri.

Fermin Imaz'ek Europako gerrari atera zizkion bertsoak iru argitalpen izan zituzten, nik jaso dedanez beintzat. Lau urtean iru aldiz ateratzea marka polita dala derizkiot. Ixuritako odolak ematen dio oni ere min geiena. Ona lenengo bertsoaren bukaera:

Mundu guziyan gerra kontua
besterik ez da aditzen,
zenbat aur gaixo aitarik gabe
ote dirade gelditzen?

Bigarrena:

Aur koitaduak ez bakarrikan,
gañera ainbeste ama,

pauso bakoitzan gogoratuaz
beren senarrarengana;
laguntza nai ta laguntzarik ez
gaxuak daukaten lana,
sinistaten det gauz ori oso
tristia izango dana,
oitzaz erruki liteke bate
sentimenturik duana.

Irugarrena:

Negarrez eta desditzan dabil
Europako partia,
ondo goguan izango dana
ori asi zan urtia;
ondarra baño ugariyago
bada jendia botia,
berak zanpatzen duten lurra're
ilhez odolez betia,
jakin nai nuke nola izan dan
askoren errematia.

Seigarrenaren puska bat:

Orain artian bezela aurrera
biar badute segitu,
naziyo oieri gertako zaie
jenderik gabe gelditu.

Jose Garmendia

Komeni zaigu Jose Garmendia berriz ere aitatzea. Onek ere garbi erakusten du bertsolari guztiak zuten naigabea. Ona bere laugarren bertsoa:

Gerra komeni bazan
orra etorri da,
gogor ari dira,

jendia bakandutzen
lautatikan bira;
zer dan ez dakitela
dadukaten ira,
ainbeste milloi gizon
alkarri begira,
beste lanikan gabe:
kargatu ta tira.

Ez dago obeto adierazterik gerra zer dan:

Ainbeste milloi gizon
alkarri begira,
beste lanikan gabe:
kargatu ta tira.

Ta orrelako lana, lenago esan duan arrazoiaren-
gatik;

Zer dan ez dakitela
dadukaten ira.

Ikusten dezutenez, aitatu ditugun bertsolariak,
Jose Garmendia au ez beste danak, ez daude ez
Frantziaren eta ez Alemaniaren alde. Beren burua-
gatik Xenpelarrena esan dezateke:

Ez naiz ni gerraren zale,
baizik pakearen alde...

Gerrak ez die odola ta eriotza besterik ekartzen
burura, artaz oroitzean.

Nik gogoan dedanez, beintzat, etzan orrelakorik
gertatzen gure inguruan Europako azken gerrate
denboran. Guregana gerrarik zabaldu ez bazan ere,
bazan itzetan naiko gerra bazterretan. Nork bere go-
gokoak irabaztean, poza; ta galtzean, miña. Ta

galtze ta irabazte oiek ixurtzen zuten odolari ez genion ajola aundirik ematen. Gutxi ziran odol ori beste edozer baño lenagotik jartzen zutenak.

Gure erriak, 1914-ko gerratean beintzat, txit bestelako biotza erakutsi zuan, ikusi degunez. Biotz ona ez-ezik, zuzena ere bai; griña ta zalekeriz okertu gabeko biotz zuzena. Ta etziran motzak asmatu zituari arrazoibideak.

Are ederragoa da bertsolariak ematen diguten ikasbidea, konturatzen bagera Alemaniaren edo Frantziaren edo beste nazioen izena ez dutela doidoi baizik aitatzen. Pedro Tolosak, Fermin Imazek eta Zabaleta bi anaiak, berriz, ez dute bein ere iñoren izenik ezpañetan artzen. Ez dute ikusten ixurritako odolaren gorritasuna baizik.

Esan bezela, Zabaleta anaiak ez dute iñungo nazioen izenik aitatzen. Bai, ordea, Europarena maikiña bat aldiz. Baita onen egoera negargarriaz itz tristerik esan ere. Arritzekoa da, bañan oraingo europazale oietako bat izketan ari zaigula dirudi.

Gerratean sartzeko bildurra

Urruzuno jauna gure kapellaua il ondoren, andik denbora asko gabe, komentuko moja bat petxutik gaixotu zan. Dakizunez, garai artan gaitz ori senda eziña zan, eta oso kutsakorra gañera. Orregatik moja ori gela berezi batean jarri bear eta Urruzuno zanarenean sartu zuten. Il zanean, iñor kutsatu etzedin, gela artako paper eta tresna guziak erre egin ziran. Zuk nai zendukean ori ere an izatea ditekena da, bañan ez nizuke esango.

Danok dakigunez, mojen komentuetan, kapelluari meza ematen laguntzeko, auzoko mutiko bat edo beste izaten dute. Urruzunoren meza-laguntzailleetako bat nor izan zan badakigu: Eusebio Mugertza, urteen buruan *Duque de Kilimón* edo *Mendaro Txirristaka* esanda ezagutuko zana. Bertsolariaz gañera, bertso-saltzaille purrukatua. Oraindik ere askok eta askok izango dute gogoan. Azkeneko urteetan, erdera-euskerazko bertsoak publikatzen ta saltzen zituan. Asieran, ordea, euskera utsezko bertsoak zituan, ta ez nolanaikoak. Bertso auekin liburu mar-dul bat osatu diteke.²

-Bañan nola dakigu *Mendaro Txirristaka* onek mutil koxkorretan Urruzunori meza laguntzen zionik? Berak kanta-paper batean ala aitortzen dualako. Lenengo, erderaz:

*Yo cacé un gabilán
cuando era monaguillo;
me decía el capellán:
"Eusebio, tú eres un pillo".*

Ta urrena, euskeraz, argibide jakingarri au ematen digu:

² Ikus: *Mendaro Txirritaka*, *Auspoa* 120-121-122, 1974.

Ura zan Pedro Migel
Urruzuno jauna,
bertsuetan sermoia
egiten zuana.

Kontu polita au ere. Zeiñek usteko zuan orrenbesteraño zanikan? Apaizak bertsoan sermoia; ta, azkenerako, meza-laguntzaillea ere bertsolari biurtu...

Datorren urtean beteko dira eun urte *Mendaro Txirristaka* au jaio zanetik.

Eskerrak

Bukatu baño len, bi izen aitatu nai nituzke, ain merezia duten esker ona gugandik jaso dezaten.

Urtetan eta ixil-ixilik, bi lagun oiek lan aundia, lan zailla egin zuten, Urruzunoren idazkiak andik eta emendik biltzen. Biltzen ez-ezik, makinaz kopiatzen ere bai. Ta ala, gaur emen bildurik baldin bagaude, gaur Urruzunori omenaldirik egin bazaio, bi lagun oiei zor zaie geienbat.

Oietako bat emen degu gaur: Jose Maria Etxaniz Urruzuno jauna, Urruzunoren illoba. Besteak atsegiñik aundiena izango zuan gaur gurekin egotea, bañan mundu ontatik joana degu: Antonio Arrillaga jauna.

Beraz, nere itzaldi au bukatzeko, jaun oientzat txaloaldi bero bat eskatuko nuke.



Manuel Lasarte bertsolaria

(Leitzan, 1975-eko martxoaren 2-an, Manuel Lasarte bertsolariaren omenaldian, *Amazabal* pelota-lekuan egindako itzaldia.)

Manuel Lasarte bertsolari

Jaun-andreak:

Orain berrogei ta zazpi urte, Leitza'ko mendibaserri batean, aur bat jaio zan, eta iñor gutxi enteratuko zan errian.

Gaur, berriz, erri guzia bildu da orduko aurraren goralpenez. Naparroa'tik ez-ezik, Euskalerriko probintzi guzietatik ere etorri da jendea. Kale berri bati bere izena eman diogu; beraren iduri bat jarri ere bai. Ta periodikuak-eta gaurko festaren aitamenak egin dituzte.

Zuek danok ere badakizute, nik bezin ongi, ori dana zergatik dan; bañan norbait bear omen zan, da ni izendatu naute gaurko omenaldiaren sustraiak adierazteko.

Aur baten biotzak eta buruak berezko doaiak izan ditzazteke, Jainkoak emanda. Ala ere, soro edo alor baten antzera oi dira: ereingabe ez dute uztarik emango.

Ala, gure Manuel Lasarte'ren buru-biotzetan lenengo bertso-azia erein zuana, bere ama izan zan. Bertso zarrik erruz zekiana omen zan, da askotan kantatzen zituana. Amak kantatu ta semeak gogoan jaso.

Urrengo azia, Plazaola'ko langilleak erein zuten. Trenbideko lanak bukatuta, kantinan sartu ta bertsoan asten ziran. Laixter oartu ziran, arritu ere bai, begirik itxi gabe beren kantuari adi-adi egoten zan zortzi-bederatzi urteko mutiko artaz.

Bañan Leitza'tik Gipuzkoa'ko Aia'ra aldatu zan familia. Andik laixter erriko festak, eta Uztapide ta Basarri etorri ziran bertsoara. Berak etziran konturaturuko, bañan egun guzian mutiko bat izan zuten, beren ondolik ezin apartatu zana.

Urrena, Aiatik Eibar'era joan zan lanera. Ango lagunekin tabernan-eta jarduten zan bertsoan, ta Bizkai'ko Zaldibar'en kantatu zuan lenengoz plazan, amazazpi urterekin.

Beraz, Naparroa'n bertsozaletu; Gipuzkoa'n trebetu eta Bizkaia'n lenengoz plazara azaldu. Asiera egokia, nik uste, Euskalerra guzian erriz erri ibili bear zuan bertsolari batentzat.

Bertsolari baten lenengo doaia, lenengo oñarria, euskera da noski. Lasarte'rena nolakoa ote?

Jaioterrian, Naparroa'ko euskerarik onentxoenetako bat egiten dan tokian, gure izkuntzaz jabetu; Naparroa'ko euskera, gipuzkoeratik oraindik gutxi aldendua. Andik Gipuzkoa'ko euskerarik ederrenetako erri batera aldatu, eta ango izkera ere bere-berea egin.

Ain zuzen, orixe da Lasarte'k erabiltzen duan euskera: Leitza'koa, Aia'koarekin osatuta; edo Aia'koa, Leitza'koarekin aberastuta. Ta, nik esan bear banu, napar-gipuzkoera ori da bertsoan egiteko bikoterik bikañena.

Bañan Eibar'en-eta, Bizkai'ko euskera ere bereganatu zuan. Ori asko ez balitz, soldaduska muga ondoan serbitu zuan, Eugi'n, ta ango ta beste aldeko izkera ere ezagutu.



*Manuel Lasarte, bere omenaldi-egunean,
Leitzan, esker-bertsoak kantatzen.*

Ain zuzen, mugaz beste aldera igaro zan batean, Xalbadorrekin topo egin zuan, onen ardi-etxolan. Ta bat artzai-jantzitan eta bestea soldadu-erropetan ziralara, antxe egin zuten beren izketa-aldia, ta amaiketako ere bai.

Beraz, Naparroa'ko ixkiñ ontako eta Gipuzkoa'ko Beterri aldeko euskera erabiltzen badu ere, Euskalerriko beste izkera-mota geienak ezagunak ditu. Zabalera aundiko euskera, beraz, Lasarte'rena.

Bañan zabala ez-ezik, egokia, gozoa, aberatsa ta garbia ere bai; euskera jator-jatorra; benetako euskera.

Egokia ta gozoa dan jakiteko, proba bat egin ditekete: Lasarte'ren bertso bat, edozein, artu ta an esaten diranak beste itzekin jazten saiatu. Gero, obeki esana zein dagoan konparatu. Nai dan denbora guzia artuta ere, alperrik gure egiñala; ez degu itz egoikiagorik eta gozoagorik billatuko.

Ta aberatsa, garbia eta jatorra ere bai; benetako alegia. Aspaldi ontan, gure izkuntzaren jatortasuna aultzen ari ote zaigun bildur naiz. Erderarekin kutsatzen ari ote geran esan nai nuke. Oartu gabe, bi izkuntza oiek alkarrekin nastu egiten ditugu.

Lasarte oni, berriz, bertsoan ari danean, eta izketan ere berdin, euskera bakarrik ageri zaio; erdal kutsurik batere ez. Euskal esaera, euskal sena, euskal biotza ta muña.

Lasarte'ren beste doai bat bertsoGINZA dala danok dakigu. Bertsoa bi gauzek tajutzen dute: neurriak eta puntuak. Neurria, esakizunak ainbeste silabatan sartu; orregatik esaten zaio itz neurtua. Ta puntua, erderazko *rima*, bukaera apain oiek, ots berdiñeko amaierak.

Neurrian motz edo luze gelditzerik ez du Lasarte'k egingo. Neurrian noizean bein utsegitea gauza

zalla ez da; ez utsegitea gauzarik zallena ta arrigarrriena, eta ori da Lasarte'k egiten duana.

Bigarrena, puntua. Ontan ere aberatsak eta po-break izaten dira. Letra edo izki askorekin edo gutxirekin egiñak; somatzen errezak edo zallak. Puntua zenbat-eta aberatsagoa, ederragoa, beteagoa, zallagoa izan, bertsoa ere ainbat-eta gozoagoa, egokiagoa, eztiagoa ta atsegiñagoa izango da.

Bañan puntu aberatsik baldin bada, aberatsa orratik Lasarte'ren puntua. Iñork nundik eta nola ez dakiala, oso aurretik asten da Manuelen puntua, bi eta iru silabekin osatzen dana. Ta silaba oiek ez dira beti itz berarenak; bi ta iñoizka iru itzek ere osatzen dute alditan Lasarte'ren puntua.

Bañan aberatsa ez-ezik, ugaria ere bai. Lasarte'k ainbat puntu darabilen bertsolaririk, gutxitan agertu da Euskalerrian, ta aurrerantzean ere nekez agertuko.

Ta puntu berririk sortu ere bai. Alegia, bere aurreko bertsolariak iñoiz erabili gabeko puntuak, berak lenengo somatu, bildu ta sartu izan oi ditu bertsogintzan.

Orregatik, neurrian xuxen ta juxtu, puntuetan aberatsa, zalla, ugaria ta berri-zalea, oiek dituana, besterik gabe ere, ez da nolanaiko bertsolaria izango.

Bañan bertsoa ez da puntua ta neurria bakarrik. Barrengo muña ere bear du; zerbait esan bear du.

Poetak, batez ere erri-poetak, bertsolariak diran bezela, bi eginkizun izan oi dituzte: bata, erriari erakutsi; bestea, erriaren sentimentuak berenganatu, mamitu ta adierazi.

Xenpelarrek, *Iya guriak egin du* asten diran bertsuetan, erriari erakutsi egiten zion; erakutsi eta eskatu gerra-bidetik aldegin ta pake-bidean jarrai zezan. *Bala bat sartu buruan, aspertuko da orduan* eta abar zion, eta esaera oietako bakoitza oiua bat zuan;

eztarriko indar guziaz egiten zuan deadar bat. Zuzenbidea nundik nora zan erakusten zuan, Euskalerrriak entzungor egin bazion ere.

Lasarte'k ere badaki erakuspen ederrik ematen; bañan beste era batera. Onen bertsoetan ez dezute oiu ta deadarrik entzungo. Gozo ta legun zabaltzen du bere erakuspena, eta lore baten usaia bezin errez ta ezti sartzen zaigu.

Bigarren eginkizuna, erriaren sentipenak mami-tzea dala esan degu. Xenpelarrek, mutilzarren bertsoak jarri zituanean, erriak gizaki oien izakeraz eta bizimoduaz zer pentsatzen zuan adierazi zigun. Ontatik ere badu, asko gañera, gure Lasarte'k.

Edozein euskaldunek, ainbat aldiz pentsatu, sentitu ta itzez ongi jantzi ezin duana, bat-batean Lasarte'ren bertsoetan mamituta arkitzen du. Ain zuzen, Euskalerrri guziak gizon au maite badu, alde batez beintzat orretxegatik da: beraren pentsakizun eta sentipenen mamitzallea dalako; beraren ao ta mingaña dalako.

Ta ori dana, bai bertsoegintzan maixu ta bai erriaren erakusle ta eta onen sentimentuen agertzaille izatea, guzizko apaltasunean eta erreztasunean.

Lasarte, teatro askotan kantatu badu ere, sekula teatrorik egin gabeko gizona degu. Txapela buruan, eskuak patrikan eta begiak auskalo nora begira dituala, ia arpegiko zañik mugitu ere gabe, beti serio, bertsoak iturriari ura bezin errez ixurtzen zaizkio. Beste batzuek, bertsoetan ari dirala, beren buruko kurpil guziak lanean gogor ari dirala ezagun dute. Lasarte'ren muñak ere lan egingo dute noski; diximulu eder askoan, ordea. Entzuleak ez dio olakorik ezer somatuko. Bai; benetan gauza zalla da Lasarte'ren erreztasuna.

Era ortan, len esan bezela, amazazpi urterekin asita, ogei ta amar urtean plazaz plaza eta erriz erri

ibili. Iñori lan gaiztorik jarri nai bagenio, bat beintzat onako au agindu genezaioke: gure Manuel onek zenbat plazatan, lagunarte, teatro edo bazkaritan kantatu duan izendatu ta kontatzea; alegia, zenbat aldiz erria serbitu duan; edo-ta zenbat bertso atera diran ao ortatik. Puska bateko zer egiña emango genioke. Manuelek, ordea, kontatu edo izendatu ez; egin-egin du ori.

Ta, gañera, urte askoan erdi gaixorik. Erriaren-ganako maitasunak eraginda, or ibili da batera ta bestera, bere buruarentzat batere errukirik etzuala.

Bañan Euskalerrria gizon onekin zorretan baze-goan ere, ona gaur bere jaioterriak zor ori ordaindu. Orain arteko omenaldiak aundizkientzako egiten ziran. Orain arteko kale ta iduriak, geientsuenak beintzat, jauntxoentzat izaten ziran. Gaurko ontan, berriz, gizon xume bati ematen dizkiogu goralpen oiek danak.

Orain bi milla urte esan zan pobreak, umillak, otxanak, paketsuak, oiek izango zirala zorionekoak, Noizbait bear-ta, bide ortatik asiak gera. Gaurko festak ala adierazten digu. Ta lengoa baño zorion-bide ohea izango dala dudarik ez da. Bejondaiola, beraz, Euskalerrri guziari eta Leitzako erriari.



Bertso-paperak

(Donostian, Gipuzkoako Aurrezki Kutxaren aretoan, 1980-ko ilbeltzean egindako itzaldia.)

Bertso-paperak

Jaun-andreak: Bertso-papera da nere gaia. Edo bertso-papela, zenbait tokitan esaten zaioenez. Eta kanta-papera edo kanta-papela ere deitzen zaio. Alegia, bertso edo kanta-sortaren bat eskeintzen digun papera edo papela. Bañan beti ere paper askatua, sueltua. Eta inprentaz argitaratua.

Bertso-papera eta bertso-sailla

Ez dira, noski, gauza bera. Papera, esate baterako, ontzia da; eta bertso-sailla, ura. Papera gurdia da; sailla, gurdiak dakarrena. Bereizkuntza ori egin bearra zegoan. Bertso-saillak, izan ere, bertso-papera baño askoz zaaragoak baitira.

Ona zer dion Iztuetak bere *Gipuzkoako Probin-tziaren kondaira* liburuan:

“Denpora aetan eta geroztik ere oitura izandu da Gipuzkoan, partidu andi bat irabazitakoan itz-neurtuak ifin-tea, beretan adierazten dirala oso ta garbi, pillotariakin igarotako gertakari guztiak, ondorengoak ere gogoan izan zitzen,

aurreragokoak egindako azaña andiak, orain zernai gauzaren berriak paper moldizkidatuetan zabaltzen diraden bezela”.

Itz auek patxaraz eta astiro ausnartu bearrak dira. Itz neurtuak, bertsoak alegia, jarri egiten ziran. Zer ote zan bertso oien gaia? “Pillotariakin igarotako gertakari guztiak” esaten digu Iztueta-k, une orretan zekarren itz-bideak orrela agintzen ziolako. Bañan beste gairik ere izango zala dudarik ez da. Eta bertsoak zertarako jarri? “Ondorengoak ere gogoan izan zitzen aurreragokoak egindako azaña andiak”.

“Gogoan” esan du. Jendearen gogoa beste gordelekurik etzuan artean bertsoak. Alegia, bertso-saillik bazan, bañan bertso-paperik ez.

Ondoren, “zernai gauzaren berriak paper moldizkidatuetan zabaltzen” diradela esaten digu Iztueta’k. Bertso-papera jaio eta asia zala adierazten du itz oiekin.

Gure erri-literatura erabat aozkoa izan zan, bezaz, antziñako garai batean. Urte asko iraun zuan egoera orretan. Bañan, aozkoa izanik, ezer gutxi irixi da guregana. Pena ematen du, bañan alaxe da. Aintzakotzat etzuten agidanean gure aurrekoak artu.

Ondoren bertso-papera etorri zan. Gure erri-literaturak iñoiz pauso garrantzitsurik eman badu, orixe emango zuan.

Erri-literatura geienetan berdin gertatu da. Aozkoak izan ziran asiera batean, eta paperera gero pasa. Batzuek lenago, besteak geroago eman zuten pauso ori. Gureak, damurik, naiko berandu.

Erromantzeak eta beste

Galdera bat egin bearrean gaude orain. Gure erri-literatura edo poesia oso-osorik sartu al zan bide berrian? Ez. Aren atal batzuk kanpoan gelditu ziran, ez beren eta ez gure onerako.

Atal oietan aitagarriena erromantzea degu, Bertsolarien teknika eta bertso gintzarekin zer ikusirik ez duan poesia. Olakoak dituzute, adibidez, *Berterretxen kantoria*, *Atarratz jauregian*, *Brodatzen ari nintzen*, *Arantzazu'ko* eta *Arrate'ko* kanta zaarrak eta abar.

Poesia-mota oni erromantzea deitu diote Azkue, Aita Donosti, Lekuona eta beste zenbait idazlek. Guk ere berdin esango diogu.

Ezagutzen ditugun erromantzerik geienak erriaren aotik jasoak dira; edo-ta esku-idatziren batean arkituak. Bañan, oker ez banago, paperetan inprentatu eta zabalduko erromantzerik ez dago. Izatekotan ere, bat edo bi geienaz.

Erromantze zaar oiek bilduta dauzkat. Inprentarako prestatzen ari naiz, danak liburu batean argitaratzeko. Dagoana jendearen eskuetan jarri beste asmorik ez det, oraingoz beintzat. Lenengo pausoa ori baita. Bearbada, gure poesiaren puskarik balio-tsuen erromantzeak ditugu. Batzuk ezagunak dira; beste batzuk ez. Ezagun oietan, Jaurgain, Azkue, Aita Donosti, Aitzol eta beste zenbait gizonen bildutakoak daude. Jendeak uste baño mordo aundiagoa osatzen dute.

Oiek danak Iztueta il ondoren jasoak dira. Orregatik, Iztueta'ren denboran, eta leenago ere, alegia bertso berriak paperetan zabaltzen asi ziranean, zenbat eta zenbat erromantze ez ote zan ibiliko erriaren aotan? Asko, dudarik gabe.

Ala ere, oietakorik etzan bakar bat ere paperetan

argitaratu. Gordeleku zaarretik gordeleku berrira pasa gabe, jendearen gogoan gelditu ziran erromantzeak, eta jendearekin batera betiko joan ere bai asko eta asko. Zergatik ez ote zuan poesia-mota onek pauso ori eman? Bearbada, zaartzat zeukan ordurako ere jendeak, eta bazterrera utzi zuan.

Erromantzeak etzuan, beraz, bide berririk artu; bañan bertso berriak bai. Besterik gabe, bat auldu eta bestea indartu egingo ziran leenaz gañera. Bat beera eta bestea gora asi. Bat ondamendira eta bestea bere egunik argitsuenak ikustera abiatu.

Berdin esan genezake beste poesia-mota askorengatik ere. Adibidez, kopla zaarrak, errondakoak, trikiti-dantzarakoak, aur-kantak, seaskakoak eta beste asko eta asko. Auek oso gutxitan atera izan dira bertso-paperetan. Azkue'ren kantutegia artu besterik ez dago. Kantu asko dago or bertso berriekin zer ikusirik gutxi edo batere ez duana. Bañan oiek etzuten kanta-paperetarako biderik ikasi.

Paperetako bertsoak

Oartu egingo ziñatenez, bertso-paperetan zer ez dagoan adierazi degu orain artean. Emendik aurrera, paperetako bertso oiek zer diran esango degu.

Bertsolaria, dakizutenez, bi modutara saiatzen da. Bata, aotik aora kantatuz. Bat-batean bertsoa buruan osatu eta denbora berean kantuaren bidez jendearen belarrietara eldu arazi. Bertso auek ez ditu iñork gogoan ar ditzan moldatzen, garai batean banaka batzuk, onenak noski, ala gelditzen baziran ere; eta gaurko egunean, magnetofonoaren bidez, danak jaso eta gorde baditezke ere.

Bigarren modua, jendearen gogoan geldi ditezten bertsoak jarri edo paratu. Irauteko bertsoak dira

aukek. Intentzio orrekin egiñak. Garai batean, esan degunez, jendearen gogoia edo oroimena beste gordelekurik etzeukaten, eta ondoren paperetan gordeleku seguruagoa arkitu zuten.

Bertsolariak bertsoa berdin egiten du, teknikaren aldetik beintzat, modu batera edo bestera ari danean. Bigarrenengo onetan pentsatzeko nai aiña denbora ardezakela. Beste diferentzirik ez dago. Orretxegatik, bertsomota zaillagorik ere askotan erabiliko du.

Bertsolariak bertsoa nola moldatzen duan ez degu esango; puntuak, neurria, bertso-motak, metrika eta abar zer diran alegia.

Gaiak

Bertso-saillak inprentatzen asi baño leen zer gai erabiltzen ziran ez dakigu. Iztueta'k diona bakarrik: "aurreragokoak egindako azaña andiak".

Emendik aurrera alde bat utziko ditugu oiek, eta berdintzat artuko ditugu bertso-sailla eta bertso-papera. Itz oiek sinonimoak balira bezela. Eta bertso-paperak zer gai erabiltzen zituzten, zerbait adieraz dezagun.

Erlijioak garai aietan gaur baño indar geiago zuala gauza jakiña da. Orregatik, erlijioa askotan artu izan dute gaitzat bertsolariak: fedeko egiak, erriko mixioak, gabon-kantak, santuen bizitzak eta abar.

Gure erria oso apustu-zalea da. Zer arriturik ez du izango, beraz, euskal jokoak bertsoetan maiz xamar agertzen badira: estropadak, aizkora, sega, arri-jasotzea, pelota eta abar.

Lana ere kantatu du bertso-paperak: nekazari-tza, artzantza, arrantza, fabriketako langintza eta abar.

Amodiozko bertsoak ere bada. Batez ere Bidasoa'z arunzko aldean, alde ontan Bilintx paregabea degularik. Neskak mutillari despeira ematen zionean, onek bertso ederrik jarriko zion. Senar-emaztearenak ere badira: mutil zar eta neskaarenak ere bai.

Ameriketako bidea urez dalako; bestela, arrasto eder-sakona irikia izango zuten euskaldunak, beren arako joeran. Bañan uretan egin etzutena, erri-literaturan egiña dute. Euskal indianoak ere bertso asko dutela esan nai det.

Soldaduska kunplitu bearra ere etorri zitzairen gure mutillei. Orrekin gai berria izan zuten bertso-gintzarako.

Zoritxarreko gerrak ere sortu ziran. Bertsoak gabe nola utzi? *Guerra de la Convención* deritzaionari buruz bada zerbait. Frantzestea etorri zan urrengo; gerra oni jarritako bertsoekin liburu osoa dedalakoan nago¹. *Guerra realista* deritzaionak bertso gutxi utzi zuan. Karlisten leenengoa bertso-tan ugaria izan zan². Afrika'ko gerra zaarraren bertsoekin liburu bat atera berria det³. Bañan karlisten bigarrena degu bertso-tan aberatsena. Ondoren, Kuba'koa, Afrika'koa eta 36'koa. Bertso-tan pobrea degu azkeneko au.

Zergatik ote errez soma genezake. Gerra guzietan tiroka ez-ezik, propagandaren burruka ere egin bearra dago. Karlisten gerrate orren denboran, artean emengo jendeak erdera gutxi zekian eta periodikorik eta olakorik nekez sartuko zan euskal sukaldeetan.

¹ Ikus: *Frantzesteko bertsoak I eta II, Auspoa 212 eta 213, 1991.*

² Ikus: *Karlisten leenengo gerrateko bertsoak, Auspoaren Sail Nagusia 4, 1992.*

³ Ikus: *Afrika'ko gerra (1859-1960), Auspoa 129, 1977.*

Orregatik, bertso-paper argitaratzeari ekin zioten bai alde batekoak eta bai bestekoak. Jendearen gogo irabazteko biderik egokiena zala igerri baitzioten. Azkeneko gerratean, berriz, periodikoa eta radioa indarrean zeuden, jendeak ere erderaz bazekian, eta bertso-paperen bearrik etzegoan.

Bidasoa'z beste aldeko euskaldunak ere gerrara joan bearra izan zuten bein baño geiagotan. Bertsorik jarri ere bai: Solferino'ko gerra, Sebastopol'ekoa, 14'koa, 39'koa eta abar. Bertсотan ugariena 14'koa izango da. Mutillik geiena galdu zuana ere bai.

Gai-zerrenda osoa ez degu egin. Orretarako denbora geiago beariko genduke. Bañan besterik gabe ere, gain-begiratu orrekin bakarrik alegia, argi ta garbi azaltzen da bertso-paperetan gure erriaren kondaira degula; gure erriaren istoria, gure erriak berak kontatua.

Kondaira osoa ez noski. Alde batetik, gure kondairak badu bertso-paperetan erabili ez dan alderdik ere. Bestetik, beren denborako ez dan gertakariarik ez dute bertso-paperak ikuitzen. Muga oiek kontuan artu bear dira, beraz.

Orregatik, gure erriaren kondaira osorik bertso-paperak ez dute. Bañan iñork ere ez du gure erriaren kondaira osorik idatziko, bertso-paperen lagun-tzarik gabe.

Bertso-paperaren asiera

Bertso-papera noiz jaio ote zan? Alegia, bertso-saillak noiz asi ote ziran paperetan argitaratzen? Galdera zailla degu au.

Bilbo'n, XVIII mendearen bukaeran eta XIX-aren asieran, gabon-kanta batzuk atera ziran paperetan.

Donostia'n ere bai beste zenbait gabon-kanta, Etxagarai'renak-eta, XIX mendearen asieran.

Karlos III il zanean ere, kanta-paper bat argitaratu zan.

Kanta-paper oietan, Etxagarai'renak dira erri-kutsurik geiena dutenak. Bañan danak ere gizon ikasiak jarriak dira. Ez dira, beraz, bertso-paperak; bertso-paper jatorra izateko bertsolari jator baten bertsoak bear dira ta.

Gure iritzirako, jende eskolatuak ekin zion bertsoak paperetan inprentatzeari eta zabaltzeari. Eta erria, bide egokia zala ikusita, berdin egiten asi zan.

Iztueta'k bere *Gipuzkoako probintziaren kondaira* idatzi zuanean, bertso-papera sasoi betean omen zegoan. Karlisten leenengo gerratean ere, bertso-paper asko atera zan. Orregatik, XVIII mendearen bukaeran sortuko zan bearbada bertso-papera, bañan joan dan mendearen asieran indartu. Eta gerrak ziralata, etzuan berak kalterik izan.

Gutxi gora-beera, esan degun bezela gertatuko zan. Bañan arazo au azterketa sakon baten zai dago oraindik.

Egilleak

Bertso-paperaren jaiotza edo asiera noiztsu izan zan ikusi degun ezkerro, bertso-paperak geroztik korritu duan bidea aztertu bear degu orain; aren bizitza zer izan dan pausorik pauso jarraitu.

Bertsoen egillea bertsolariren bat izaten zan. Xenpelar, Txirrita, Pello Errota, Lexo, Altzo'ko Imaz, Donostia'ko Fermin Imaz, Mendaro Txirristaka, Zubizarreta, Iturzaeta eta abar eta abar bertso-jartzaille ugariak izan ziran.

Zerk mugitzen ote zituan bertso-gintzara? Ori

ikusteko, bertsolari baten jokaera ikertzea izango degu biderik onena. Xenpelarrekin egingo degu ori.

San Joseren Zazpi Doloreen bertsoak jarri zituan, berak aitortzen du zerk bultzatu duan: “Dibertsio polit bat buruan det pasa, iruritzen zat dala txit ondo dan gauza...”. Beste sail batzuk, *Oiartzungo neskatxen bentajak*, *Albaka batengatik*, *Agedarenak* eta abar ezkongaitan jarriak izango ditu. Pasai’ko zezenarenak, berriz, ango festetara joan eta gertatutako komeriaren berri ematearren, aztu ez dedin: “Pasaiako kontuba errez da aztutzen, paperian ez bada ongi apuntatzen”.

Burnibidea egitera frantzesak azaldu ziranean, aien oiturak oso zebreak iduritu zitzaizkion Xenpelarri, eta bertsorik jarri gabe ezin ba gelditu: “Frantzesaren ideak beti aldrebes...”.

Urte batez, “Asentzioz zan erromeri bat ermita txiki batian”; eta, an zebilela, “bi damatxo an ikusi ditut ezin pasarik atian”; eta bertsoatarako gai polita iduritu: “dibertsiyo bat jartzera nua gazte jendien artian”.

Mutilzaarrenak, berriz, “gaztien konsolagarri” jarri zituan. Eta betroiarenak, lagun baten gertaera kontatzearren.

Erljio-bertsoak ere gogoko zituan. Santa Barbararen bizitza “ejenplo ori aditu faltan inor ez dedien galdu” paratu zuan. Konfesioarenak, “geren animaz oroi gaitezen, eztu galtzerik merezi” eta. Berriotoarenak, martiria il da andik sei urtera, gurasoak artean bizi zirala.

Beste batean, abenduaren lendabizian zazpiretako mezetara joan, sermoi eder bat entzun eta azken juizioko bertso famatuak orduantxe jaio ziran.

1867-garrenean zan ori. Artean Euskalerra pakean zan. Fueroak ere zutik. Bañan urrengo urtean, Isabel II kanpora bota zutenean, lengo egoera erabat

aldatu zan. Fueroak, erlijioa, pakea eta Euskalerrria une txarrean ikusten zituan Xenpelarrek. Eta bertso jartzeari ekin zion: “Sostenitu ditzagun lengo fuero zarrak”, “guk pakia nai degu, ez gerrarik emen”...

Gerrarako prestamenak ere asi ziran, Indarke-riaren aurkako bertso famatu aiek orduan jarri zituan: “Gerra nai duben guzia, berari kendu bizia”, “ez naiz ni gerraren zale, baizik pakearen alde”, “ez da errez ibiltzen anaiak alkar iltzen”...

Ez du ematen Xenpelarrek bertso-rik enkarguz jarri zuanik. Artarako gogoia eta gaia berari sortzen zitzaizkion. Bizitzak zer erakusten zion eta zertaz kezka arazten zuan, arixe bertsoak eskeñi. Bere bertso-paperak jendeak arrapazka eramaten zituala ikusita, orduan eta gogo geiagoz ekingo zion lan orri.

Beraz, batzuetan beintzat, bertsolariak zer sentitzen duan, uraxe azaltzen du bertsoan. Barrengo sentimentuak gañez egin eta bertsoaren bidez kanpora atera. Poetarik jatorrenak ez dute bestela egin. Onelako esaerak askotan irakurtzen dira bertsoetan: “Nere biotz gaxua eskaka ari zat, bertso bi ipintzeko baldin baderitzat”; “desiatua negon asteko bertso batzuek ipintzen, naitare ixilik egoterikan barrenak etzun agintzen”. Edo “biotza al baneza kantuz deskantsatu”.

Bañan beste batzuetan iñoren enkarguz jartzen ziran bertsoak. Ori ere aitortzen dute bertsolariak: “Bertso berriak ezarritzeko eman dirate ordena”; “bertso batzuek ateratzeko enkargua det emana”...

Bein esatearekin aski izaten dute orretarako. Bañan bertso-paper batean iru bertso betetzen ditu bertsolariak, enkargua nola eman zioten adierazi bearez. Onela dio:

Elurra mara-mara
ari zan lenguan,

zerbait irakurriyaz
etxean nenguan;
atia jo zidaten
austeko moduan,
beriala joan nintzan
zer ote genduan.

Atia irikiyaz
begiratutzian,
mutil gazte bat neukan
begiyen aurrian.
“Gabon Jainkuak” ziyon
irrifar antzian,
orduban sartu giñan
gu biyok etxian.

Berak esaten ziran
enteratu zala
bertsuak antolatzen
iaiua nitzala;
neska batekin zerbait
izandu zuala,
noski bertso batzubek
jarriko nizekela.

Beren gogoz moldatutako bertso-sailik ere badute noski; bañan enkarguz ere asko saiatu ziran, adibide bat jartzeko, Txirrita eta Pello Errota. Ori zala bide, gertaera gogoangarri asko gertatu oi ziran, serioak batzuk, parregarriak besteak. Aal ditugun guziak bildu eta bertso-sail bakoitzaren aurrean jartzen ditugu *Auspoa* Liburutegiaren aleetan.

Ona, adibidez, Pello Errotaren alabak zer esan zingun bere aitaren bertso batzuei buruz:

“Lengusu-ezkontza egin omen zuten. Biak apellidu batekoak ziran, Naparro’koak.

Aitak alabari esaten omen zion irurogei ontzako dotea

emango ziola, ta arrio *sufizientea* ere bai.

Ala, ezkontza tratatu zuten, bañan gero alargun zar batek –aberatsa omen zan ura– neskatxa pretenditu zuan.

Neskatxa bera joan omen zitzaion mutillari esatera:

– Orrek pretenditu nau, baña ni ez nua agure zar ori ar-
tzera.

Bañan denbora asko baño len, mutillak berriz ere aditu zuen zerbait bazebilkitela, ta neskatxagana joanda onela esan zion:

– Nik ola ta ola aditu det, ba, neskatxa.

Ta neskek, malkoa zeriola, agure zar arekin ezkontza zerratua zutela aitortu zion.

Orduan mutilla gure etxera etorri zan kantak jartzera. Oiek ere nik eskribituak dira. Ni ezkondu baño lenago eskribituak dira, ta ez dira oraingoxeak.

Kanta-paperak inprentatu ta zabaldu ondoren, agurea bera etorri zan gure etxera. *Biziki* izengoitia zuan. Agure xar txiki-txiki anka-okar bat zan. Ala esan zion gure aitari:

– Nik bertsozik merezi al nuan?

– Nere enplua orixe da ta orregatik jarri nituan.

– Nik, palta nuan bezela, andregaia pretenditu nuan.

– Ta ez al zenekin neskatxa len itza emana zala, ta alakoa ez dala pretenditu bear?

– Ba, orain nere alde jarri itzazu.

Bañan gure aitak etzion agindu, ta mutillagana joan zan. Zein da nola etorri zitzaion kontatuta, ia zer egin bear zuan galdetu zion.

Mutilla bertso-jartzea zenbat kostatzen zan zekiena zan noski -bost durokoren bat-edo-, ta ez jartzeagatik beste orrenbeste eman zion.

Beraz, bein jarri ta bi jornal kobratuta, etzan asarre gure aita”.

Pellori beraren alaba Mikelak egiten zion sekretariotza. Bertsoak paperean idatzi alegia. Eta andik urteetara, larogei ta amairu zituala, alaba orrek berak ezagutuko zituan berak aitari kopiatutako bertsoak.

Txirritarekin ere berdintsu gertatuko zan. Onek ere bertso asko jarri zituan enkarguz. Illobak egiten zion sekretariotza. Pellok bost duro kobratzen zuan; Txirritak amar, eta duro bat illobari eman, beraren lana pagatzeko. Txeetasun auek danak illoba orrek,

Jose Ramon Erauskin Lujanbio'k, kontatuta ikasi ditugu, eta Txirritaren liburuetan or daude.

Bertso auetan etzuan bertsolariak bere izenik jartzen. Inñoren izenik gabe edo enkargua ematen zuanaren izenean agertzen ziran. Pello Errota eta Txirritarekin, alaba eta illoba izan dira salatzaileak. Bestela, umezurtz gelditu bearrak zeuden aien bertso asko, beste askorenak gelditu diran bezela.

Moldiztegiak

Bertsolaria, edo bertsoak enkargatzen zituana, inprentara joaten zan urrena, bertso-paperak argitarara araztera. Bosteun, milla edo bi milla egingo zituzten; berak zerizkionak noski.

Inprenta oiek batzuetan beren izena jartzen zuten; besteetan ez.

Donostia'n oso ezagunak izan ziran: "*Imp. de A. Pozo y Comp.^a – Andia, 2*", "*Donostiyan: Juan Osés-en moldizteguiyan*"; "*V. Iraola'ren litografiyan*"; "*Imp. Baroja San Sebastián*" edo "*Donostian: J. Baroja eta semeen moldizteguiyan*".

Ez dakigu nork sortua dan *moldiztegi* itz ori inprenta esateko. Bañan bertso-argitaratzaile etxeak sarri erabili zuten. Nik ere orrela idazten det. Bertso-paperetan agertzen dan itza izanik, nik ere ontzat artu bear nuala dudarik ez da.

Tolosan iru etxe, iru moldiztegi izan ziran. Oietako batek lau izen erabili zituan: *Juan Ignazio Mendizabal* lenengo; *Mendizabal'en* alarguna urrengo; *Eusebio Lopez* ondoren; eta, azkenik, *Lopez-Mendizabal*. Isaak Lopez-Mendizabal jauna zanaren moldiztegia zala esan bearrik ez dago. Beste etxe bat Gurrutxaga'rena izan zan; eta irugarrena, Mugertza'rena.

Errepublikadenboran, bañan lentxeago asita,

Errenteriko Makazaga etxeak bertso-paper asko atera zituan. Etxe onetaz geroxeago ere izango degu zer esana.

Nere iritzirako, bertso-paperik geien argitaratu duten erriak iru auek dira: Donosti, Tolosa eta Errenteria.

Bañan argitaratzaille etxerik ere bazan bestetan ere. Bergaran Matxain'ena, Xenpelarren denboran. Azpeitia'n, Martinez'ena. Irun'en, Valverde'ren etxea. Eibar'en, Orue eta Diego, bi etxe. Zarautz'en, Itxaropena eta Elustondo. Bizkaian, Durango'ko Elosu eta Gernika'ko Egurrola eta Goitia.

Iñork usteko etzuan errietan ere argitaratu izan dira bertso-paperak. Adibidez: *“Portugalete: Imp. de M. P. Escartin”*. Baita Iruñen ere: *“Bengaray impresor - Pamplona”*. Baita Buenos Aires'en ere: *Tipo. Lito. La Nueva Central - Piedad 1.041”*.

Eta izendatu ez degunik ere izango da noski.

Bertso-paper biltzeari ekin nionean, etxe oietara ere joan nintzan noski. Danetara ez noski, segitzen ez baitute. Bañan Errenteri'ko Makazaga'renean paper mordo bat utzi zidaten kopiatzeko, eta beste zenbait paper eman ere bai. Donostia'ko Baroja'renean oso mordo polita jaso nuan, bertako nagusi Joakin Muñoz-Baroja zanaren eskutik.

Tolosa'ko Lopez-Mendizabal'darrak artean Ameriketara zeuden, gerran aldegiñak, eta eskutitz bat zuzendu nion Isaak zanari. Erantzun zidanez, bertso-paper pilla ederra gordetzen zan bere etxean; bañan gerra-denboran dan-dana galdua izango zala uste zuan. Nik alegiña egin nuan ala ere galdezka eta abar. Bañan etzan ezer ere azaldu.

Tolosa'ko Mugertza eta Gurrutxaga'ren ondorengoekin ere izan nintzan; bañan ezer ere etzutela esan zidaten.

Dударик gabe, Euskalerriko inprentaren kondai-

rak eta bertso-paperen kondairak zer ikusirik asko izango dute alkarrekin. Etziran batera asiko. Moldiztegiak lenagokoak izango dira noski. Bañan auek jarri eta andik zenbait urtetara asiko ziran bertso-paperak. Izan ere, moldiztegirik gabe bertso-paperik ez baita. Gai ori nik ez det, orain artean beintzat, batera jorratu. Bañan azterketa-bide eder bat badago or, dudarik gabe, iñork lan orri ekin nai badio.

Bertso-paperen zabalketa

Moldiztegiak bere lana egindakoan, berriz azaldu eta eraman egiten zituan leen enkargu orrekin etorri zanak. Batzuetan, saltzen jarri gabe zabaltzen ziran. Gertaera zelebrikerik izaten zan.

Erri batean, gabaz etxez etxe ibili ziran, ateetan paper bana itsatsiz. Edo baserri-atarietan arri koxkor baten azpian utzi, aizeak eraman etzezan. Edo ta bide-gurutzetan meza nagusiaren denboran, jendeak etxerakoan jaso zitzan.

Bañan geienetan saldu egiten ziran. Itxuak saltzaille saiatuak izan ziran, nola edo ala bizimodua atera bear baitzuten. Kastilla aldean ere gauza bera zan. Orregatik esan oi zaie kanta-paperetako bertsoei *coplas de ciego*. Oso ezagunak izan ziran Euskalerrian Segura'ko eta Ezkio'ko itxuak. Baita Asteasu'koak ere.

Txirrita bera ere ibili izan zan bertso-paperak saltzen. 1912-garrengo galernari jarritako bertsoak, bi egilleak, Fermin Imaz eta Txirritak, saldu zituzten, Errenteria'n beintzat, igande-goiz batez eliz-atarian kantari asita.

Beste batean, Txirrita Irun'en asi zan bertso saltzen. Neska bati jarritakoak ziran, eta erretoreari ezin ba gustatu. Txirritagana joan, zeukan paper

mordoak zenbat balio zuan galdetu, Txirritak esan, erretoreak pagatu eta eramán egin zuan, orrekin festa bukatua zala pentsatuz. Bañan Txirrita berriz ere inprentara joan zan, sail ura osterá inprentatu arazi zuan eta urrengo igandean an zan berriz ere Irun'en, bertsoak saltzen.

Saltzeko denboran, saltzaillea kale-kantoi batean jarri eta kantari asten zan. Eztarri oneko gizona bear zuan, beraz. Periak eta merkatuak, festak eta erromeriak izaten ziran egokierarik onenak. Jende asko bilduko zan tokia eta eguna, alegia. Entzule mordoá inguratuko zitzaion saltzailleari. Batzuek bereala erosiko zuten. Beste batzuk, irakurtzen jakin ez eta papera aientzat balio etzualako, edo-ta dirurik ez eta pagatu ezin zutelako, an egoten ziran, memoria erne, saltzaillearen kantuari adi-adi, sail guzia buruz ikasi artean.

Ondoren, etxerakoan, asto gañean edo gurdi gañean bazijoazen beintzat, erositako paperaren bertsoak kantatuz egingo zuten bidea. Etxera ordurako buruz ikasi ere bai bertso guziak edo geienak. Iritxitakoan, batedonbat izango zuten bertso eske.

Bañan alperrikako jardunean ari naizela iduritzen zait. Bertso-saltzaillea zer zan, iñork baño obeto adierazi du Uztapidek bere *Lengo egunak gogoan* liburuan. Iru bertso saltzailleen berri ematen digu: Orio'ko *Exkela*, Asteasu'ko *Aranburu-berri* eta Bizkaiko *Besamotza*.

Onela ematen dio asiera bere liburuaren atal orri: "Nere bertsoarako afizioa zertatik etorria zan esan bear dizutet". Iru saltzaille oietzaz mintzatzen da ondoren, eta bukaeran aitopen au egiten du: "Bertsotarako gure afizioa oietatitxek izan zan. Aitak, perira joan da ekarriko zituan papelak eta guri ematen zizkigun. Ta guk artu eta bai ikasi ere aguro. Etzan pakerik izaten dana ikasi arte. Buruan artu ere bai orduan. Gaur ez degu balio ortarako ere".

Bertso-bildumak

Bertso-paperak erruz argitaratzen ziran Euskalerrian. Ugaritasun ori ikusita, bilduma egin bear zala bati baño geiagori bururatu zitzaion.

Oietako bat, Bonaparte Printzipea degu. Bera il eta liburutegia salgai jarri zanean, Azkue'k dirua lortu eta esku-idatziak erosi zituan. Bañan bertso-paperak, inprentatuak izaki eta Chicago'ra joan ziran. Oso bilduma ederra eta ugaria da. Makiña bat bertso-sail atera ditugu ortik gure liburuetarako, eta beste batzuk txandaren zai daude.

Bonaparte'k bere bilduma ori nola egin zuan, ez det uste iñon esaten danik. Bañan Pio Baroja idazleak, *Desde la última vuelta del camino* liburuan, *Familia, infancia y juventud* zatian, onela dio: "*En la imprenta de mi casa, mi padre conoció al príncipe Luis Luciano Bonaparte, gran vascófilo, a quien regaló una colección de canciones vascas...*".

Bertso-paperak, seguru aski.

Beste bilduma bat Chaho'k asi eta Lacombe'k osatu zuan, eta gaur Telesforo Monzon-Olaso'ren etxean dago. Beste bat D'Abbadie'rena, gaur Paris'en dagoana.

Jose Manterola'k ere oso bilduma ederra lortu zuan. Urtea ere ezarri zion: 1877. Donostia'n eta urte oietan osatutako bilduma izanik, karlisten bigarren gerrateko paperetan oso aberatsa da; bañan liberalak jarritako paperak noski.

Ederra da, baita ere, Aita Jose Inazio Arana'k osatu zuana. Gaur Loiola'n gordetzen da. Arantzazu'ko liburutegian dutena ere ez da makala. Gregorio Mujika zana ere gogotik saiatu zan. Bilduma lodia baita ere Tolosa'ko Manuel Urreta zarena. Bai Errenteri'ko Enrike Elizetxea'rena ere. Bai Usurbil'ko Egiluze-txiki baserrikoa ere. Baita

Don Manuel Lekuona'rena ere. Iruñe'n oso bilduma gogoangarria arkitu nuan, *Barón de Montevilla* zarenaren paperetan. Onek gai jakiña du: karlisten gerateetako bertsoak.

Nik ere nere alegiña egin det. Etxe batean paper pare bat, bestean paper bakarra, pixkanaka eta urteen buruan, bilduma ederra osatu det. Etzidaten beti papera neretzat ematen. Olakoetan fotokopia edo mikrofilma atera bear. Ala ere, lantegi onetan asi nintzanean, ez nuan iñola ere pentsatzen ainbesteko pillarik osatuko nuanik. *Auspoa* Liburutegiak liburu-mordoska aterea badu ere, beste orrenbeste badago oraindik argitaratzeko, bertso zarretan bakarrik.

Bañan nik nere bilduma ez det bukatutzat jotzen. Biltzeari jarraitzen diot. Gero eta paper gutxiago azaltzen da bazterretan. Ala ere, iñork zerbait bialdu nai badu, ni jasotzeko prest nagoala esan bearrik ez dago. Izan ere, bertso-paperen artxiboa egin bearra zegoan. Neri egokitu zait eginkizun ori. Orain, azterketa eta argitaraketa egin bitartean, nik erabiliko det. Bañan artxibo ori Euskalerrriaren bertso-paper artxiboa izango da egunen batean.

Gauza batek beti arritu nau. Azkue'k bere *Cancionero popular vasco* prestatu zuanean, oso garai ona zan bertso-paperak biltzeko. Askotan, bere kantutegi orretan bertso-doñuak agertzen ditu. Orreगतिक, nere lantegi onetan asi nintzanean, Azkue'ren liburutegian bertso-paperik ba ote zan galdetu nuan. Ezetz erantzun zidaten. Geroztik neronek ere ikusi izan det aren liburutegia, eta bertso-paperik ez da agertu, bat edo beste izan ezik. Bilduma eder bat egiteko egokiera galdu zan orduan. Zergatik ori? Azkue'k doñua maitegoa zualako, letra baño. Bertsoengatik edo kantuen letrगतिक askotan bere kantutegi orretan zer esaten duan, geienok irakurria

izango dezute. Ez ditu geiegi famatzen. Bertsoak maite izan balitu, bertso-paperak ere bilduko zituan. Onek, ala ere, ezer gutxi kentzen dio Azkue'ren aunditasunari. Akatsik gabeko gizonik ez da oraindano sortu. Bere akats ori ta guzi, ura zer gizon izan zan oraindik ere jabetu ez geralakoan nago.

Aita Donostik bertso-paper batzuk bildu zituan; bañan geiegi ere ez.

Bertso-paper asko biltzeko beste egokiera errepublika-denboran galdu zan. Don Manuel Lekuona'k, 1930-garrenean, Bergara'n, gure erri-poesiaren *apologia* egin zuanean, Aitzol zana, Don Manuelek berak arestian esan duanez, txundituta gelditu zan. Aitzolek euskeraren salbazioa olerkariak ekarriko zutela uste omen zuan. Itzaldi ori entzundakoan, bertsolariak euskeraren salbatzaille seguruagoak juzkatu zituan, eta bertso biltzeari ekin zion. Aren bilduma aztertu degu. Bañan, kriterioaren faltaz, etzuan zuzenbidetik jo. Ara zergatik.

Aitzolen bilduman ez da bertso-paperik agertu. Bat edo bi geienaz ere. An dauden bertsoak, geien-geienak, erriaren aotik jasoak dira. Bertso on asko dago; beste inun agertzen ez diran bertso asko ere bai. Bañan, itxura danez, etzan oartu bertsoak bazutela beste gordeleku bat ere: bertso-papera. Olakorik etzuan agidanean eskatu, eta bialdu ere etzioten egin. Askotan, bertso-paperetan sail osoa errez arkitu zitekean bitartean, berari erdia edo laurdena bialtzen zioten, inork buruz zekizkian bezela jasota. Ala ere, berriz esango det: egin zezakean guzia egin ez bazuan ere, eta bertso-paperik ez badu ere, bilduma aundia da; bertso-bildumarik aundienetako bat.

Gerra aurrean, Bilbo'ko *Euzkadi* egunkariak, *Euzko-Erri Yakintza* izeneko sailla sortu zuan. Bertsoak argitaratzen zituan. Bañan beti ere inoren

aotik jasotakoak. Ez det uste onek ere bertso-paperik eskatu zuanik. Ala ere, lan ederra egin zuan.

Argia astekarian ere bertso asko atera zan. Onek bai; onek bertso-paperik eskatzen omen zuan; eta baserritarrak-eta pilla ederrik bialdu ere bai. Bañan gerra sortu zanean, paper oiek danak galdu egin ziran.

Gerrak bertso-paper asko galdu zuan. Bildurra zabaldu zan, eta erretzeari ekin zioten geienak. Beste batzuek gordetzeari, baratzan edo aal zuten tokian. Bañan oietatik ere asko galdu ziran.

Galdera egin genezake orain: zenbat bertso salbatu da? Zenbat galdu da? Itz bakarrarekin erantzungo degu: asko. Asko salbatu da eta asko galdu da.

Zer salbatu dan, zerbait adierazi degu. Zer galdu dan, itz bitan zerbait esango degu.

Auspoa'ren liburuak iñork eskuan artzen baditu, onelakoak maiz irakurriko ditu: "Bertsolari onek beste bertso-sail bat ere jarri zion onelako gaiari; bañan bertso bakarra bildu aal izan degu. Edo bertso pare bat. Bertso-sail ori, dudarik gabe, paperetan atera ta zabalduko zan; bañan paper oietatik ez da ale bakar bat ere gure eskuetaraño iritxi".

Alegia, ari-muturra badegu, bañan matazarik ez da agertu. Lumaren bat eskuan gelditu zaigu, bañan txoriak alde egin digu.

Beste askotan, berriz, ari-muturra ere galdua izango degu. Ori sarritan gertatuko zala dudarik ez da.

Beste batzuetan, berriz, paperik agertu ez bada ere, ia bertso guziak salbatu dira. Zenbait aldiz, esku-idatzietan, bertso-kuadernoetan, gorde diralako. Edo bestela, eta au da arrigarriena, norbaitek gogoan eutsi dielako.

Aldizkariak eta liburua

Bertsoak, esan bezela, jendearen gogoia beste gordelekurik etzuan asiera batean. Ondoren, papere-tara pasa zan. Bañan etzan or gelditu. Urrengo pau-soa aldizkarietara egin zuan.

Euskal-Erria aldizkaria 1880 urtean sortu zan. Baita bertsoei leku ematen bereala asi ere. Berdin egin zuten *Euskalzale*, *Ibaizabal*, Donostia'ko *Base-rritarra*, *Eskualduna*, *Gure Herria* eta beste zenbait agerkarik. Beste iñun azaltzen ez diran bertsoak, aldizkari oietan arkitu ditugu.

Pello Maria Otaño'k iru bertso-liburu atera zituan gutxienez: *Zerbait*, *Alkar* eta *Lora*. Bañan liburue-tara pasatzea edo sartzea geroago egingo zuan eus-kal bertsoak.

Makazaga moldiztegiak, 1931'eko Agorrillaren 20'an, *Bertsolariya* izeneko astekariari asiera eman zion. Urtebete iraungo zuan. Astekari orretan, le-engo bertsolari zaarren bertso zaarrak eta ordukoen berriak argitaratzen ziran. Ateratzeari utzi zionean, azal eder batzuk banatu zituan, iñork ale guziak gordeta baldin bazituan, enkuadernatu eta liburu mardul-dotorea egin zezan. Askok egin zuten. Eta *Bertsolariya* ori baserri askotan arkitzen da gaur egunean ere.

Urterik ez dakit. Bañan Bidasoa'z beste aldean, bertso-bilduma polit bat osatu eta argitara eman zuan Goyenetze apez jaunak. *Eskualdun Kantaria* ezarri zion izena. Asierako eskeintza onela egiten zuan: "Eskualdun soldadu gazteri, zenbeit kantu eza-gunenak, bihotzean atxik dezaten beti gure eskuara ederraren eta Eskual-Herri maitearen amodioa".

Eskualdun Kantuak izeneko liburua, berriz, Buenos Aires'en agertu zan, 1904 urtean. Itzaurrea L. H, Londaits jaunak firmatzen du, onela esanez:

“Tan numerosas son las poesías de Euskaria y tan desconocidas son muchas de ellas, sobre todo aquí, que éra de consiguiendo lógico y natural ocuparse en la tarea de recordar a los viejos los cantos de la tierra en que nacieron y hacer conocer a la juventud los aires con que han sido mezados sus padres”.

Beste bilduma batzuk ere argitaratu dira geroztik beste aldean liburuetan: *Xaramela, Mariya, Kantuz, Kantu kanta kantore*. Dibarrart eta Oxalderen bertso-bildumak ere agertu dira. Etxahun'en bilduma, berriz, Lhande eta Larrasket'ek atera zuten leenengo; eta ondoren Haritchelhar'ek osoago bat eskeñi digu.

Alde ontan, Makazaga'k *Euskalerriko kanta zarrak* izeneko iru liburuska argitaratu zituan. Baita Bilintx eta Xenpelarren bertso-bildumak ere. Baita *Txirrita'ren Testamentua* ere.

Bilintxen bertso-bilduma leen ere agertua zuan *Euskal-Esnalea'k* liburuska batean.

Zarauzko *Itxaropena* etxeak ere *Basarriren bertso-sorta, Atano irugarrena* eta *Kantari nator* liburuak atera zituan.

Irungo Baxurko zanak, berriz, *Jesukristoren bizitza* eta *Iñazio Deuna* bi liburuska eman zizkigun bertsoetan.

Euskal-Kantak eta *Boga-boga* izeneko bildumak ere agertu ziran.

Ondarrutarrak *Ondarru'ko kantak* izeneko liburuak eman zuten argitara.

Len ere kanta-bildumak bazirala esango digu norbaitek. Adibidez, Azkue'rena eta Aita Donosti'rena; eta lenago Santesteban'en *Colección de Aires Vascongados*, Echeverría eta Guimon'en *Ecós de Vasconia* eta abar. Bañan oiek batez ere doñuentzat egiten ziran; eta letra, bertsoak alegia, bigarren mailako utzi.

Aitatutako beste oietan, berriz, doñu gutxi azalzen da, edo bat ere ez. Batez ere letra jaso eta gordetzeko egiñak dira.

Badakit ez dedala zerrenda osorik azaldu. Nere aldetik, gañera, *Auspoa*'ren liburuak ere erantsi bearko nituzke.

Gain-begiratu batekin ikusita, argitalpen oiek gure erri-literaturaren joera bat erakusten digute. Joan dan mendearen asieran papereratzea egin zan bezela, mende ontan libururatzeta lortu da. Aldizkarietara, berriz, joan dan mendearen bukaeran asi zan pasatzen, eta gure egunotan agerbide ederra dute or bertsoak.

Auek gordeleku berria arkitu dute, beraz: aldizkariak eta liburuak.

Batedonbatek orain galdetuko duana: liburuetan eta aldizkarietan ateratzen diran bertsoetaz erria jabetzen al da? Bai; egiten da. Bi gertaera azalduko ditut, bata liburuena argitzeko eta bestea aldizkariena.

Leen esan bezela, *Auspoa*'k liburuak argitaratzen asiagatik, bertso biltzeari ere jarraitzen diot noski. Eta baserrietan, bertso zaarrik bai ote duten galde egindakoa, baietz erantzun, barrura sartu eta *Auspoa*'ren libururen batekin etorri izan zaizkit bein baño geiagotan. Bertso-liburuak jaso eta gordetzen ditu, beraz, gure erriak.

Eta aldizkariak ere bai. Guraizez ebaki eta berezita askotan jaso izan ditut. Aldizkari-zati edo rekorteak alegia; eta puska oietan bertsoak. Aldizkaria galdu edo erre, beraz; bañan bertsoak jaso ta gorde.

Oiartzun'en bein batez gertatu zitzaidana esango dizuet. Ugaldetxo'n, Ibarre baserrian, Joxepa Oiarbide'ren aotik zenbait bertso jaso nituan.

Bertso ederrak eta doñua ere gustagarria, arran-

tza ona egin nualakoan itzuli nintzan noski etxera. Bañan ondoren nere buruaustekak: zeñenak ote ziran bertso oiek? Buruari gogor eragiñagatik, ez nion galdera orri berealakoan erantzuna eman. Bañan noizbait ere arrastoa billatu nion. *Ibaizabal* astekarian argitaratuak ziran, 1903'garrenean, maiatzaren 3'an. Amar bertso dira, eta beren egillea Donostia'ko Bitoriano Iraola da. Ondoren, *Bertsolariya* astekarian ere azaldu ziran, bañan egillearen izenik gabe.

Beraz, aldizkari oietatik bide egin zuten bertso oiek etxekoandre orren bururaño, doñu politaz jantzi zituan onek, eta arrezkeroztik nork esan zenbat aldiz entzun diran Oiartzun'go sukalde orretan?

Bertso-paperaren eriotza

Bañan liburu eta aldizkarietaz mintzo geran bitartean, bertso-papera nun gelditu zaigu? Berri tristea eman bearra degu. Bertsoak gordeleku berrira pasa bitartean, gordeleku zaarra galdu egin zan; bertso-paperaren eriotza gertatu zitzaigun.

Gerra etorri artean, bertso-paperak indarrean jarraitu zuan. Gerra ondoan ere bertso-papera inprentatzen eta kaleratzen asi zan berriz ere.

Gogoan det: 1941'ean, Ondarrabiak irabazi zituan estropadak. Ondorengo igande batean, Tolosa'ko eliz-atarian, an zan gizaseme luze bat estropadetako bertsoak kantatzen eta saltzen. Tolosa'ko Zerkausian ere ikusi oi zan larunbatetan bertso-saltzailleren bat. Neronek ere erosi izan nuan bertso-paperen bat edo beste. Orio'ko Pello Saikola zala uste det. Zenbait paperetan bertsoak urtea esaten dute, eta gerra ondokoak mordoska dira.

Bañan giroa etzan lengoa. Zensura alde batetik.

Bestetik, emengo gerraren ondoren, kanpokoa. Gosea ere bai. Eta abar eta abar. Eta pixkanaka gain-beera asi zan bertso-papera. *Besamotza* saltzaille famatua, bein batez Bilbo'ko Parte Zaarrean ikusi nuan. Bañan bertsorik ez; loteria saltzen zuan.

Emen ez-ezik, berdin gertatu zan beste zenbait lurraldetan ere. Erderazko koplak erosita nago ni korreo-trenetan, orain ogei ta bost bat urte. Erderazko bertso-paperak, alegia. Ez det uste orain olakorik saltzen danik.

Aragoi eta Naparroan, jai-illuntzetan, erronda ateratzen zuten mutillak, jota ederrik kantatuz, laud, bandurria eta gitarrarekin lagunduta. Gerrak ori ere eten egin zuan. Ondoren berriro asi ziran, lengo oiturari jarraitu nairik. Bañan ezin. Giroa, esan bezela, erabat aldatuta zegoan.


Beste erri edo lurralde askotan gauza bera arkituko genduke. Indarrean eta osasuntsu zetorren erri-literatura, urte oietan makaldu eta erori egin zan. Gure artean ez-ezik, Europa'ko lurralde askotan gertatutako aldakuntza izango da.

Erri-literaturak, emen eta nun-nai, soka luzea osatzen du. Auskalo noiztik datorren gizaldiz gizaldi. Leenengo muturra etzaio ageri. Bañan bildur naiz azken muturra eskuetan ez ote degun.

Beraz, bertso-paperaren asiera joan dan mendearen asieran edo frantzestearen ondorenean izan ban, eriotza orain ogei bat urte gertatu zitzaiola esan genezake. Iñork etzion il-kanpairik jo. Iñor gutxi oartu zan orretaz. Bañan gure erriarentzat galera aundia izan zala dudarik ez da.

Gure artean, ala ere, leen esan bezela, bertsoa liburu eta aldizkarietara pasa da. Eta, olakorik aitatu ez badegu ere, kaset eta diskoetara sartu dala danok dakizute. Beraz, gorde edo bizileku zaarra gal-

duagatik, bizileku berria arkitu du bertsoak. Berri txarra ez da. Osasuntsu dagoala esan naiko du. Bertsoa eta euskera indartzeko izan dedilla.



Kuba-ko gerra
(Bersolaritza eta kondaira)

**(Donostian, Aurrezki Kutxa Probintzialaren
aretoan, 1982-ko azaroaren 4-an.)**

Kuba-ko gerra (Bertsolaritza eta kondaira)

Gabon, jaun-andreok:

Bertsolaritzari buruzko itzaldi bat eskatu zidatenean, bertsolaritza eremu zabalegia zala erantzun nien; eta, mesedez, ortik gai zeatzagoren bat bereizteko. Ta zer bereziko, ta kondaira.

Bertsolaritzaren kondaira bi modutara artu ditekete, ordea: bertsolaritzak berak izan duan kondaira eta bertsolaritzak kontatzen duan kondaira. Nik bigarren bidea aukeratu det; eta bide ortan, Kuba-ko gerra.

Kuba-ko lenengo gerra, amar urtekoa, 1868-an asi zan, Yara-ko oiuaekin (*el grito de Yara*); eta 1878-an bukatu, Zanjón-go pakea (*paz de Zanjón*) deritzaionarekin.

Gerra ontan ere ibili ziran euskaldunak. Bañan artean fueroak zutik zeuden eta emengo diputazioak milla bat gizon bialdu zituzten beren kontura. Bertso batzuk ere badira; bañan ez errikoiak. Gerra ontaz ez degu gaur itzegingo.

Kuba-ko urrengo gerra 1895-eko otsaillaren 24-an asi zan, Kuba Españaia-rengandik berezi nai zutenak Baire-ko oiua (*el grito de Baire*) egin zutenean.

Kubatarrak laguntzalle indartsua arkitu zuten: Ipar-Amerika. Azkenean, berak erabakiko zuan auzi ori.

1895 urtea baño len ere, ekiñaldi batzuk egin izan zituzten kubatarrak an ta emen; bañan bazterrak sutan jarri gabe. Errez menderatuak izan ziran. Ekiñaldi oiei guda txikia (*guerra chiquita*) esaten diete kondairalariak.

Kuba-ko gerra esandakoan, Filipinetakoa ere gogoan artu bear da. Biak batera gertatu baitziran. Izan ere, etziran aiek bi gerra; gerra bakarra baizik, bi frentetan burruka egin zana.

Kuba-ko gerra orrek oso alderdi berezia izan zuan Bidasoaz ego aldeko euskaldunentzat. Bera izan baitzan, oker ez bagaude beintzat, fueroak galdu eta emengo mutillak soldaduskara joaten asi ondoko lenengo gerra.

Alderdi ori oso gogoan zuan Txirritak. Ona nola dion bertso batean:

Kintak jarri ta ondorenian
beste ogei bat urtian,
zenbait amaren seme onradu
Kuba-n sartu zan lurpian;
guraso askok negar egin du
ura saldu zan artian,
geienak lutuz jantzi giñaden
Kantabriya-ko partian.

Gerra asitakoan, nai ta nai ezko joan bear ortaz garrazki mintzatzen dira bertso-paperak. Gurasoak seme ederrak nekez azi eta bestek eramán. Onela dio sail batek lenengo bertsoan:

España-ko mutil gaztiak
daramazkite soldadu,
guraso askok gauza orrekin
sentimentua izango du;
entrañetako semiarekin
ezin dutela agindu,
ori pentsatuta biyotz gogorra
egin liteke bigundu.

Urrengo bertsoak garai artako bidegabekeri ba-
ten aurka mintzatzen dira:

Edade ori semeari eman
Jaungoikuak dakin bezela,
gero zer pena amarentzako
soldadu biar dutela;
bestela berriz sei milla errial
dirutan pasa dezala,
ez dun gajuak ezin kubritu
asko duenak bezela.

Bizarra zuri, kokotza lori
Gobiernuko geienak,
bazekitek oiek nola libratu
seme aberatsarenak;
serbiziyua egin dezala
dirurikan ez dubenak,
berriz ere kalbo jarriko dituk
orrela pentsatzen dutenak.

Urrengo bertsoak dionez, erbi-zakurra eiztari-
entzat dana, uraxe bera da soldadua ofizialentzat:

Eiztari onak ondo pintzatze'ik
erbi-zakur onarekin,
eiza eroso jarritzen dik duben
abillidadiarekin;
beste oinbeste gertatutzen dek
zenbait ofizialekin,

soldaduak lana egin biarko ditek
Kuba'n insurrektuarekin.

Gerrak ekarri dituan negarrak aitatzen dira
urrengo bertsoetan. Batek onela dio:

Ordubete're ezin du pasa
gustora orrelakuak:
esposatuak senarragatik,
semeagatik gurasuak;
nobiya berriz lo eziñ egiñik
pasarikan gau osuak,
amaika muxu penazko artze'ik
mutillan erretratuak.

Bañan soldaduen andregaiia aitatze orrek, bera
ere tratabidean ibilia dala gogorazten dio bertsola-
riari; eta orain arteko bertsoak serio samarrak bazi-
ran ere, urrengoak beste bide bat artzen dute:

Amoruan egondua naiz
ni're neskazar batekin,
ez da milagro bat erotzia
oien gezur ta salsakin;
erretratu bat eskatu zidan
eduki zezan berekin,
muxuka laister puskatu zuben
ezpañetako babakin.

Jarri aurrian eta esan zidan
besuak zabaldurikan:
"Zer eingo nuke nik au bezela
zu ibiltziagatikan?".
Erantzun nion: "Sorgiñik ezta
neskazar añekorikan,
demoniyuak eman zaitzala
nere aldamenetikan".

Gertaera orrek oso ikasbide sakona ematen dio
bertsolariari:

Mutil gaztiak eskarmentatu
ejenplo txiki onekin:
erretratua puskatu zunak
zer egingo zun nerekin?
Etzaitezela ezkondu beintzat
erdi ipurdikuarekin,
izatezkero urtiak aiña
milla duro dituanakin.

Urrengo bertsoak “irundar gazte batek jarriyak”
dira. Beraren izenik ez dakigu, ordea. Kuba-ra joan
bearra tokatu zaio gizarajoari:

Uste ez nuen gizon batzuek
egin dirate bisita:
“Ala, mutillak! Prepara ari
guraso zarrak utzita”.
Soldaruskara eraman naute
tunika zar bat jantzita,
zer esperantza ama gaxuak
daukan semiak azita!

Aita ta ama zarrak daukazkit,
anaia serbiziyan,
neroni ere gizon faltsuak
artu naute traiziyuan;
beste batzuk kunplitu faltan
beren obligaziyuan,
pobre gaixuak paga dezala
aberatsan negoziyan.

Enbustekeriz jantzirikan
etorri zaizkit etxera:
“Aiskiria, ez bildurrik artu,
gerrara juango etzera”.
Bañon aguro etorri zaizkit
jauna oiek bisitatzera:
“Artu mutxila eta arma mauser,
segi Kuba-ko partera”.

Penarik aundiena zerk ematen dion, onela adierazten du mutil onek:

Donostiyara presentatzeko
artu genduan ordena,
etxetik partitzen ikusi eta
negarrez familia dana;
gañera bakarrik lajatua
nere biyotzeko dama,
bestiak aisa pasatzen zaizkit,
arek ematen dit pena.

Ala, mutil-taldea badijoa Irundik Donostiara:

Kanta ta bulla etorri giñan
naiz pena izan biotzian.

Ondoren, Zaragozara bialtzen dituzte, eta antxe:

Arrantxo gutxi janaz mutillak
ikasi instruziyua.

Kuba-raño ondoren. Urrengo bertsoak itz gutxitan gauza asko adierazten ditu: alde batetik, soldaduak, armetan altxa ziranei baño bildur geiago zietela lurralde bero aietako gaitz kutsakorrei. Auek, izan ere, balak baño mutil geiago il zituzten. Eta, ondoren, gerra bukatzen danerako zer asmo dituan esaten digu:

Moru beltza oien kara itxusiyak
ez nau asko apuratzen,
terraje txarrian gaitz gaiztuak
geienak miñez erortzen;
baldiñ bizirik Gipuzkoara
emendik banaiz etortzen,
zer umoria pasako duten
bertso berriyak kantatzen!

Urrengo bertsoak reserbista batek jarriak dira. Bigarren txandan arrapatu du mutil ori soldaduskak.

Lenengo pausoa, emendik Burgos-eraño. Ondoren:

Burgos-en utzi pasiak eta
gero Madrid-ara etorri,
falsuak tranpan nola zebiltzan
laister geniyon igarri:
euskaldunak danak juntatu eta
esango diogu elkarri:
“Ea, mutillak, koraje egin,
ez obeditu iñori”.

Madrid-ko despedira adierazten digu urrengo bertso batek:

Kuarteletik atera eta
estaziyora artian,
musikak asko konsolatutzen
etzituztenak bazian;
jendia franko begira bazan
kale guziyak betian,
pena aundiya gelditua da
Españiya-ko partian.

Sebilla-raño oraingo ontan. An trajea eman da berriz ere abiatu egin bear:

Sebilla-tikan atera giñan
illaren ogei t'iruan,
akonpañatu giñuzten askok
gustagarrizko moduan;
estaziyuan ere pausua
nola emanik etzeguan,
biyotz gogorra zutenak ere
biguntzen ziran orduan.

Kadiz-eraño urrena. Eta an:

Sartu gera *Isla de Luzón* deitzen
zaion bapore batian.

Ez dute oso biaje gustagarria egiten:

Bi milla gizon eta geiago
guaz bapore batian,
egunez gusto aundiyik gabe
eta okerrago gabian;
arkakosuak bezela danak
bata bestian gañian,
iya ituan irteten gera
kamañetatik goizian.

Ori asko ez balitz bezela, beste larritasun bat ere
pasatzen dute:

Bapore onek deskalabro bat
izandu digu birian,
Agoztuaren ogei ta zortziyan,
San Agustin egunian;
makina ausi ta gelditu zaigu
goizeko iruak aldian,
kezkarik asko iduki degu
ura konpondu artian.

Bañan Puerto Rico-ra onik irixten dira. Eta an-
dik:

Cienfuegos deitzen zitzaion
Kuba-ko erri batera.

Ondoren:

Noizbait erri artan sartu gerade
Habana-ko ziudadian,

danak geunden desiatuak
allegatzeko lurrian;
lau egun pasa trenan ditugu
eta amazazpi urian,
dudarik ez du, korritu degu
makiñatxo bat birian.

Urrena, Habana-ko sarrera:

Baporetikan atera eta
formatu gera murallian,
fusillan puntan baionetakiñ,
oso kolera fuertian;
españolaren alde ziranak
an ere izango zian,
amaika biba egin digute
kuartelera artian.

Eta erriko agintariak oso ondo portatzen zaizkie:

Gogotik ondo portatu zaigu
Habana-ko Aiuntamentua:
ogaina errial eman digute
eta naiko tabakua.

Urrengo bertso-sailla Donostian jarria da.
Bertsolariak, mutillak joateak neskatxetan utzi
duan pena agertzen digu:

Zenbait neskatxa gazte Donostiya-kok
biyotzak triste dauzkate,
isla Kuba-ko gerra gogorrak
diralako mediante;
bi rejimentu emen zeudenak
ara eraman dizkate,
eta dituzten tristura denak
ortatik sortu zaizkate.

Zer errejimentu diran ere esaten du:

Sicilia ta *Valencia*-ko
errejimentu ederrak,
neskatxa oien pena eman du
zubek aldendu biarrak;
ez du kulparik inork izandu
baizikan Kuba-ko gerrak,
eta zer pena duten badaki
bakarrik Jainkuak berak.

Neska oiek soldaduekin zuten beren atsegin gu-
zia:

Uniformia ez dutenakin
berriz ez juan nai inora.

Bi neska alkarrekin izketan agertzen dizkigu ber-
tsolariak. Mutil batzuk joan diralako artu duten
tristura, beste batzuen etorrerak kontsolatuko du:

Arrats batian esaten ziyon
batek bestiari ala:
“Gure gustoko ibiltze danak
uste diñat juan dirala”.
Bestiak berriz erantzun ziyon:
“Kalma ar zan nik bezela,
zergatik berriz kinto berriyak
emen ditun beriala.

Naiz etorri zikiñak eta
jantzita erropa zarrez,
aurki jarriko ditun jefe bat
bezela garbitasunez;
gorputza jantzi uniformeaz ta
eskuak guante ederrez,
alako bati itz egiteko
egon litezke txit pozez.

Galtza gorriyak, kapote urdiña
ta rosa beren buruan,
bigote ederra ezpañian da
iru bat galoi besuan;
neri geiago gustatzen zatan
jantzirik ezten munduan,
alakuaren onduan eziñ
aspertu milla orduan”.

Errejimentu oietako mutillak bein baño geiagotan atera ziran Donostitik Kuba-ra, 1895 eta 1896 urtean. *Bajak* edo utsuneak betetzeko ala bear.

Batean, aundikiro ospatu zuten soldaduen joanaldia: kanpoan meza, Okendo-ren irudiaren urbil samar; Pierola, Gasteizko obispoa, meza emale; erregiña entzule; soldaduak antxe formatuta; agintariak, jendea...

Joanaldi oietako batean, mutil batek, erdalduna bera eta bertso-jartzallea, Blas G. Romea izenez, koplak batzuk jarri zituan:

*Al partir para la guerra
un beso me dio mi madre,
y aunque la fiebre me ahogaba
¡qué frío sentí tan grande!*

*Huellas en tu rostro, madre,
mi despedida dejó;
si en tu rostro dejó huellas,
¡qué haría en el corazón!*

Kuba-ra joan eta an gerran dabillen mutil batek, Inazio Albizu-k, iru bertso bialtzen ditu. Lenda-bizikoa auxe:

Etsirik onezkero
egongo zerate,
ez dizutelako
eskribi ezere;

ez penatu, amatxo,
emen ondo gaude,
fusilla bizkarrian
egun, gau ta aste.

Orain arteko bertsoak bertsolariak jarriak dira. Berriz ere aitatuko ditugu olakoak. Bañan orain agertu nai ditudanak, garai artako olerkari, itz-neurtulari edo biursariak moldatuak dira. Oiek ere mintzatu baitziran Kuba-ko gerraz.

Tolosako *El Cántabro* karlista aldizkarian, *Eme-arrak* firmatutako bertso batzuk arkitu ditut gerra oni buruz. Izenorde orren atzean bere burua gordezen duana, Ramos Azkarate izango da ziur aski. *Galtzaundi* bertso famatuen egillea, alegia. Onela dio:

Españaia daukagu
txit errukarriya,
dituben lur-apurrak
galdu ditu iya;
madarikagarritzko
liberalkeriya,
zu zera gauza oien
etsai galgarriya.

XIX mendeari “argiyen eunkia” (*el siglo de las luces*) deitzen ziotela-ta, onela ematen dio buelta arrazoi orri:

Errege bidezkoak
zutenian aintzen,
Españaia ziguten
lur berriz jantzitzen;
eta orain daudenak
larru-gorritutzen,
a zer argitasuna
duten erakusten!

Ondoren, mutillen joanera nola izan dan esaten digu:

Trenian pasa ziran
lengo egun batez
mutillak Habana-ra
algaraz ta farrez;
tartian juanak dira
batzubek negarrez
eskatzen zutelarik
ura karidadez.

Tren bidera irten zan
gizon bat apaña,
lan asko... egin arren
du gorputz liraña;
aoa zabaldu ta
jasorik mingaña,
biyotzetik... deitutzen
zun: “*¡Viva España!*”

Besteren umiak
gerra egitia,
gauza motelarentzat
ona da *gatz-txia...*
Ori deitzia bañan
ez al zun obia
aiekin biraltzia
beraren semia?...

Gerrara joan bear orrekin, karlisten gerrateetan gertatzen zana konparatzen du:

Borondatezko asko
juan zan gerratian,
ikusi ordurako
karlistak mendian;
sort-erritasun franko
orain mingañian,

zertan daduzkatzute
semiak etxian?

Bertso auen esanei akats nabarmena arkitzen diegu. Olako une latzetan, alderdikari guziak alde bat utzi bear dira, eta danak alkarrengana bildu. Onek ez du orrela jokutzen. Eta, zoritxarrez, etzan bakarra izan. Beste askok ere berdin egin zuten. Bañan alderdi ona ere ikusten da: orduko politikoak, nork bere politika egiteko, euskera erabiltzen zutela.

Adibidez, Elias Gorostidi, errepublika-zalea bera, *La Voz de Guipúzcoa* egunkari errepublika-zalean, onela mintzatzen da:

Jakiña dago zer izango dan
gerra onen bukaera:
geienak ill ta Kuba-n gelditu,
gutxi biurtu etxera.
Monarkitarrak dauden artian
orra gure izaera...
Republikak, bai, ondo izatia
ekarriko du onera!

Tolosako Emeterio Arresek, *Aurrera!* izeneko bertso bero batzuk jarri zituan. Onela dio lenengoak:

Zer uste dute moro zar oiek:
española garaitzia?
Gure kopeta beren indarrez
umill goiberatutzia?
Mudur zapalak, ez dakizute
zer dan emen jaiotzia,
seme leialak dakin bezela
amarengatik iltzia.

Jende guziak bazekian Ipar-Amerika'k kubatarrei laguntzen ziela. Orregatik, onela dio Arresek laugarren bertsoan:

Sendogarriya eman dizute
ingelestarren anaiak,
zeren daduka zaleturikan
ezkur gozoa jan-naiak;
leoi-marruak zutatu ditu
Españ-gudari ernaiak,
eta baijoaz purrukatzera
katamotzari erraiak.

Pepe Artolak ere baditu bertsoak, gerra ura zala-ta:

Española beti da
noblea eta fiña,
orain artean iñork
bentzutu eziña;
badirudi jaiotzez
gudarako egiña,
bada onek artzian
barrendikan griña,
ill artian egingo
du fiñ alegiña.

Otxandioko Felipe Arresek, arratiar soldadu baten ametsa agertzen digu. Kuba-ko zelai batean, mila bat soldadu lotarako prestatzen dira. Arratiar ori, belar tartean lo dagoalarik, ametsetan asten da: bere aurtzaroko ardiak ikusten ditu, garai artako aitz eta mendiak; gurdien irrintziak gora ta beera. Arta-soro galantak an eta emen... Bañan dianaren ots garratza entzuten du; eta ustez Altun mendiko larre gozoan zegoana, Kuba-n esnatzen da.

Bertsolariengana biurtu gaitezen orain. Pedro Maria Otañok ere baditu bertsoak, *Kuba-ko gure*

anaiari izenburuarekin. Sail au Mondragoiko 1896-ko Euskal Festetara bialdu zuan, eta gai jakiñeko saria irabazi. Onela dio 6 eta 19-garrenean:

Arerioak edo etsaiak
gu estali nai arren loiz,
España-ko leoi portitza
nol'ez dan izutu iñoiz,
ez du galdetzen zenbat diraden,
nondik datozen edo noiz;
sorterri ontan beti bizirik
daude Velarde ta Daoiz,
zeren biotza azitzen zaion
dabilenari arrazoiz.

Orain azkenik España-k txit
bera duen Habana,
erregin batek Colon-en bidez
eskuperatu zubana,
da lotsik eta zentzurik gabe
gure kontra altxa dana.
Nonbait ez daki, españitarrak
bildutzean elkargana,
beti arrazoiz guazela ta
bentzut-eziñak gerana.

Ikusten degunez, españiar abertzale-sua indarrean zegoan. Bañan orretzaz gero mintzatuko gera, su orren gar biziagoak azalduko zaizkigu ta.

Azkoitiko Juan Maria Zubizarretak emezortzi bertso ditu gerra ontaz. Ez du uste kubatarrak garaile aterako diranik:

Insurreto jaun oiek
dabiltza itxusi,
okasiua ematen
berak ziran asi;
azariaren gisan
mendira igasi,

ez dirade jarriko
Kuba-ko nagusi.

Kubatarrak *guerra de guerrillas* deritzana egiten zuten. Orregatik, onela dio zortzigarrenean:

Kubano oien kontuak
zelebriak dira:
atakian asita
beti erretira;
modu orretan ere
aspertuko dira,
milla eta bostegun
entregatu dira.

Bañan ango gaitzak mendean artu dituzte emengo mutil asko:

Kubano oiek ez dira
gu beziñ abillak,
odol beroagoa
español mutillak;
lastimaz eri daude
ango kuadrillak,
kolikoak artuta
asko dira illak.

Oiartzungo Kaskazuri bertsolariak ere jarri ziotuan gerra orretzaz bertsoak. Laugarrenean onela dio:

Orain dabillen gerra-lekua
deritzen zaio Habana,
amaika amaren seme badegu
paraje oitatik juana.
Gizarajuak izango dute
jornal txikiya ta lana,
modu orretan segitzen badu
laister deia da gugana.

Eta zortzigarrenean:

Ainbeste milla lenago juana
ta orain ere eskia,
len an ziranak rebelatuta
onera eldu eztia.
Ez da posible ango berririk
emen ondo ikastia,
jaiuak nonbait despeida bear,
au izaiera tristia!

Kuba-ko gerran ibili ziran bi bertsolari aitatuko ditugu orain.

Bata, Eusebio Mugerza, Mendaro Txirristaka alegia (1874-1955), Españaiko azken gerra ondoan erriz erri ainbeste kanta-paper saldu zituana.

Gerra artan ibili zala, berak esanda dakigu. *Konfesio jenerala* izeneko saillean, onela dio bertso batean:

Urtiak ogei nituanian
konseju oneri algara,
nere aita triste, ama negarrez,
nitzan Kuba-ko gerrara;
gosiak eta alkandorik ez,
zorritz betia gerrera,
ez nitzan mutill bikaña etorri
Kilimon errekaldera.

Eta beste batean:

Urte milla zortzi eun
noventa y cincuan,
oñetiar baten orde
soldau nitzan juan;
isla de Puerto Rico
ango ospitaltxuan
euki ninduten iltzat
ni deposituan,

obserbaziuan;
il bear ez nuan,
eta gero Kuba-n
gerrillero gerran
iru urte ta erdi
egin nituan.

Beste bertsolari bat, Kuba-ko gerran ibilia, Zaldibiko Patxi Erauskin edo Patxi Errota degu.

Erauskin onen *licencia absoluta* izeneko papera beraren seme Joakiñek gordetzen du, eta aitaren Kuba-ko pauso guziak antxe adierazten dira. Berta-ko toki-izen asko aitatzen ditu agiri orrek, bertsolari au aietan danetan ibilia: Guanabacoa, Managua, Richondo, Cantarranas, Guanajei eta abar.

Cruz del Mérito Militar con distintivo rojo eman zioten, Guayabitos-ko burrukan irabazita; eta andik denbora puska batera, *Cruz de plata del Mérito Militar*.

Ango burruka-aldiren batean, kubatar buruzagiren bat il zan. Ildako orrek erloju eder bat omen zeukan. Ura ofizial batek eraman zuan. Erauskin onek, berriz, katea; baita ari erantsita zegoan *brújula* edo orratza ere. Ondoren, Euskalerrian, trajez-edo jazten zanean, kate ori agerian jartzen zuan beti, solapatik boltsillora.

Beraren konpañiako teniente batek onela zituan izen-abizenak: *José Sanjurjo Sacanell*.

Onek, Kuba-ko gerran lenengo eta Afrikakoan ondoren, bere gradu guziak burruka-aldietan lortu zituan, jeneral izatera irixteraiño. Txirritak diona alegia: “aziyuetan irabazita jazten zituzten graduak”. San Fernandezen gurutzea ere bi aldiz bereganatu zuan. *Marqués del Riff* ere izendatu zuten.

1898-ko martxoaren 21-ean, Erauskin ori gaixorik zegoala-ta, *Montserrat* itxas-ontzian sartu eta Kadiz-era ekarri zuten.

Andik urteetara, 1932-ko maiatzaren 2-an, esku-titz bat egin zion Patxi Erauskin onek bere teniente izandakoari. Beste gauza batzuen artean, onela zion:

“Entre los soldados que se hubieran roto el pecho por V. E. estaba yo, como cabo de la Sección de Tiradores de extrema vanguardia.

Estaba V. E. en Santi Spiritu enfermo el 7 de Julio, y no pudo acudir al combate de Asiento de Magulla. A mi regreso me dijo: “No he podido ir a ese combate y he perdido un ascenso, pero he sabido que tú te has portado bien y te voy a proponer para sargento”.

Recuerdo que, al iniciarse este combate, separé de un árbol un papel que decía: “Hoy morirán todos los españoles que pasen por aquí”. Entregué el papel a D. Arturo Albergorti, el cual sonrió despreciativamente, pero me dijo: “¡Mucho cuidado, cabo de tiradores, que estamos en frente del enemigo!”

¿Se acuerda el teniente Sanjurjo de cuando nos enardecía con sus arengas? “¡Muchachos, mis soldados serán lo que se quiera, pero cobardes no!”. Poco después hirieron a V. E. y fue ascendido a la Península, pero le reintegraron pronto a la Manigua.

Y ¿su caballo? Aquel valiente animal blanco, corto de cola, con el cual penetraba en todas partes al frente de nosotros, tan pronto oía un tiro.

La última noche que pasé cerca de V. E. fue en Río Pelayo, cerca de la zona de Santi Spiritu. Por cierto que descansaba en una hamaca suspendida entre dos árboles; yo dormía en una corteza de palmera. V. E. me preguntó: “¿Qué tal, cabo Erausquin?” “Algo más molesto que V., mi teniente” le contesté. “Bueno -replicó V. E.-, estas cosas son interesantes para contarlas cuando seamos viejos”.

Y hemos llegado a viejos, mi general... Y por ello cojo al azar, de un depósito mental de queridísimos recuerdos, éstos que le envío.

No quiero cansarle más, pues ya tendrá cosas más interesantes de que ocuparse; pero si alguna vez quiere V. E. disponer de las postreras vibraciones de un corazón entero a pesar de los años, pregunte en Villafranca de Oria por Erauskin Errotari...”.

Sanjurjo-k bereala erantzun zion:

“Madrid, 9 de mayo de 1932.

Señor Don José Erausquin Errotari.

Mi querido amigo: No sabe Vd. cuánto me ha deleitado la lectura de su cariñosa carta del 2. A Dios gracias, se ha cumplido para ambos la profecía que hicimos en Río Pelayo, de contarnos aquellas escenas cuando viejos. No se borra nada de mi imaginación y veo con complacencia que conserva Vd. una memoria feliz, pues las citas que hace están en lo suyo, perfectamente.

Me satisface infinito que se encuentre bien y tan elogiado entre los suyos por su sabiduría como el más famoso versolari.

Ya sabe que tiene a su disposición incondicionalmente y es siempre suyo afctm^o amigo y compañero que le envía un cariñoso abrazo:

José Sanjurjo”.

Andik lau illabetera, agoztuaren 20-an, la san-surjada esaten zaion zalaparta prestatu zuan Erauskin bertsolariaren lagun orrek: errepublikaren aurka altxa Sebilla-n. Iri ontan gallen atera zan; beste guzietan uts egin, ordea. Giltzaperatu, juzkatu eta eriotz pena eman zioten. Bañan kartzelan bi urte euki ondoren, libre utzi zuten; *amnistía* eman alegia. Portugal-a joan zan, eta 1936-ko uztaillaren 18-an, anai arteko gerra ekarri zuan altxaldiaren buru iza-tera zetorrela, aideplanoak lur jo, su artu eta bertan il zan.

Sanjurjo eta Erauskin, bata punta-puntako es-pañiar eskuindarra eta euskotar sutsua bestea, al-karrengandik oso urruti zebiltzan politika iritzietan. Bañan adiskidetasunean urbil. Orregatik, pena ar-tuko zuan Erauskin-ek, gerra asierako egun gorri aietan ere, bere lagun ura orrela bukatu bearra.

Galdera bat datorkigu orain burura. Alde batetik, Kuba-ko gerrari buruz zenbait bertso-sail; bañan

geienak egillearen izenik gabeak. Bestetik, berriz, gerra artan ibili ziran bi bertsolari: Mendaro Txirristaka eta Patxi Erauskin. Ala, sail oien artean ez al da izango bertsolari oietako bat aita duanik?

Erauskin bertsolariaren liburua prestatzerakoan, beraren semeei galdera orixe egin genien. Bañan ezertxo ere etzekiten ortaz.

Gerraren kalteak agertzen dituzten bertsoak ere badira. Ramon Gelbentzu-k zera jartzen digu begien aurrean:

Zelaitxo baten alkarren aurrez
dauden bi etxe txuri.

Bietan pake santuan bizi dira. Baserri aietako gurasoak seme bakar bana dute. Bañan Kuba-ra eramaten dituzte biak. Geroztik:

“Non da gure jaiotz-erriya?”
orain an daude esanaz.

Bitartean, gurasoak:

Beste mundura laister dijoaz
eziñ bizirik iñola.

Eta onela bukatzen du sail onek:

Kuba ortatik bi seme aiek
egiten badute jira,
zori gaitzian sartuko dira
utsa dagon baserrira.

Kaietano Sanchez Irure-k ama-seme biren arteko izketaldia eskeintzen digu. Semea Kuba-tik dator, “txit oso argaldia”, ezin bizirikan, bi besotatikan bat antxe utzirikan, eta juxtu-juxtu txutikan. Ala ere,

poz bat ar dezake amak: “badaki etzaiola il beintzat semerik”. Bañan ama txundituta gelditzen da semearen planta ikusita. “Zu lengua zerala gezurra diruri” esaten dio. Eta semeak, itzaldiaren asieran agertu degun keja berritzen du:

Guk izan bagenduen
dirua gogotik,
etzan, ez, gertatuko
orlako gauzarik.

Bitartean, Cánovas, gobernuaren buru zana, Santa Ageda-n Angiolillo-k il eta gobernu berria osatu zan, Sagasta buru zala; eta Segismundo Moret, *ministro de ultramar*. Auek Kuba-ri autonomia eman zioten. Bañan odol geiegi ixuria zan, orrekin pakea egiteko. Kubatarrak etzuten onartu. Aiek askatasun osoa nai zuten.

Gobernuaren jokabide ori oso zorrotz epaitzen dute *El Cántabro* aldizkarian *Gaiñtxurizketa* izenordeko batek firmatutako bertso batzuek. Aldi ontan ere, Ramos Azkarate izango da, ziur aski, egillea. Onela dio lenengo bertsoak:

Eman diozka libertadeak
Moret-ek Habanatarrai,
Españiya txit ondatutzeko
armetan altxa ziranai;
bañan basati infernukuak
ez dituztela artu nai
esaten diye, eskeñitzera
joaten diraden guziyai.

Elias Gorostidi errepublika-zaleak, berriz, lengo gobernuen jokabideari ematen dio errua:

Ill ezkeroztik salda bearrik
ez du iñortxok izaten,

kontubak bear dira atera
guztiz okertu baño len.
Kuba aldean, bear bezela,
ibilli bagiñan zuzen,
ez genduben gaur lanik izango
ainbeste odol ixurtzen.

Bañan gerra gero eta gogorrago zijoan. Muñuzabal deitura zuan napar bat egundoko ausarditasuna erakutsia zala-ta, Emeterio Arrese-k aren garrantzak egiten ditu:

Ondo dezu, bai, zuk erakutsi,
Guamo deritzan tokian,
armetan egin dezuben gauza
osoro miragarrian,
zer lezateken legoi malsoak
miñeritzen diranian.
Bai, ondo dezu erakutsi zer
oparotasun aundian
ama garbiyan bular sendoa
edana zeran pakian...

Bañan egunik beltzenak artean bidean ziran. Ipar-Amerika-k, kubatarrei esku-zabal lagundu ez-
ezik, oso kopet illuna agertzen zuan Españiarentzat. Elias Gorostidi orrek onela dio beste sail batean:

Pruebarako egunak
etorri zaizkigu,
yanke-tar jende ori
txit arrotu zaigu.

Ala, 1898-ko otsaillaren 15-ean, iru astean iñora mugitu gabe Habana-ko kaian egona zan *Maine*

amerikar itxas-ontzia, izugarrizko danbateko batez lertu eta urpera joan zan.

Españaiko gobernuak bi nazioen arteko batzorde bat osatu nai izan zuan, ezbear ori zerk ekarri zuan azter zezan. Bañan ipar-amerikarrak etzuten nai izan, lan ori berak egingo zutela-ta.

Nork bere aldetik egin zuten, beraz, ikerketa ori. Españaik, baporea barrutik lertua zala atera zuan; eta, ala izanik, berak ezereen errurik etzuala. Ipar-amerikarrak, berriz, kanpotik egiña zala, urpeko mina batez.

Beste batzuen tertzerotza eskatu zuan orduan Españaik; auzi ori etzezatela ez amerikarrak eta ez espñaierak erabaki, beste batzuek baizik. Bañan Ipar-Amerikak ezetz.

Andik aurrera, gero ta zorrotzagoak izan ziran bi nazio auen artu-emanak. Etziran konpondu. Azkenean, Ipar-Amerikak gerrara jo zuan, apirillaren 20-an.

Donostian, telegramaz berri txar ori iritxi zan bezin laster, *manifestazio* aundi bat antolatu zan. Musika bandarekin, eta oiu eta txalo, kalez kale ibili zan jendea, konsuladuak bisitatuz. Berdintsu gertatu zan probintziako zenbait erritan.

Elizkizunak ere egin ziran, Jaunari laguntza eskatzearren. Eskeak ere bai, gerrarako dirua bilduz. Diputazioak irureun milla pezeta eman zuan. Eta errietako udalak, al zuanak al zuana.

Andoaingo udalak euskeraz idatzitako eskutitz bat bialdu zien erriko etxe guziei:

“Gure jaun eta adiskide: España leialari eman dio gerra bide gabe, Estados Unidos deitzen zaion naziyoak. Orain la-reun ta sei urte bizi ziran naziyo ortako jendeak zentzu gabe, salbaje moduan, lau oñekoen gisa, eta gure Espñaieren la-guntzaz argitu ziran, gizon egin ziran; zer pagu emateko?”

Ongi egiña aztu eta billautasun aundienarekin lagundu diyoe ixilka Kubako insurrektoai, gure mutill onak, gure gazteriya an ill dedin; eta, au asko ez balitz bezela, esan digue azkenik: "Españolak, zuazte Amerikatik; Kubako isla zuena da, bañan guretzat bear degu...".

Ipar-Amerika gerran sartu ondoko bertso-paper batek onela du izenburua: *Bertso Berriak yanketarraren eskarmentugarri jarriak.*

Onela dio lenengo bertsoak:

Yanketarraren pasarizuak
astera nua zabaltzen,
barkuaz eta armamentuaz
emen gaituzte galdutzen;
jendia eta dirua ere
doblia dala esaten,
alare gerra galdutzerikan
ez degu esperatutzen.

Bertsorik arrigarriena irugarrena da, batez ere azken arrazoiarengatik:

Española da jende gutxi ta
gañera berriz txikiyak,
bañan sobrante ibiltzen ditu
odola ta maleziyak.
Zer balio du aiek bezela
gizon aundi ta nagiyak?
Yanke-tarrentzat asko giñake
emengo lau probintziyak.

Laugarrena ere ez da nolanaikoa:

Diru asko ta jendia bañan
odola falta eiten an,
mutur-ezurrak iñori austen
ez dute izango lanikan;

naiago nuke emen baleude
tortilla egiteko bertan...
Ia, mutillak, egitzazute
oso txikitu eta jan!

Bañan Ipar-Amerika eta España Filipinas aldean
asi ziran alkar joka. Orregatik, onela dio bostgarren
bertsoak:

Yanketar oiek sarrera aundiyak
eiten emen dira asi,
erri kaxkar bat Filipiñetan
artu digutela guri;
orain bezela obeko dute
segurutikan ibilli,
Manilik artu ezetz apustu
iñola españolari.

Zein ote da erri kaxkar ori? Ipar-Amerikak, otsai-
lla ezkerro, gerra-ontzi mordo bat Hong-Kong-en zeu-
kan. Eta, gerra asi bezin laster, Filipinas aldera
bialdu zuan.

Manila-tik ogei ta amar bat kilometrora, Cavite
dago. Erri orren ondoan alkar ikusi zuten Ipar-
Amerikako eta Españiako itxas-ontziak, maiatzaren
lenengo egunean.

Itxurarik gabeko burruka gertatu omen zan.
Ipar-amerikarrak *tiro al blanco* egin omen zuten.
Bigarren ordurako, españiar ontziak txetu zituzten
beintzat.

Ondoren, ipar-amerikarrak Cavite artu zuten.
Orixe da bertsolariak esaten duan erri kaxkarra.
Bañan garai artan *arsenal* eta *plaza fuerte* zan. Eta
bein esatearekin ez du bertsolariak naikoa. Urrengo
bertsoan onela baitio:

Erri kaxkar bat artuagatik
ez, mutillak, ikaratu.

Ikusten degunez, ezjakintasun edo itxumen aundia zabaldua zegoan. Alegia, emengo indarrak aundi-iritzi eta etsaiarenak gutxitu. Buru-berotzaileak nortzuk izan ote ziran? Kondairalariak egunkariak egiten dituzte errudun. Batek onela dio:

“Funcionó en España un mecanismo que luego hemos conocido en diversos países confesado, legitimado y estable: mecanismo de una Prensa al servicio de una consigna esencialmente falsa, porque aparenta representar una opinión cuando la está creando en la mentira”¹

Bitartean, Españaiko gerra-ontzien buru zan Cervera almiranteak, etzuan iñola ere emendik Kuba aldera ontzirik ateratzerik nai. Aretxek garbi ikusten zuan, ara joan ezker, zer etorkizun zegoan. Marinako ministroak arako agindua eman zion, ordea, eta abiatu egin bear. Abiatu eta, Ipar-Amerikako ontziei iges egiñez, Kuba-ko Santiago-n sartu.

Bañaan ipar-amerikarrak amabost milla soldadu Santiago ondoan legorreatu zituzten, eta El Caney eta San Juan mendia artu, oso burruka latzak jo ondoren.

Orduan, Santiago-tik irteteko agindua eman zioten Cervera-ri. Arek bazekian ondamentira zijoala; bañaan goikoaren esanetara burua makurtu eta irten, uztaren 3-an, goizeko bederatzietan. Eguerdirako, Españaik gerra-ontzi aiek danak galduak zitu.

Uztaren 18-an, Españaiko gobernuak, gerra artan zer egiñik etzegoala ikusirik, Frantziari bitarte-

¹ P. Aguado Bleye: *Manual de Historia de España, III*, Madrid, 1956, 781 orrialdean, Jesús Pabón-en idazlan bat aitatu.

kotza eskatu zion, pakea lenbailen egiteko. Artu-emanak bereala asi ziran, *Tratado de París* izeneko firmatu arte.

Orra nola dion kondairalari batek:

“En los primeros meses del 98 dominan el orgullo, el entusiasmo y la confianza. Después de la catástrofe se cae en un estado de sorpresa primero; luego de rabia contenida, y por último de desilusión, de escepticismo. “Nos han engañado” es la frase que se piensa y se pronuncia en todos los corros”.

Eta Euskalerrian ere berdintsu. Gerra asierako berotasunak eta erronkak ederki ixildu ziran. Orixe da itza: ixildu.

Andik aurrera oso gutxitan aitatzen da gerra ori egunkarietan-eta. Gerra ura, izan ere, danentzat amets bat bezela baitzan. Bañan amets gaiztoa. Eta amets gaiztoekin egin oi dana egin zan orduan ere: burutik alegiña aldendu edo uxatu.

Ondoko bertso-paper batek onela dio lenengo eta bigarren bertsoan:

Bertso batzuek jartzera nua
arrazoiaren gañian,
gerra gogor bat nola izan degun
españolaren kaltian;
erreinu danok agindu zagun
bakoitzak bere lurrian,
pobre ta aberatsa bizi gaitezen
Jesukristoren legian.

Bost urte ontan gerran gabiltza
españolaren semiak,
lau urte t'erdi kubanuekin,
ala esaten du jendiak;
sei illabete naziyuekin
justu dituzte pasiak,

Españi ontan egin dirade
amaikarekin pakiak.

Lengo aiton zarren oroipena ekartzen du ondoren:

Gerra-lanian beti nagusi
españolaren semiak,
naziyo danak bildur batekin
errespetuakin lajiak;
Norte-ko oiek eman dituzte
oraingo pasaportiak,
non ote dira gure aitonen
lengo abillidadiak?

Lengo aiton aiek jarritako lege ederrak ere galduak zirala-ta, onela dio beste bertso batean:

Aitona onak irabaziyak
galdu dizkigute aitag,
beren kontrara ibiltzen dira
amaika aldiz tratistak;
oponiyo bat beti badegu
zori gaiztozko karlistak,
atzen gerr'ortan jarri zituzten
txit oso lege politak.

Len esan bezela, fueroak galdu eta nai ta nai ezko soldaduska jarri berria baitzan, eta Kuba-ko ori urrengo gerra gertatu.

Beste bertso-paper bat biotz-ukigarria da. Onela dio izenburuak: *Bertso Berriak*. Arren, erruki zaitezte guzaz. Ona bertsoak zer dioten:

Kuba-tikan etorri
giñaden gaztiak,
nola arkitzen geran
guziro tristiak,

errukitu zaitezte,
euskaldun maitiak,
ikusirikan gure
begi-bitartiak.

Iru urte osuak
gerran igarorik,
gure aldetik ez da
izandu paltarik;
guztiz fiñ ibilliya
ez degu damurik,
barauba pranko egin
ditugubelarik.

Gaitza eta gosea
guretzako beti,
bañan guregandikan
diruba urruti;
bizirik nola gauden
Jaungoikoak daki,
nunbait oraïndik emen
nai gaitu iduki!

Dirubaren gosea
daukagu geiegi,
zortzi bañon geiago
ginduzke amabi;
osasuren paltan
nola gauden eri,
txakur batzuek biltzen
gabilitza kantari.

Emen txit umilla
bada gazteriya,
nola ez du izango
gure errukiya?
Nork ukatuko digu
txakur bat aundiya,

kentziagatikan
guri *miñ-oriya*?

Min-oriya, Azkueren iztegiak dionez, *ictericia* da. Bañan, bearbada, oraingo ontan *fiebre amarilla* izan diteke.

Gerrako erituentzat, teatro-jaialdiak-eta nun-nai antolatu ziran. Bestelako laguntzak ere bildu ziran. Bañan naikoa ote zan?

Edozein moduz, gosea eta dirurik-eza obeto uxatzearren, bertso-paperak argitaratu eta saltzen asten da mutil-kuadrilla ori.

Gerra artako azken bertsoak, Felipe Dugiols kornela etorri eta il zanean entzun ziran. Bañan etziran bertsolari batek jarriak, orduko olerkariak baizik.

Felipe Dugiols ori, tolosarra jaiotzez, karlisten kontra mikeleteen buruzagi ibilia, Filipinetara joan zan gero, eta ango gerratean ere gogotik jardun.

Andik etorritakoan, 1899 urteko udaberrian, bertsoak jarri zizkioten Sánchez Irure, Emeterio Arrese, Jose Ganboa eta abarrek. Eta andik urtebetera il zanean ere, berdin.

Bañan ez ditugu emen aitatu, bestela ere itzaldi au luzeegia izan da ta.

Ori izan zan gerra ura, bertsoak agertzen digutenez. Gure aitonak ere onelatsu ikusiko zuten. Ordu atsegingarri bat igaro badezute, neretzat naiko saria litzake.

Bañan buka dezagun Txirritak gerra orri ematen dion epaiarekin:

Aberats askok pagatzen zuen,
soldadu juan zenbait pobre,
legi ori jarri ez bazan ere
arlotiarentzat obe;

atzenerako estranjerua
egin zan islaren jabe,
len ere Kuba saldu ziteken
oinbeste gizon ill gabe.



Arkibidea

Arkibidea

Itzaurrea

Ataria	7
Hitzaurrea	11
En busca de poesía popular a través del País Vasco (Bertso berri billa Euskalerrian zear) (Aránzazu, 15 de setiembre de 1956)	21
Gure erriaren fedea bertsoetan ageri danez (Relijio-bertsoak) Donostian, 1957-ko abenduan.	41
Bertsolariak eta Europako lenengo gerratea (1914-1918) Bilbo, 1958-ko abenduaren 14-an.	67
Itzaurrea (1960-XII-18-ko bertsolari-txapelketa-ko bertso-liburuarentzat idatzia.)	101
Bosquejo de historia del bersolarismo (Confereencias dadas en mayo de 1963, en los locales del E.U.T.G., en San Sebastián.)	109
El bersolarismo (Trabajo escrito para el libro <i>Guipúzcoa</i> , editado por la Caja de Ahorros de Guipúzcoa, en 1968.)	255

Bilintx (Indalecio Bizcarrondo Ureña) (Trabajo escrito para el calendario de 1968, editado por la Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, con reproducciones de cuadros de varones ilustres guipuzcoanos, de Antonio Valverde, y una reseña biográfica redactada por diversos especialistas.)	283
Urruzuno, idazle (Pedro Migel Urruzuno jaunari, 1973-ko ilbeltzaren 28-an, beraren jaioterri Elgoiba-rren eskeiñi zitzaion omenaldian egindako itzaldia.)	295
Manuel Lasarte bertsolaria (Leitzan, 1975-eko martxoaren 2-an, Manuel Lasarte bertsolariaren omenaldian, <i>Amazabal</i> pelotalekuan egindako itzaldia.)	313
Bertso-paperak (Donostian, Gipuzkoako Aurrez-ki Kutxaren aretoan, 1980-ko ilbeltzean egindako itzaldia.)	323
Kuba-ko gerra (Bertsolaritza eta kondaira) (Donostian, Aurrezki Kutxa Probintzialaren aretoan, 1982-ko azaroaren 4-an.)	351



Aspoaren hauspoa dugu eskuetan taupaka, bi ale mardul hauetako hitzaldietan: Antonio Zavalak egingako lanaren arnasa, egitasmo handi baten bihotza...

Liburu bikoitz honen eske genituen, aspalditik, berrogei urtean bildutako bertso-paperak eta grabatutako bertsoak eta hizketak; argitaratutako ia hirurehun liburu, handi eta txiki; ezkututik ateratako bertsolariak; plazaratutako idazleak...

Herri-kulturarekiko maitasunak gidatu du Antoniaren lan izugarria. Maitasun horrek eragin dio bide zaharrak ezagutu eta ibiltzera, eta berriak aztertu eta urratzera. Izan ere, bideurratzailea dugu Zavala, eta gai bakarrarekin itsutzen ez den horietakoa. Bertsolaria, bertsoa eta bertsolaritza ditu gai, baina zabal hartuta...

Eta, euskal kulturaren mugak zabalduz, inguruko baratzeak ere jorratzen hasi zaigu Antonio Zavala, azken urte hauetan. Ez da harritzekoa. Hain da esku-zabala! Eta hain txikiaren zale eta bitxiaren defendatzaile. Hain hizkuntz eta kultur ekologista!

(Pello Esnal)

ISBN 84-89080-38-0



9 788489 080386